

Hausnarbide

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
hausnarketarako espazioa,
indarkeria sexistaren alorrean

I. EDIZIOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoa

IZENBURUA: Hausnarbide. Gipuzkoako Foru Aldundiaren hausnarketarako espazioa, indarkeria sexistaren alorrean. I. edizioa.

EGILEA: Gipuzkoako Foru Aldundia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa

AUTORETZA: Sortzen Consultoría

MAKETAZIOA: Kalaka Koop. Elk. Txikia

DATA: 2022ko apirila

INPRIMAKETA: Gipuzkoako Foru Inprimategia

ISBN: 978-84-7907-834-8

LEGE GORDAILUA: D-420-2022

Hausnarbide

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
hausnarketarako espazioa,
indarkeria sexistaren alorrean

I. EDIZIOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Aurkibidea

01

Hitzaurre politikoa

8. or.

02

Sarrera

9. or.

03

Indarkeria
sexistaren
marko teorikoa

10. or.

04

Metodologia

11. or.

05

Prozesuan zehar
landutako gaiak

12. or.

06

Eskertzak

175. or.



01 Hitzaurre politikoa

Gaur egungo mundua eraldaketa sakon batean murgilduta dago, eta eraldaketa horrek gure bizitza sozial eta ekonomikoaren arlo guztiei eragiten die. Aldaketa horiek, askotan disruptiboak, etorkizunari buruzko zalantzak sortzen dituzte, eta, halaber, gure komunitatea osatzen dugunon ohiturak, jarrerak eta balio indibidualak eta kolektiboak aldatzen dituzte.

Testuinguru horretan, Gipuzkoak desberdintasunen aurka borrokatzeko egin duen apustuak inoiz baino zentzu handiago dauka. Pandemiak eta bere ondorio sozioekonomikoek pertsona ahulenei eragiteko mehatxua agerian uzten dutenean, orduan eta premiazkoagoa da gizarte berdina goa eta kohesionatuagoa erakitzea. Eta Gipuzkoako Foru Aldundia norabide horretan ari da lanean. Gure lurraldea Europan desberdintasun maila txikieneko tokietako bat izateko borondate estrategikoarekin.

Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea da, zalantzarik gabe, ezinbesteko eta lehentasunezko baldintza. Hain zuzen ere, emakumeen mendekotasunaren eta diskriminazioaren oinarri diren jarrerak sustatzen dituzte emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunak bizitzako esparru guztietan.

Aipatutako helburuan aurrera egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoak berdintasunaren aldeko eragile publiko eraldatzailea izan nahi du, eta, horretarako, eremu hauetan jartzen du arreta: gobernu onean, emakumeen ahalduz, ekonomia eta gizarte antolamenduaren eraldaketan berdintasuna bermatzeko, eta indarkeria sexistaren aurkako borrokan. Azken helburu hori da, hain zuzen, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko lehentasunezko -eta premiazkoeneko- helburuetako bat.

Berdintasunerako Organoak abian jarri duen Hausnarbide ekimenaren bitartez, emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera bideratutako gai eta eztabaidei buruzko etengabeko hausnarketa sortu nahi da. Gai horietan adituak diren pertsonekin izandako elkarrizketak oinarri hartuta, ekimen horri esker, pentsamenduari eta azterketari lotutako espazio lasai bat sortu nahi da, indarkeria matxistaren aurkako

borrokan eta indarkeria jasaten duten biktimei laguntza emateko zereginetan aritzen diren pertsonen lana babestu eta eguneratzeko balioko duena.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistak desberdintasun egoera estrukturala du oinarri, sexuaren arabera gizartean eta familian ezarrita dauden rol eta erantzukizunen banaketa tradizionalen oinarrituta. Errealitate horrek emakumeak gizonen mende jartzen ditu; horrela, emakumeen aurkako indarkeria kontrol sozialerako funtsezko tresna bihurtzen da, desberdintasun horrek iraun dezan eta betikotu dadin.

Azken urteotan nabarmen aurrera egin dugun arren, oraindik asko falta da egiteko, eta, beraz, premiazkoa da indarkeria matxistatik gabeko gizarte bat lortzeko bidean aurrera egitea, emakumeek askatasunean eta berdintasunean gara ditzaten beren bizi-proiektuak. Emakumeen aurkako indarkeria matxista hainbat modutan gerta daiteke, dela modu fisikoan, psikologikoan, sexualean, sinbolikoan edo bikarioan, eta hainbat esparrutan: bikotekidea, familia, aisialdia, lana, kirola, eta sare sozialak, besteak beste. Esparru ugari dira eta, beren berezitasunak izateaz gain, etengabe eboluzionatzen dute eta, gainera, gizarte-eraldaketan eraginpean daude, gure begiradak eta ezagutzak etengabe eguneratzea eskatzen dutenak.

Horregatik, hurrengo orrialdeetan, Hausnarbide ekimenaren barruan orain arte partekatu ditugun lehen hausnarketak jaso nahi izan ditugu. Lehen emanaldi honek zazpi kapitulu ditu, egituraturako zazpi eztabaidari buruzkoak. Kapitulu horietan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren modu bakoitza garatu nahi izan dugu, eta helburu bakarra dute: baliagarri izatea elkarteetan edo beste erakunde batzuetan gai honen inguruan lan egiten dutenentzat. Tresna erraza eta apala da, baina, zalantzarik gabe, baliagarria izango da gizarte justuagoa eta berdina goa lortzeko urratsak egiten jarraitzeko, indarkeria matxistatik gabeko gizarte, hain zuzen.

Miren Elgarresta

Foru Aldundiko Berdintasuneko zuzendaria

02 Sarrera



Hausnarbide ekimena 2015-2019 legealdian garatu zen, *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planaren* esparruan.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko foru politikak aberasteko eta edukiz elikatzeke helburuarekin sortu zen espazio hori, eta berari esker, indarkeria matxistak emakumeengan eta neskatilengan dituen ondorioen eta inpaktuaren ezagutzan sakondu ahal izan da, kontuan hartuta indarkeria hori zer eremutan gertatzen den eta nola agertzen den. Gainera, arreta eta prebentzio eredu desberdinak ezagutzeko aukera eman du.

Hausnarbide ekimenean landu diren edukiak lotuta egon dira foru politikaren garapenarekin, betiere Foru Aldundiaren eskumen esparrua kontuan hartuta, eta horrek aipatutako foru politikaren garapenean txertatzea erraztu du. Eskumen eremu hori, oro har, lotuta dago bi esku-hartze arloekin:

- **Arreta**, Foru Aldundia baita indarkeria matxistaren arloko arreta-zerbitzu espezifikoen arduraduna, zehazki, Gipuzkoako arreta psikologikoko eta soziojuridikoko zerbitzuen eta harrera-zentroen arduraduna. Gainera, haurren babesa Foru Aldundiaren eskumen eremuaren barruan dago, eta eremu hori oso lotuta dago indarkeria matxistaren problematikarekin.
- Indarkeria matxistaren **prebentzioa**, haur, nerabe eta gazteen alorrak sustatzera bideratutako foru politikarekin lotuta. Politika hori hezkuntza ez-formalaren eremuan garatzen da.

Eskumen horien esparruan, Berdintasunerako Organoari dagokio indarkeria matxistaren arloko foru politikaren diseinua eta jarraipena koordinatzea.

Hona hemen Hausnarbide ekimenaren barruan, 2018-2019 aldian, landu diren edukiak:

- Indarkeria matxisten aurkako Estatu-ituna.
- Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeekin esku hartzea, erreparazioaren ikuspegitik.
- Indarkeria sexistaren arloan gizonei zuzendutako politika publikoak sustatzea: hausnarketak, aurrerapenak, eta erronkak, besteak beste.
- Bortxaketaren kultura: arazoak eta alternatibak.
- Indarkeria sexista eta komunikabideak.
- Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko politikak eta esperientziak.
- Sexu-abusua haurtzaroan: prebentzioa eta arreta lantzea ikuspegi feministatik abiatuta.

Beraz, Hausnarbide ikerketari eta prestakuntzari lotutako espazio gisa garatu da, betiere emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzera eta biktimei arreta ematera bideratutako foru politikak hobetze aldera. Hala, Hausnarbiden landutako edukiak kontuan hartu dira bai arreta zerbitzuen jarraipen eta etengabeko hobekuntza prozesuan, bai indarkeria matxista prebenitzeko lan prozesuetan.

Ilido horretan, esate baterako, Hausnarbide ekimenaren esparruan egindako aldez aurreko hausnarketak edukia eman zion Gazteria Foru Zuzendaritzarekin batera burututako lan prozesuari, ikuspegi feminista batetik abiatuta haurtzaroan sexu-indarkeria prebenitzera bideratutako prozesuari. Lan hori haurren, nerabeen eta gazteen berdintasun eta sustapen arloetako tokiko teknikariek egin zen.

Beraz, ondorioztatu daiteke Hausnarbidek, indarkeria matxistari buruzko hausnarketa gunea den aldetik, indarkeria horren aurka borrokatzeko foru politika hobetzen lagundu duela.

03 Indarkeria sexistaren marko teorikoa



Hausnarbidek, indarkeria matxistaren arloko hausnarketarako eremu gisa, Foru Aldundiaren kontzeptu eta terminologia esparrura mugatzen ditu bere gogoetak. Horrela, indarkeria matxistaren formak modu bateratuan kontzeptualizatu eta izenda daitezke, eta horrek ulermena eta azterketa partekatua errazteaz gain, artatu beharreko egoeren mugaketa argitzen du.

Beraz, ezinbestekoa da agerian uztea emakumeen aurkako indarkeria matxista desberdintasunaren eta emakumeen desbalorizazioaren esparru estruktural batean gertatzen dela. Horregatik, indarkeriazko harreman horietan pertsonak ez daude abiapuntuko egoera berean, emakumeen gaineko kontrola bilatzen duten botere-harremanak baitira.

Indarkeria matxistaren kontzeptualizazioa aldatuz joan da, bai teoria feministaren bilakaeraren eskutik, bai erakunde publikoek teoria hori onartzeko egindako ahaleginaren eskutik. Onarpen horrek, nahiz eta nabarmen hobetu duen erakunde publikoek indarkeria matxistaren aurrean duten jarrera, bere argiak eta itzalak izan ditu.

Hori oso ondo ikusten da esparru juridikoetan, zeinak osoa garrantzitsuak izan diren indarkeria matxista kontzeptualizatzeko orduan. Esate baterako, *1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak*, honela definitzen du genero indarkeria: «emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonen emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa». Horrela, bikotearen eremutik kanpo gertatzen den indarkeria oro, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunean oinarritutako indarkeria izan arren, ez dago kontabilizatuta, ezta babestuta ere lege horren arabera.

Muga horiek gainditze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegina egin du indarkeria matxista guztiak kontuan hartzeko, ahalik eta esparru kontzeptual zabale-
na garatuz, betiere indarkeria matxistaren konplexutasuna kontuan hartuta. Esparru
kontzeptual horrek eta berari lotutako terminologiak aukera ematen diote Aldundiari
indarkeria matxistari aurre egiteko ahaleginean parte hartzen duten beste erakunde
batzuekiko elkarriketa argitzeko, baliokidetasun terminologikoko sistema bat sortzen
baitu. Gainera, esparru horri esker, argi eta garbi zehaztu ahal izan dira Aldundiaren
lehentasunak, hau da, indarkeria matxistaren zer motari ematen dion lehentasuna
eta zeintzuk jorratzen dituen arretaren arloan eta zeintzuk prebentzioaren arloan.

Oro har, Aldundiaren esparru kontzeptualak indarkeria matxistatzat hartzen du gene-
ro-sozializazioan jatorria duen indarkeria. Termino horren barruan, bi indarkeria mota
daude: ¹

Indarkeria sexista: emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria
da, eta indarkeria horren bitartez, emakumeen gaineko kontrola eta domeinua
iraunarazi nahi da.

Beste indarkeria matxista batzuk, hau da, atxikita daukaten genero bitarra eta
sexualitate eginkizun sozialei erantzuten ez dieten pertsonak pairatzen dituztenak.
Lesbofobia, transfobia eta homofobia izango lirateke.

Testuinguru horretan, Aldundiaren esku hartze nagusia indarkeria sexistari aurre egi-
tea da (esparru eta forma guztietako indarkeria sexista), batez ere arretaren arloan.

Bestalde, indarkeria sexistak hainbat forma hartzen ditu eta hainbat eremutan agertzen
da, eta horrek tipologia oso bat sortzen du. Hala, indarkeria sexistaren eremuak izan-
go lirateke bikotea, familia, espazio digitala, lan-esparrua, eta eremu publikoa, bes-
teak beste; eta indarkeriaren formak, berriz, indarkeria hori gauzatzeko modu zehatzak
izango lirateke: sexuala, fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa.

Elementu horiek kontuan hartuta, hau izango litzateke Foru Aldundiaren gomendioa:
adieraztea, lehenik eta behin, azaldu nahi dugun indarkeriaren jatorri estrukturala (in-
darkeria matxista edo sexista) eta, bigarrenik, zer eremutan gertatzen den (indarke-
ria sexista bikotearen esparruan). Horrela, indarkeria bere testuinguru estrukturalean
kokatzeaz gain eta haren jatorria adierazteaz gain, indarkeria horren ezaugarriak eta
berezitasunak adierazten dira.

¹Indarkeria matxistari buruzko dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilitako terminologia eta terminologia horren
oinarrian dagoen analisia.

Horrekin guztiarekin, tipologia hau aterako litzateke:

Indarkeria sexista = emakumeen aurkako indarkeria matxista

Indarkeria sexistaren tipologia:

Genero indarkeria: indarkeria sexista bikotearen esparruan.

Sexu indarkeria: bikotearen eta familiaren eremutik kanpo gauzatzen den sexu indarkeria.²

Familia barruko indarkeria sexista: familiaren esparruan ematen diren indarkeria sexistari lotutako mota guztiak, bikotekideak eragindakoa ez denean.

Jazarpen sexista: lan esparruan gertatzen den indarkeria espezifikoaren izendatzeko erabiltzen da, nahiz eta jazarpen sexista beste eremu batzuetan ere gerta daitekeen, hala nola sare sozialetan.

Jazarpen sexistaren barruan bi azpikategoria bereizten dira:

Sexuan oinarritutako jazarpena: emakumeek lan esparruan duten gaitasuna gutxietea eta zalantzan jartzea helburu duten jokabide iraunkorrak dira.

Sexu jazarpena: sexu-izaerako abusuzko portaerak, lan esparruan ematen direnak.

² Sexu indarkeria eremu guztietan (bikotea, familia, aisia ...) gerta daitekeen indarkeria sexista mota bat bada ere, tipologia bikotearen esparrutik kanpo gertatzen den sexu indarkeriari egiten dio erreferentzia (genero indarkeriaren barruan baitago sexu indarkeria bikotearen esparruan), eta baita ere familiaren eremutik kanpo gertatzen denari (familia barruko indarkeria sexistaren barruan sartzen baita bikotekidea ez den senide batek familiaren barruan eragindako sexu indarkeria).

04 Metodologia



Argitalpen honek gogoetarako esparru honetako laneko mahaietan aurkeztutako ideiak jasotzen ditu. Ez dira modu kronologikoan jasotzen egindako esku-hartzeak, ezta osteko eztabaida edo jendartetik egindako galdera eta aipuak ere. Edukien eta eztabaidaren aberastasuna hobeto islatzeko gaika egituratu da, interes gehien sorrarazi zuten alderdiak nabarmendu eta azaldutako edukien ikuspegi osatu bat izate aldera.

Laneko mahaiak bi bloketan egituratu ziren; lehendabiziko blokeak ordu eta erdiko iraupena izan zuten gutxi gorabehera, eta gonbidatutako pertsonen zehaztutako gaiari buruzko gogoetak azaldu zituzten; atsedeen labur baten ondotik, emandako azalpenen inguruko eztabaida hasi zen eta bertaratu ziren pertsonen ohar eta galderei lekua eman zitzaion. Laneko mahaiak amaiera emateko, ideia nagusien laburpen bat aurkeztu zen. Norma Vazquez eta Aizpea Otaegi dinamizatzaileak arduratu ziren azken horretaz, Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Planaren garapenerako laguntza teknikoko beren lanaren zati gisa.

05 Prozesuan zehar landutako gaiak

1

Indarkeria matxisten aurkako Estatu Ituna

2018-02-28

2

Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeekin esku-hartzea erreparazioaren ikuspegitik

2018-09-21

3

Gizonei bideratutako politika publikoak sexu indarkeria arloan: gogoetak, aurrerapenak, erronkak

2018-10-26

4

Bortxaketaren kultura: problematikak eta alternatibak

2018-11-16

5

Indarkeria sexista eta hedabideak

2019-03-22

6

Gazteen artean indarkeria matxistaren kontrako prebentzio-rako politikak eta esperientziak

2019-05-17

7

Sexu jazarpena haurtzaroan: prebentzioa eta arreta ikuspegi feminista batetik jorratzea

2019-10-17

1:

**Indarkeria matxisten
aurkako Estatu Ituna**



Sarrera

Atal honetan genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituna aztertzeko gogoetarako esparru honetako lehendabiziko laneko mahaian aurkeztutako ideiak jasotzen dira.

Edukiak lau emakume adituk garatu zituzten Estatu Itunak esanahi izan duenari zein bere irismen eta mugei buruzko azterketa bat aurkeztuz, nabarmengarrien iruditzen zitzaizkien alderdien inguruan: esparru judizialean aldaketak sartu, hezkuntzaren esparruaren eginkizuna eta kanpaina publikoen zentzua berrikusi, edo indarkeriaren biktimaren emakumeen arretarako zerbitzuetan dauden profesionalen prestakuntzarako proposamenak planteatu. Azkenik, Itunak EAEn indarkeriaren kontrako politika publikoetan izango duen eragina jorratu zen.

Atal honen irakurketa errazagoa izan dadin eztabaidan izendatu diren Ituneko neurriak gaineratu dira. Erreferentzia guztiak Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialetik hartu dira. Diputatuen Kongresua. D seriea, 200. zenbakia, 2017ko abuztuak 8. Hurrengo estekan aurki daiteke berau, eta orri-oineko ohar bakoitzean orrialdearen zenbakia baino ez da adieraziko: [http://www.congreso.es/public_oficiales/L12/CONG/BOCG-D/BOCG-12-D-200.PDF](http://www.congreso.es/public_oficiales/L12/CONG/BOCG/D/BOCG-12-D-200.PDF)

Laneko mahaiaren buruan berdintasun zuzendaria den Miren Elgarresta eta Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia den Belen Larrion izan ziren.

Aztergaia parte-hartzaile hauek jorratu zuten.

Parte-hartzaileak



Doktore Soziologian. 2004-2008 bitartean Espainiako Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko berdintasun Politiketako Idazkari Nagusia izan zen eta Genero Indarkeriaren aurkako Legearen eta emakume eta gizonen berdintasunerako Legearen bultzatzaile nagusienetako bat. Haren esku-hartzeak Estatu Itunaren ekarpen eta gabeziak eta Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren berrikuspena izan zituen ardatz.



EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslea, 1995-2006 bitartean Justizia eta Berdintasun arloetako arduradun izan zen Arartekon. Indarkeria sexistari buruzko argitalpen ugari ditu eta, zerbitzu eta baliabideetara sartzeko bide modura salaketarako jarrera kritiko batekin, Zuzenbide Penalaren esparrua aztertu du emakumeen aurkako indarkeria jorratzeko bide eraginkor gisa.



Etxeko Indarkeriaren aurkako Behatoki Unitateko burua eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko burua. Biktimen babeserako salaketak esparru judizialetik so duen esanahiari eta arlo horretan lantzeke geratzen diren elementuei buruzko azterketa bat ipini zuen mahai gainean.



Emakunderen Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko arloko arduraduna. Bere hitzaldian Estatu ituneko neurriak Euskadin genero indarkeriaren kontrako politiketan zer-nola gauzatzen diren zehaztu zuen.

Saioaren laburpena

Estatu Itunaren mugak

Parte-hartzaile guztiek adierazi zutenez 2018an zehar txertatzeko hautatu diren neurri gehienak **sentsibilizazioarekin eta prebentzioarekin** dutela zerikusia, arretari berari lehenentasuna kenduz.

Bestalde, Itun hau *Genero Indarkeriaren kontrako Osoko Babesa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 lege Organikoaren* (aurrerantzean, 1/2004 Lege Organiko) **ebaluazio** bat egin gabe sinatu da eta, horren ondorioz, bertan jasotzen diren proposamenek ez dute egiaz politiketan norabide aldaketarik eragiten, baizik eta legean aurretiaz zeuden hutsuneei jarraipena ematen zaie, horietako batzuk, are, sakonduz. Gai horretan politika publikoetan egiaz aurrera egiteak aldizka ebaluazioak egitea eskatzen du.

Zentzu horretan, Ituna **borondate politikoko** ekintza bat da indarkeria matxistaren aurkako politika publikoen egiazko bultzada baino gehiago, izan ere, ekintza oso orokorrek barneratzen ditu, ez ditu erantzukizunak zehazten eta kontraesan garrantzitsuak ditu.

Barneratzen ez duen indarkeria matxista

Akordioko puntu modura hartuz **ikuspegi feminista** indarkeria matxistaren arazoaren tamaina ulertzeko aukera ematen duen bakarra dela, beharrezkotzat jo zen ahalduentzearen ikuspegiaren erabilgarritasunean sakontzea emakumeak artatu eta indarkeria eta horrekin lotutako kausa sozialak ulertzeko moduak areagotzeko, izan ere, Itunean ez dira bikote edo bikote ohi heterosexualaren esparruan gertatzen direnez aparteko indarkeria matxistak jorratzen (eta, are, esparru horretan ez dira jasotzen indarkeria adierazteko modu anitzak, horiei erantzuna emateko baliabideak diseinatzeari dagokionez).

Baliabide lagungarri ezberdinek modu **malguan** artatzearen garrantzia errepikatu zen, kasu bakoitzean emakume bakoitzari erantzun egokia ematea ahalbidetzeko azterketa bat eginez, bere bizi-zikloaren, bizi duen indarkeriari aurre egiteko edo indarkeria hori ulertzeko bere moduaren edo bere bizitzarekin aurrera jarraitzeko dituen gaitasunen arabera.

Esku-hartzea ez litzateke eskusiboki **esparru indibidualari** so burutu behar, izan ere, akonpainamendu erako esku-hartze bat egin liteke emakumeen elkarleen edo komunitatearen eskutik, modu horretan, emakumeek inolako agentziarik gabeko bik-tima modura ez, baizik eta une jakin batean harreman afektibo txar bat izan duten eta hura alde batera utziko duten emakume gisa ikus dezaten bere burua.

Instituzioen arteko koordinazioa

Emakumeek, baliabide publiko bati laguntza eskatzen dietenean, indarkeriatik irtete-ko abiatzen duten ibilbideak modu egokian osatzeko instituzioen arteko koordinazioa **ezinbestekoa** bada ere, Itunean ez da zehazten zein izan behar diren erreferentziazko irudiak bide horretan eta hori hutsune garrantzitsua da.

Hizlariak bat zetozen instituzio arteko koordinazioa **udal eta foru esparrutik** hasi behar dela adieraztean, berdintasun eta gizarte zerbitzuetako arloen arteko elkarlanaren bidez. Koordinazioa, gainera, beste arlo batzuetara hedatu beharko litzateke eta esparru judizialarekin ere ahalegin bera egin beharko litzateke.

Estatu Itunaren arabera **gizarte zibileko** erakundeen parte-hartzea garrantzitsua da instituzioen erantzuna hobetzeari begira. Gipuzkoan Gobernu kanpoko erakundee-kin lan egin daiteke eta, zehazki, emakumeen elkarrekin. Horrela, hala elkarreak nola EAEn dagoen eredu hobetu egingo lirateke. Itunean egungo eredu ongi txertatu ezin diren neurriak ezartzen dira, esate baterako, instituzio ezberdinen arte-ko koordinaziorako **tokiko unitateen** sorrera ezartzen da bertan, eta ez da halakorik jasotzen *1/2004 Lege Organikoan* eta egungo arreta sistema modu nabarian nahas dezake horrek.

Hurrengo orrietan sakontasun gehiagoz garatzen dira ideia horiek. Edukiak hobeto antolatze aldera, eduki horiek banatu egin dira, lehen atal batean Estatu Itunaren balioespen orokorrak eginez, beste batean Itunean legezko neurriei eta neurri judi-zialei buruz eztabaidagarri diren zenbait alderdi garatzen dira; beste hiru ataletan hezkuntzaren esparruko neurriak, kanpaina publikoak eta profesionalen prestakuntza jorratzen dira eta, azkenik, azken atal batean Itunak EAEn indarkeriaren aurkako poli-tiketan zer-nola eragiten duen aztertzen da.

Jorratutako gaiak

“Estatu Itunak eskaintzen duen gauza berriena da emakumeek babesaren eduki ahal izatea eta eskuratzeko eskubiderik ez duten beste baliabide batzuetarako sarbidea eskaintzea, bide penalean barneratu beharrik gabe.”

1. Estatu Itunaren balioespen orokorra

Oro har, deigarria da Estatu Itun bat sinatu izana alde zuzenetik 1/2004 Lege Organikoaren ebaluazioz gabe. Hori dela eta, hizlari batek baino gehiago uste du Estatu Ituna funtsean, konpromiso politikoa berritzea baino ez dela, “deklarazio sinboliko hutsa [...] eta edukirik gabea”.

Halaber, adierazten denez, Estatu Ituneko neurri garrantzitsuak jadanik jasota zeuden 1/2004 Lege Organikoan (sentsibilizazioa, heziketa, prestakuntza) eta ez dira gehiago garatu. Estatu Itunak eskaintzen duen gauza berriena da emakumeek babesaren eduki ahal izatea eta eskuratzeko eskubiderik ez duten beste baliabide batzuetarako sarbidea eskaintzea, bide penalean barneratu beharrik gabe. Halere, ez dago argi alderdi hori zer-nola garatuko den, izan ere, biktimak laguntza eta ahalduzko baliabideetara sar badaitezke ere salaketa ipini beharrik gabe, nekez ezar daitezke sistema judizialek at akusatuentzako askatasuna murrizteko neurriak. Neurri horiek bide zibil edo polizialek gara litezke, beste herrialde batzuetan egiten den moduan, baina horretarako legegane aldaketak behar dira, ez da aski itun batekin.

Estatu Itunak indarkeria matxista mota ezberdinei buruzko eztabaida ipintzen du berriz ere abian, baina testua kontrastez beterrik dago. Alde batetik, Itunaren¹ artikulua batean 1/2004 Lege Organikoaren esku-hartze eremua areagotzen du genero indarkeria kontzeptuaren barnean Istanbulen Hitzarmenean jasotzen diren emakumearen aurkako indarkeria mota **guztiak** txertatzeko.

¹ 84. neurriaz ari da: “Genero indarkeriaren kontzeptua Istanbulen Hitzarmenean jasotzen diren emakumeen aurkako indarkeria mota guztietara areagotzea”. 128. orrialdea.

Beste artikuluko batean, aldiz, definizio hori 1/2004 Lege Organikoan jasotzen den genero indarkeriara mugatzen du².

Gainerako indarkeria moduak estatistika eta prebentzio ondorioetarako soilik hartzen dira kontuan, eta biktimen arretoa eta berreskurapena indarkeria mota bakoitzerako ematen diren lege espezifikoekin arautuko da. Horrek esanahi du horren inguruan asko eztabaidatu bada ere, biktimen egoera ez dela aldatuko, izan ere, genero indarkeriaren definizioaren estaldura areagotu egin da baina ez arretoa.

Laburbilduz, Estatu Itunaren neurrietan etengabeko kontrasein bat dago: alde batetik, 1/2004 Lege Organikoa aldatu gabe uzten du, zeinaren konpetentzia bikoteko edo bikote ohiko kideen arteko tratu txarrak erabakitzea baita eta, beste alde batetik, beste indarkeria modu batzuk gaineratuko dituela zehazten du, hain justu, 2014an onartutako Istanbulko Hitzarmenean adierazten direnak.

Itunean adingabeei zuzendutako laguntza eta babesa indartzeko eta genero indarkeriaren biktimen arriskuaren balioespenetan seme-alabak gaineratzeko neurriak jasotzen badira ere, bilkuran zehar hutsune ezberdinak aipatu ziren gai horiekin lotuta.

1/2004 Lege Organikoan bezalaxe, Estatu Itunean ere adingabeak biktima modura barneratzeko ahalegina egin zen, baina profesional batzuek, zehazki epai eta fiskalek, adierazi zuten, Familiako Epaitegiak dira halako kasuekin arduratzen direnak. Hautemandako beste hutsune bat da Autonomia Erkidego askotan ez

“Genero indarkeriaren definizioaren estaldura areagotu egin da baina ez arretoa.”

² 86. neurrian zera adierazten da: Txosten hau sinatzen dugun Legebiltzarreko Taldeok premia hauek adierazten ditugu: Deklaratzea, Istanbulko Hitzarmenaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria moduak direla baita indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala ere, horien barnean egonik bortxatzea; emakumeen mutilazio genitala, derrigortutako matrimonioa, sexu jazarpena eta genero arazoien ondoriozko jazarpena, derrigortutako abortua eta derrigortutako antzutea, nahiz eta erasotzailearekin 1/2004 Lege Organikoa aplikatzeko eskatzen den harremana ez egon. Horrenbestez, arretoa eta berreskurapena, Istanbulko Hitzarmenean jasotzen den, eta 1/2004 Lege organikoan aurreikusten ez den, edozein indarkeriazko ekintzen biktima diren emakumeen eskubide espezifikoak aitortuz, indarkeria mota bakoitzaren aurrean esku hartu eta haren aurrean babesteko premia egokitze aldera ematen diren lege espezifiko eta osokoen arabera arautuko da. Arauzko garapen hori gertatu bitartean, Istanbulko Hitzarmenean aitortutako gainerako genero indarkerien kasuan prebentzio eta estatistika arloko tratamendua jasoko da 1/2004 Lege Organikoaren esparruan. Halaber, kasu horietan erantzun penala Kode Penalean eta lege penal berezietan xedatutakoaren arabera arautuko da. 129. orrialdea.

dagoela baimenduta adin jakin bateko haurrak bik-tima diren emakumeak artatzeko zentroetan sartzea.

2. Justizia eta legeria

2.1. Zuzenbide Penalaren eginkizuna 1/2004 Lege Organikoan eta Estatu Itunean

Arazo nagusia da Estatu Itunak ez duela zuzentzen, baizik eta Miren Ortubayren iritziz 1/2004 *Lege Organikoaren* akats bat izan zen funtsezko zutabeetako batean sakontzen duela: sistema penalarri gehiegizko protagonismoa ematea emakumeari biktimaren kredentziala eta babes aginduak emateko orduan, izan ere, horren ondorioz ia automatikoki emakumeen biktimizazio bikoitza gertatzen da.

Zuzenbide Penalak prozesuan protagonismo handia badu ere, ez ditu beti emakumeak babesten, hainbat arrazoi direla medio: lehenik eta behin, haren helburu nagusia delitua zigortzea delako, ez biktimak babestea, zeintzuk bigarren mailako pertsonaia modura hartzen baititu. Bigarrenik, sistema penalak jazoera zehatz batzuk soilik epai ditzakeelako, ez bizitzeko moduak edo testuinguru zabalagoak; baina genero indarkeria kasuetan irizpide horrekin epaitzea oso zaila da, izan ere, jazoera jakin batzuk (kolpe bat, umiliazio bat) bikotearen barnean sortzen den beldurrezko girotik bereizi behar dira, eta horrek jazoera horiek ia esanahi guztia galtzea dakar.

Hirugarrenik, sistema penalean jazoerak frogatu egin behar dira; hori genero indarkeriara eramanez, "jazoerak frogatu" prozesuan kontakizunaren koherentzia eta emakumearen sineskortasuna epaitzen dira azkenik, hura berriro biktima izatea eraginez. Gainera, delitu mota horiek zeharo ezberdinak dira gainerakoekin alderatuz, izan ere, horietan afektuak eta beldurrak nahastu egiten dira gizon ezagun batek sorraraziak baitira. Azkenik, sistema penalak ez du biktimaren premiak entzuteko

espaziorik, erasotzailea zigortzetik harago, beraz pairatutako kaltea ez da konpontzen.

Sistema penalaren muga horien ondorioz emakumeen aurkako erreakzio sozial bat sortzen ari da, izan ere, hainbat mito elikatu egiten dira, esate baterako, salaketa faltsuak edo salaketen koherentziarik eza eta, aldi berean, gizonekin bidegabe jokatzen delako sentipena sortzen da; horregatik, erasotzaileen aldetik kontra-salaketak ipintzen dira, emakumeak kaltetzen dituen defentsarako (balizko) estrategia bat, izan ere, emakumeak izutu egiten dira, inputatu modura ikusten dute beren burua edo gizartearen kondena pairatzen dute.

Egoera horri aurre egiteko, Zigor Kodea aldatu egin behar da Zuzenbide Penalak protagonismoa gal dezan. Helburu hori ez da lortzen erraza, izan ere, 2003. urteaz geroztik hedatzen den mezuaren arabera "zenbat eta gehiago iraun zigorrak, handiagoa izango da biktimaren aldeko babesa". Edozein kasutan, ezinbestekoa da prozesuan aldaketak egitea, izan ere, automatismo judicial batzuek emakumeak kaltetu egiten dituzte adingabea den pertsona modura tratatzen baitituzte; egiten diren kontzilio batzuetan emakumeak ez du ez ahotsik eta botorik eta, gainera, zenbait abantaila badituzte ere, epaiketa azkarrek hainbat gai korapilatsu ikertzea eragozten dute, esate baterako, indarkeria psikologikoa.

Ortubayek amaitzeko adierazten duenez, aipatutako alderdi guztietan, aldaketak egiteko eskumena dutenek ez daude alderdi horiek sakon jorratzeko prest, eta muga eta kontraesan horien gaineko azterketa sakon bat egiten dutenek ez dute horiek aldatzeko eskumenik.

Bestalde, Socorro Alvarezek esparru juridikoan baliabideak areagotzeko premia azpimarratzen du, emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ahalik eta gehien murrizte aldera. Euskadiren kasuan, arreta nagusia Balarazio Forentse Integraleko Unitateetan, talde psikosozialetan eta Elkarguneetan ipintzen da, horiek guztiak Eusko Jaurilaritzaren eskumeneoak.

“Premiazkoa da genero indarkeria edo sexu eraso kasuetako epai judizialean erabakigarriak diren kontzeptuak, berriro definitzea.”

Soledad Murillok uste duenez, askatasun sexualaren aurkako delituei dagokienez, Estatu Itunak hutsaltasun handiz jaso du Zigor Kodean 2015ean zirikamenari, zelatari eta gizarte sareen hedapenak suposatzen duen guztiari buruz sartutako aldaketa (Zigor Kodean zigor mota berriak sartu ziren *behartutako matrimonia, zirikamen edo zelata, irudien baimenik gabeko hedapena edo eragindako pertsonaren onarpenarekin eskuratutako norberaren grabaketak* tipifikatzean).

Matxismoa larrigarri modura planteatzeak duen garrantziaren aurrean, homofobiarekin edo arrazakeriarekin egiten den moduan, Cristina Fabrek ohartarazten du genero kontzeptuaren definizioa nahasgarria dela indarkeriaren kontzeptualizazioa bezalako erreferentziako esparru konplexu batean. Beraz, berak “ongi deskribatu eta generoa denaren inguruko didaktika egitea” proposatzen du. Aditu horrek berriki atera den epai bati heltzen dio, non Fiskaltzak genero arrazoiaren ondoriozko larrigarri bat aintzatesteko eskatzen baitzuen, eta epaitegiko titularrak alegatu zuen hori ezin zuela egin bikote edo bikote ohi harremanik ez zegoelako.

Kasu horrek, Fabreraren iritziz, Justiziako langileen artean prestakuntza espezializaturik ez dagoela uzten du agerian, generoaren inguruko azterketa eta ikuspegi feminista sartzearen aurrean agertzen den uzkuratunaz batera. Halaber, gogorarazi du 2012an jadanik matxismoa larrigarri modura aipatu zela prozesu judizialean eta 2018an genero arrazoiaren ondoriozko larrigarria onartu zela. Beraz, bere ustez, premiazkoa da kolektibo hori prestatzen duen hura jardun juridikoaren analisisan ikuspegi feminista sartzeko premiaren inguruan konbentzitzea.

Halaber, premiazkoa da genero indarkeria edo sexu eraso kasuetako epai judizialean erabakigarriak diren kontzeptuak, esate baterako, “erresistentzia” edo “baimena”, berriro definitzea, estereotipoak baztertuta. Adibide modura, bortxaketa kasu baten epaiketa azaldu du, non eraso pairatu zuen emakumea zurrun geratu zen eta erasotzailea absolbitu egin zuten ez zelako frogatuta geratu berak argi ulertu zuenik baimenik eza “bik-

timak ez zuelako erresistentziarik azaldu"; horrek erakusten du baimena ez dela interpretatzen soilik biktimak esandakoaren arabera, baizik eta baita erasotzailearen ulermenaren arabera ere. Hor analisi feminista falta da erresistentziarik ez agertzea "Ez!" esateko modu bat ere badela ulertzeko.

Bortxaketen kasuan, Socorro Alvarezen arabera, gazteak sexualitatean hezi behar dira eta "bortxaketa zein neurritara arte iruditzen zaien liluragarri" aztertu, kontuan izanik gazteek egun duten informaziorako tresna nagusia pornografia dela. Gainera, kontraesan handi bat dago bortxaketa kasuan kalte handiagoen prebentziorako protokoloaren, zeinak gomendatzen baitie balizko biktimei erresistentzia handirik ez agertzeko kalte handiagoak saihesteko, eta sistema judizialak baimenik ezaren adierazle gisa erresistentziaren inguruan egiten duen ebaluazioaren artean.

Hizlariaren arabera, kontraesan horiek ebatzi egin behar dira eta, horrez gain, indarkeria modu batzuen prozesuak jorratzeko modua hobetu egin behar da, izan ere, frogekin zailtasunak egoten dira, indarkeria psikologikoan, laneko jazarpenean eta indarkeria sexualean gertatzen den eran, biktima askorentzat zaila baita delitu horien inguruko prozesu judizialekin aurrera jarraitzea. Indarkeria sexualari buruz zehazki, adierazi duenez, Estatu Itunean sarritan aipatzen da ikerketak egitea, baina oraindik garrantzi urria ematen zaio biktimen arretari.

Ildo beretik, Cristina Fabrek uste duenez, salagarri diren eta ez diren indarkerien inguruko klixek sortzen ari dira. Hala, indarkeria sexual eta psikologikoa dira gutxien salatzen direnak Espainian eta Europar Batasunean, izan ere, marka fisikoekin egiazta ezin daitekeen indarkeria oro salatu ezin denaren sententzia dago. Biktimari salatzeke eskatzen zaio, baina ondoren pairatutako eraso frogagarriekin erakusteko eskatzen zaio; bi eskaera horiek kontraesankorrak dira eta uztartzen zailak.

Bestalde, Miren Ortubayk gaineratzen duenez, genero indarkeria azpimarratzen den bakoitzean egiturazko in-

"Salagarri diren eta ez diren indarkerien inguruko klixek sortzen ari dira. Hala, indarkeria sexual eta psikologikoa dira gutxien salatzen direnak."

darkeria bat da, baina prozesu judizialean "izebergaren punta" diren kasuak prebenitu eta jorrazteko neurriak soilik ezartzen dira, funtsezko arazoa oinarrian egon arren eta, horren ondorioz, ez zaie erantzunik ematen indarkeria fisikorik gabeko kasuei.

2.1. Biktima egiaztatzea

Estatu Itunaren 63. neurrian³ genero indarkeriaren biktima izaera egiaztatzeke mekanismoak areagotzea barneratzen da, izan ere, hura salaketarik ipini beharrik gabe egiaztatu ahal izango da (EAEko arreta sisteman da-goeneko egiaztapen hori egiten da Gizarte Zerbitzuen aldetik).

Biktima izaera egiaztatzeke prozedura ez da salaketaren baitakoa izan behar, baina bai emakumeei, erabakiak hartzerakoan, akonpainamendua egiteke sistema baten baitakoa.

Gainera, Estatu Ituneko 62.⁴ eta 64.⁵ neurrietan planteamendu kontraesankorrak egiten dira, izan ere, alde batetik, baliabide guztien erabilera koordinatua maximizatu egin behar dela adierazten da biktima diren emakumeen arreta hobetzeko eta, beste alde batetik, adierazten da Berdintasun Unitateak izango direla informazio estatistikoa jasotzeko ardura dutenak, koordinazio hori nola gauzatu adierazi gabe.

³ 63. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Berdintasunaren Arloko Konferentziaren esparruan egiaztapen sistema berri bat abian jarri ahal izateko oinarrizko prozedurak diseinatzea, 1/2004 Lege Organikoak ezartzen duen babeserako estatutu integralerako sarbidea izateko, eta baita egiaztatze titulukoak izortzeko gaituta dauden erakunde berriak ere. 127. orrialdea.

⁴ 62. 1/2004 Lege Organikoan egiaztatze tituluei dagokienez beharrezkoak diren aldaketak sartzeko, horien mugak eta iraupena adierazita. Izaera horren aitortza ez da ezinbestez salaketa ipintzearen baitakoa izango. 127. orrialdea.

⁵ 64. Akonpainamendua egiteko eta erabakiak hartzerakoan laguntza emateko sistema bat ezartzea, emakumearen babesgabetasuna ekidin eta 1/2004 Lege Organikoko 19. artikuluan aitortzen den gizarte laguntza integralerako eskubidea bermatzea. 127. orrialdea.

2.2. Babes aginduak

Cristina Fabrek Barne Ministerioaren aurrean beren desadostasuna hamaika bidez azaldu dutela aipatu du, salaketarik ipini ez duen emakumezko biktima batekiko babes agindu bat indarraldirik gabe uzteagatik. Bere ustez, emakumeak zigor prozedurarekin ez jarraitzea erabakitzen baldin badu, babes agindu horrek jarraitu egin beharko luke ofizioz emakumea babesik gabe gera ez dadin, emakumeak eskatzen duen babesa delituaren derrigorrezko pertsekuzioarekin uztartzeko.

Adituak adierazi duenez, Erresuma Batuan eta beste herrialde batzuetan babes agindu bat eskuratzea ez dago emakumezko biktimaren salaketaren baitan, baizik eta hura emateko erabakia poliziaren eskuetan geratzen da eta emakumeari denbora bat ematen zaio salaketa ipini ala ez balioets dezan. Denbora horretan zehar aholkularitza ematen zaio eta aurrera eramaten ari den prozesuaren nondik norakoak azaltzen zaizkio.

Jardun onaren adibide bat Austrian aurkitzen dugu. Bertan denbora bat ematen da emakumeek egoeraren gaineko kontzientzia hartu eta beren burua biktima modura uler dezaten, salaketa ipini ala ez erabaki aurretik; eta salaketa ipintzea erabakitzen baldin badute, sistemak aintzatesten du prozesu judizialaren erritmoa lineala dela, baina biktimaren prozesu psikologikoa ez eta, horrenbestez, gerta daiteke emakumeak atzera egitea prozesu judizialarekin jarraitzeari dagokionez.

2.3. Epaitze kriminalaren Legeko 416. artikulua erreforma: genero in darkeriaren biktimaren aldetik deklaratzeko premiaren dispentsa

Murilloren esanetan Estatu Itunaren gabezia handienetakoa bat da emakumezko biktima batek ezin duela biktimagilearen aurka deklaratu hura bere senarra baldin bada. Horrek agerian uzten du itun hori egiten dutenek

ez dutela ulertzen halako indarkeria moten biktima diren emakumeek bizi duten errealitate konplexua.

Alvarezek irizten duenez, emakumeekin ahalduntzearen ikuspegitik lan egitea kontraesankorra da bere bikote/erasotzailearen aurka deklaratzearen dispentsarekin. Gainera, zalantzan ipintzen du legezkoa ote den genero indarkeriaren biktima den pertsona bati bere erasotzaileari salaketa ipintzeko eskubidea kentzea, familia bateko gainerako kideek familia barneko indarkeria motaren bat gertatzen denean eskubide hori badutelarik.

**“Ortubay:
Zuzenbide
Penala
militarra da
eta arerioaren-
gandik
defendatzeko
balio du, baina
ez du balio
arerioa gutariko
bat denean.”**

Bere bikote/erasotzailearen aurka ez deklaratzeko dispentsarekin bat egiten ez duten emakumeak, hain justu, aurretiaz informazioa duten emakumeak direnez, adituek azpimarratzen dute ezinbestekoa dela emakume orok aholkularitza jasotzea eta abiatutako prozesu juridikoari buruzko informazio guztia izatea. Are gehiago kontuan izanik gutxik ezagutzen dituztela prozesu judizial batean dituzten eskubideak, eta epaileek soilik dispentsarako eskubideari buruzko informazioa ematen dutela, epaiketa lehenbailehen amaitzea nahiko balute bezala eta guztia emakumearen lekukotzaren baitan egongo balitz bezala. Adituek luzatzen duten galdera (erretorikoa) da zergatik epaiketa horietan epaileek ez dituzten lekukoak deitzen deklaratzera, eta ez duten ikerketarik egiten.

Bestalde, Ortubayren arabera, kontua ez da dispentsari bai ala ez esatea, baizik eta Epaitze Kriminalaren Legeko 416. artikulua non sortzen den ulertzea: “Zuzenbide Penala militarra da eta arerioarengandik defendatzeko balio du, baina ez du balio arerioa gutariko bat denean, horregatik 416. artikulua ez du funtzionatzen”. Baina, bere iritziz, dispentsaren aukera ukatzea prozesu judizial bat abiatzen dutenean ahaldunduta ez dauden emakumeak ahalduntze horretatik gabetzea suposatzen du, helarazten zaien mezua beren iritziak ez duela axola baita.

Gainera, dispentsarako eskubiderik ez duten herrialde batzuetan gertatzen dena da salaketa kentzen saiatzen diren emakumeak lekukotza faltsua emateagatik konde-

natu egiten direla eta seme-alabak kendu egiten zaizkie, hots, emakumeak zigortu egiten dira berriro. Gainera, adituak zalantzan jartzen du herrialde horietan tratu txarrak eragin dituztenei eraginkortasun edo maiztasun gehiagoz kondenatzea lortu ote den.

Halaber, urruntze aginduekin gauza bera gertatzen dela adierazi du: lehen epaileek ez zituzten urruntze aginduak ipintzen, baina gaur egun modu sistematikoan egiten da hori, horrek duen arriskua edo inguruabarrak kontuan izan gabe. Eta, amaitzeko, ez direla neurri sistematikoak ipini behar aipatu du, aitzitik, kasu zehatzak eta horietako bakoitzetik eratortzen diren arriskuak kontuan izan behar dira.

2.4. Protokoloak eta epailetzako beste zenbait neurri

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bere kompetentzien inguruko balioespen bat egin du Estatu Itunean islatzen denaren arabera, eta ondorioztatu du eragiten dieten artikuluko gehienak protokoloari, prestakuntzaren ebaluazioari eta indarkerien inguruko estatistika judizialei buruzkoak direla. Eta adierazi duenez, jasotzen diren neurri guztien artean, berritasuna eskaintzen duen bakarra genero indarkeriaren biktima diren emakumeei eta adingabeei deklarazioa hartzearekin lotutako jardun onen gida baten eraketa da.

Hizlariak koordinaziorako protokoloen garrantzia berresten dute, eta epailetzak protokolo horien parte izan behar du, eta Justizia Auzitegi Goren bakoitzeko berdintasun ordezkari bat eta probintziako indarkeriaren ordezkari bat izendatzearen garrantzia azpimarratzen dute. Bi ordezkari horiekin lan egin behar da Autonomia Erkidego bakoitzean koordinaziorako protokoloak txertatzeko, hainbat kontzeptu definitzeko (“baimenarena” adibidez) edota bikotean, gazteekin edo migratzaileekin sexu indarkeria zer-nola jorratzen den ezartzeko.

“Justizia Auzitegi Goren bakoitzeko berdintasun ordezkari bat eta probintziako indarkeriaren ordezkari bat izendatzearen garrantzia azpimarratzen dute.”

3. Neurriak hezkuntzaren esparruan

Isiltasunaren haustura: sentsibilizazioa eta prebentzioa izenburua duen Estatu Ituneko ataleko 4-7 bitarteko neurrietan hezkuntzako ikuskaritzak heziketaren aro guztietan genero indarkeriaren prebentzioa txertatzea eta bizikidetzako planak eta eskola jazarpeneko protokoloak berrikustea bermatu behar duela xedatzen duen *1/2004 Lege Organikoko* 9. artikulua bete izan balitz beharrezkoak izango ez liratekeen zenbait neurri jasotzen dira

Agerikoa da ⁶. neurriak, mutiko hurrekin eta mutil nerabeekin sexu indarkeria prebenitzeko egiteko lan hezigarriari buruzkoak, eta ⁷. neurriak, irakasleen prestakuntzari buruzkoak, duten interesa. Bi neurri horiek, etengabeko prestakuntzarako neurri positiboak abian jartze aldera nahiz genero indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokarako programa espezifikoak eskaintze aldera, 2018an txertatzeko 26 neurrien artean hautatuak dira.

Soledad Murillok prebentzioari eta familiaren eta emakumeen autonomiaren inguruko sinesmenak jorratzeko moduari buruzko gogoeta bat ipini du mahai gainean. Bere aburuz, emakume askok uste dute beren proiektu edo beharizan pertsonalak familiarekiko desleialtasun modu bat direla eta hori galga bilakatzen da indarkeriazko egoerak aitortu edo haien aurka egiteko. Sinesmen horren ondorioz, emakumezko biktima askok ez dute beren segurtasuna lehenesten eta, are, bizi duten indarkeria salatzen badute emakume onak ez direla ere pentsatze-ira iristen dira.

Sexu heziketari dagokionez, Estatu Itunaren negoziazioan maskulinitasunaren hegemonian oinarritutako eta sexuagatik ordaintzeko joera areagotzarekin lotutako

⁶ 5. "Ikastetxeetan sexu indarkeriaren prebentziorako prestakuntza tailerrak eta jarduerak bultzatzea, mutiko hurrekin eta mutil nerabeekin espezifikoan lan eginez". 122. orrialdea.

⁷ 15. Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Administrazioetako irakasleen etengabeko Prestakuntza Programetan genero indarkeriaren prebentziorako eta borrokarako gutxienez programa espezifiko bat eskaintzea. Hezkuntza Itunaren esparruan, etengabeko prestakuntza ekintza positiboak instrumentatzeko aukera balioetsiko da, berdintasunezko balioak bultzatze aldera. 123. orrialdea.

sexualitate batean mutikoak zer-nola abiatzen ari diren (erritu bat bailitzan taldeka bertaratzen direlarik) aintzatesteko premia aurreikusten zen (azkenik alderdi horrek ez du aurrera jarraitu). Ortubayk adierazten duenez, funtsezkoa da berdinen arteko elkarrekiko errespetuan oinarritutako prestakuntza sexual bat, baina maskulinitasun berrietan kokatuta, gizonak balizko erasotzaile modura soilik ikusi gabe, baizik eta indarkeria matxistak desagerrarazteko borrokan aliatu modura ere ikusiz.

Estatu Itunak 1/2004 *Lege Organikoan* jadanik planteatuta zegoen neurri bat berreskuratu du: ikastetxe publikoek beren kontseilu guztietan elkarteak izateko derrigortasuna, orain arte aplikatu ez den neurria. Horren harira, Murillok unibertsitateetako Berdintasun Unitateekin topaketa bat egitea proposatzen du, ikasgeletan indarkeria hautemateko zer egiten den jakiteko, dau den protokoloak aztertzeko eta gradu ezberdinetarako (Zuzenbidea, Kriminologia, Gizarte Lana, etab.) beharrezkoak diren ikasmaterialak zehazteko.

4. Kanpaina publikoak

Dokumentu osoan zehar oso barreiatua badago ere, planteatutako hobekuntzak hauspotzen dituen sekzio arteko ikuspegia interesgarria da; gainera, horietan dibertsitate funtzionala duten emakumeak, migratuak, emakumezko ijitoak, adin nagusikoak edota landa girokoak aipatzean, Eusko Jaurlaritzako eskumeneko sailekin abian jarri ahal izateko negoziazioa ahalbidetzen da.

Gazteei eta teknologien bidez ematen den indarkeriari begira ipintzearen garrantzia ikusita, Fabrek nabarmendu du 2018an gauzatzeko hautatutako neurrietako batak familiei bideratutako lanarekin duela zerikusia, alabengan nahiz semeengan, indarkeria pairatzen edo aplikatzen ari ote diren hautematen ikas dezaten.

Aitzitik, Murillok adierazi duenez, zeharo aplikatu ezina da nazioarteko kooperazioari buruzko neurria (*nazioarteko kooperazioaren esparruan indarkeria matxistaren aurkako neurri espezifikoetarako baliabideak bidera dai-*

**“Ortubayk
gizartearen ukoa
eraso
sexistetara
bidera dadila
proposatzen du,
eta ez erasotzai-
learengana.”**

tezela bultzatzea, errefuxiatuen eremuetan esku-hartzeko protokoloen barnean), izan ere, azken hamarkadan % 70 murriztu da Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratutako aurrekontua. Halaber, emakume migratuei beren eskubideak zein diren azaltzearen premia planteatu du, edozein delarik ere horien izaera edo jatorria, izan ere, kolektibo migratu femeninoaren barruan indarkeria matxisten biktimak babestera bideratutako eskubideei buruzko ezjakintasuna eta ulermenik eza handia da.

Estatu Itunean kanpainak tratu txarrak eragiten dituenaren aurkako ukoari erreparatu behar zaiola jasotzen bada ere biktimen klixera jotzea ekidinez, Murillok tratu ona eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten kanpainen aldekoa da gehiago, eta aipatu duenez, 2004an erkidegoaren esparruan tratu txarrak eragiten dituztenei artatzeko sistema bat garatzea planteatu zen. Alvarezek kontzientziak aldatu eta inpunitatea geldiarazteko premia azpimarratu du, kanpainak tratu txarrak eragiten dituztenei begira ipiniz, nahiz eta gaur egun argi dagoen politika publikoek biktimei erreparatzen dietela gehiago eta gizonarekin egiteko lanketa alde batera uzte dela. Halaber, tratu oneko harremanak sustatzearen eta mezu positiboak hedatzearen garrantzia nabarmendu du, emakume ahaldunduak erakutsiz Emakundek bere kanpainetan egiten duen moduan.

Azkenik, Ortubayk gizartearen ukoa eraso sexistetara bidera dadila proposatzen du, eta ez erasotzailearengana eta, aldi berean, banandutako gizonen elkarteetan gainean bere kezka agertu du, haien helburua emakume ohien aurkako mendekua izanik. Estatu Ituna gizonekin aliantza sustatzeaz ahaztu egiten dela uste badu ere, bere iritziz garrantzitsua da gizonekin erasotzaileei ipinitako zigorretik harago doan eta azpimarra heziketan ipiniko duen ikuspegi positibo batetik lan egitea, pertsonen zaintzatik eta beren bizitzaren autonomia sustatzetik abiatuz.

5. Zerbitzuak eta bertako profesionalak

Gizarte zerbitzuena arras feminizatuta dagoen sektorea da, eta bere funtzioa ikusezin geratu da Estatu Itunean. Emakumezko biktimak artatzeaz gain, gizarte zerbitzuek gainerako sistemek uzten dituzten hutsuneak betetzen dituzte, eta prozesu judizialean haien eginkizuna eta iritzia ez dira kontuan hartzen eta, hori hizlarien arabera, sistema judizialak duen nortasun patriarkalaren isla baino ez da. Gizarte langileek emakumeak laguntzen dituzte salaketatik eratoritzen diren premietan, nahiz eta, sarritan, ez dituzten kasuak tratatzeko behar dituzten tresnak. Gainera, emakumeak behar dutena ondoen hautematen duten profesionalak izaki, esku-hartzeari ekiteko alternatibak proposatzen dituztenak haiek izan beharko lirateke.

Oro har, hizlariak hautematen dute emakumezko biktimen ibilbidean sektore gakoa den honi laguntza instituzional eta legezko urria ematen zaiola, zenbaitetan Gizarte Zerbitzuetako langileak direlarik indarkeria hautematen dutenak eta beren izen-abizenekin salaketa ipintzen dutenak, epaiketara joateko ere egun libreak eskatu behar izaten dutelarik. Bide alternatiiboak egon badaude ere, emakumearen borondatearen aurka salaketa ipini gabe, Gizarte Zerbitzuek Estatuko parte modura jokatu behar dute, hartako parte baitira eta, emakume bat dependentzia horietara urreratzen baldin bada, neurriak hartu behar dituzte. Horri dagokionez, Alvarezek jakinarazi duenez EAEn Gizarte Zerbitzuek aholkularitza juridikoa eta etxebizitza kudeatzen dituzte, tartean salaketa izatearen premiarik gabe.

Gizarte Zerbitzuak areagotu eta espezializatzea lehen-tasunezko kontua dela aitortzen da, profesionalak ez daitezen gainezka egon etengabeko gainbegiraketak egiten. Horretarako, zerbitzu horiek aholkularitza juridikoko irudiak izan beharko lituzkete, emakumeak epaiketara joatean zeri egin behar dieten aurre jakin dezaten. Haatik, hizlariak ez dute gehiegizko konfiantzarik erakutsi Gizarte Zerbitzuen indartze hori epe laburrera lan-ildo izateko aukerari dagokionez.

“Hizlariak hautematen dute emakumezko biktimen ibilbidean sektore gakoa den honi laguntza instituzional eta legezko urria ematen zaiola.”

Indarkeria matxistari buruzko eztabaida guztietan behin eta berriz errepikatzen den gai bat biktimen artapen, prebentzio eta erreparazioan esku hartzen duten profesionalen ezinbesteko prestakuntzarena da.

Gizarte Zerbitzuei dagokienez, Itunak ez die erreparatzen bertako profesionalen prestakuntzari, berezkozat jotz profesional horiek dagoeneko badituztela ezagutza zehatzak indarkeria matxistaren alorrean eta beren helburuetatik at utziz txertatzeko prestakuntza programetan kolektibo horren parte-hartzea aintzatestearena.

Prestakuntza zehatza derrigorrezkoa da soilik Emakumearen gaineko Indarkeria Epaitegietako titular direnentzat. Lehen instantzia/instrukzio eskumenak dituen ikasle bat epaitegi batera (esate baterako, epaitegi txikiak edo landa eremuetakoak) joaten duenean, espezializazio hori eskola judizialean baitaratu duela ulertzen da, baina genero indarkeria kasuak ematen dituen epaitegi eksklusibo batean lan egin nahi duenean prestakuntza espezializatua egin behar du.

Haatik, epaileek indarkerian duten prestakuntza hain da urria ezen Emakumeei buruzko Indarkeria Epaitegiak arlo horretan adituek diren pertsonen osatuta egotea ere ez baita lortu; horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa ez ulertzea emakumeek salaketa kendu edo erasotzailea barkatzea eta, horren ondorioz, polizia neurria desgokiak ezartzea.

Bestalde, Estatu Itunean ez da jasotzen beste epaitegi batzuetako magistratuen prestakuntza, ezta beste indarkeria matxista mota batzuen gainekoa ere, eta bikote edo bikote ohiko indarkerian espezializatutako epaitegietako titularretara begira dago egina. Haatik, emakumeen aurkako indarkeria sexu jazarpenetara, erasoetara, bortxaketetara, behartutako matrimonioetara edota sare bidezko indarkeriara areagotzean, delitu horiek edozein epaitegik artatzeko kasuen artea sartzen dira. Beraz, prestakuntza epailetzako profesional orori zuzendua egon beharko litzateke.

Halaber, indarkeriari dagokionez ezinbestekoa da osasun zerbitzuetako langileen prestakuntza bultzatzea, izan ere, indarkeria pairatzen duten emakumeen % 99 haien eskuetatik pasa ohi dira; horrek familiako medikuak pazienteari 3 minutu baino gehiago eskaini ahal izatea dakar.


Prestakuntzak genero ikuspegia eta ikuspuntu feminista bat izan behar ditu, emakumeen menderakuntza egitura ikusaraztea ahalbidetuko duena eta eragile guztiei zuzendua izan behar da. Alvarezen arabera, ikuspuntua beti feminista izango dela zehaztu behar da, izan ere, Itunean zehazten denez prestakuntza "genero ikuspegi batetik" egin behar da eta ez "modu feminista" batean, eta horrek nahasmena eragiten du langile profesionalen artean.

6. Itunaren aplikazioa EAEn

Gai hau Socorro Alvarezek garatua da, Emakunde erakundearen Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Arloko arduraduna baita.

Hasteko, aipatu du, Itunean 2018. urtetik aurrera mila milioi euroko finantzaziorako konpromiso bat ezartzen bada ere, horietatik 100 milioi tokiko erakundeetara eta 500 milioi Autonomia Erkidegoetara zuzenduta daudelarik, "diru hori ez da Euskadira iritsiko". Hori dela eta, ezinbestekoa da antolaketa eta kudeaketa egoki bat, izan ere, neurriak txertatzeko kostua barneratu behar da 2018ko aurrekontuetan.

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak Estatu Ituna aztertu eta hura autonomia mailan txertatzea zehazteko garatutako prozesuari buruzko xehetasunak eman ditu. 2017ko irailaren hasieran Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzera, horietako bakoitzaren eskumenen arabera, zuten inplikazioa igorri zitzaizen, eta urrian beste dokumentu bat igorri zen, 400 neurri inguru jasotzen zituena, Senatuak emandakoa barne. Sortutako nahasmenaren aurrean, Sailekiko harremana eten egin zen.




Abenduaren 27an Madrilan, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioan Berdintasunaren Arloko Konferentzia egin zen, Diputatuen Kongresuko Legez Besteko Proposamena betez, Estatu Itunak jasotzen dituen 214 neurriak onartu zituena. Itxura batean, inork ez zituen neurri horiek sinatu, izan ere, "nolabaiteko moduan lortutako adostasuna zen".

2018ko urtarilean Emakundek bilkura hartatik eratorritako lehenetasunak bidali dizkien Sailei, hots, 2018an abian jartzeko hautatutako lehenetasunezko 26 neurriak. Estatu Itunean onartutako neurrien artean, Alvarezek adierazten duenez, ia denak gogoeta taldeen diagnosi partekatu batean gauzatzen dira, baina oso interesgarria iruditzen zaio legeria hobetzearena: hala *1/2004 Lege Organikoa* areagotzearena nola biktima guztien osoko arreta eta gaizkileen inunitaterik eza ziurtatzeko araudi juridiko, penal eta prozesukoan egindako aldaketa. Emakunderen ordezkariak amaitzeko aipatu du, hedabideek aditzera eman duten arren Ituna lehenetasunezkoa dela, egiaz *1/2004 Lege Organikoa* berri eta hobetzeko konpromiso bat da.

EAEn, Instituzioen arteko Bigarren Akordioaren esparruan, gogor egin da lan adingabeen eskubideak bermatzeko, baina gai hori oraindik Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzarekin eragingarri bilakatzeko dago eta, horretarako, dagoeneko badago ekintza zehatzak, datak eta aurrekontu espezifikoak jasotzen dituen dokumentu bat.

2:

Indarkeria sexistaren
biktima diren emaku-
meekin esku-hartzea
erreparazioaren
ikuspegitik

A decorative graphic consisting of several overlapping horizontal bars of varying lengths and colors (dark blue, purple, and magenta) and a large, thick, curved line that sweeps across the bottom of the page.

Sarrera

Atal honetan indarkeria sexistaren biktima diren emakumeekin esku-hartzea erreparazioaren ikuspegi batetik zer-nola bideratu beharko litzatekeen aztertzeko eginkizuna duen laneko mahaiari aurkeztutako ideiak jasotzen dira.

Bost pertsona adituk garatutako edukiak jasotzen dira. Aditu horiek indarkeria matxisten biktimen erreparazioari buruzko kontsiderazioak aurkeztu zituzten, hala esparru soziosanitarioari dagokionez nola esparru psikosozialari dagokionez, tokiko mailan esperientzien azterketa bat aurkezteaz batera.

Laneko mahaiaren buruan berdintasun zuzendaria den Miren Elgarresta eta Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia den Belen Larrion izan ziren.

Aztergaia parte-hartzaile hauek jorratu zuten.

Parte-hartzaileak



Aditua da genero indarkerian eta giza eskubideetan eta, gaur egun, aholkulari lanak egiten ditu Nazioarteko Amnistiarako, Munduko Medikuetarako eta Europako Kontseilurako, beste erakunde batzuen artean. Bere hitzaldian *Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa emateko Neuriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan* (aurrerantzean, 1/2004 Lege Organikoa) biktimen erreparazioarako eskubidea nola jasotzen den,

horri dagokionez arauzko esparru bat ez garatu izanaren arazoak, biktimak indemnitzatzeko arloan dauden arazoak eta erreparazioarako eskubidea tokiko eta foru politiketan txertatzeko proposamenak jorratu zituen.



Lorena Garrido

Jurista feminista eta Genero eta Berdintasuna eta Indarkeria Matxistak Graduondoetako irakaslea Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Bere agerraldian legeriaren arabera sexu indarkeriaren biktimek izan behar duten portaera heroikoak dakartzan ondorio pertsonal eta sozialak, nahiz sexu indarkeria ikuspegi feminista batetik jorratzean ageri diren legezko hutsuneak eta instituzio aldetiko erronkak aurkeztu zituen.



Jesús Manuel
Pérez

Psikologoa eta doktore Gizarte Lanean, laneko esperientzia duena Palestinako Lurralde Okupatueta buruko osasuna ardatzeari dagokionez eta giza laguntzako testuingurueta genero indarkeriaren aurrean biziraun dutenen arretarako programetan. Sexu indarkeriaren biktimek diren emakumeekin erreparazioa bideratutako esku-hartze bat abiatzeko bere ustez ezinbestekoak diren elementuak azaldu zituen, genero indarkeria taldetik abiatuz jorratzeko modua hobetzeko esperientzia eta proposamenekin batera.



Gema
Fernández

Abokatua Women's Link erakundean eta, gaur egun, *London School of Economics* eskolako Emakume, Bake eta Segurtasun Zentroko (Erresuma Batua) fellow bisitaria. *Women's Link* erakundeak justizia erreparazioarako elementu modura erabiltzeari dagokionez duen esperientzia, erakundean izan dituzten lorpenak eta erreparazioa eta justizia erdiesteko gaintitu behar izan dituzten zailtasunak zehaztu zituen, Angela Gonzalezen kasuan Espainiako Estatua kondenatu zuen Auzitegi Gorenaren ebazpenaren inplikazioetan sakonduz.



Eukene
de Miguel

EUDEL erakundean Berdintasun arduraduna. Euskal udalerrien elkarte horrek erreparazioaren ikuspegia sexu indarkeriaren biktimei zuzendutako politika publikoetan txertatzeko azken bi urtetan bultzatzen dituen ekimenak azaldu zituen.

Saioaren laburpena

Saioan zehar sexu indarkeriaren biktima diren emakumeekin esku-hartzeko modua erreparazioaren ikuspegi batetik zer-nola joratu beharko litzatekeen azaltzeko plan-teamenduak egun dauden esku-hartze ereduarekin erkatu ziren, haien mugak nahiz horien metodologiek erdietsi asmo zituzten helburuekin erakusten zituzten kontraesanak adieraziz, parte hartzen zuten pertsonak beren proposamenak hobeto azaltzeko modu baten bila.

Kontzeptuzko konplexutasunak

Gaur egun erabiltzen den lengoaian garrantzitsua da **indarkeriaren moduak eta esparruak** bereiztea, zatia guztiarekin nahas ez dadin, "genero indarkeriaren" kasuan gertatzen den moduan, gaur egun sozialki aitortua den indarkeria modu bakar bilakatu dena. Azkenaldian sexu indarkeria osotasun bat bailitzan aintzatesteko joera ikusten da, kontzeptualki premiazkoa da esparru guztietan gertatzen diren indarkeria matxistako modu guztiak aitortu eta aztertzea.

Konplexutasun hori areagotu egiten da kontzeptu batzuen itzulpenaren ondorioz, esate baterako¹ Istanbulko Hitzarmenarekin² atxikitzeko bere dokumentuan, Espainiako Estatuak "emakumeen autonomia" kontzeptua "ahalduntzea" kontzeptuarekin ordeztu zuen, eta begi kolpe hutsean alderik ikusten ez baldin bada ere, bi kontzeptuak bereizten dituzten ñabardura garrantzitsuak daude.

Biktimen aniztasuna

Arreta zerbitzuak, oro har, biktima prototipo jakin bat artatzeko daude diseinatuta, zerbitzu horietara jotzen duten emakumeek **ezaugarri bereziak** dituztela eta haietara egoera emozional, ekonomiko edota material ezberdinetan eta beren laguntza sareetan kaltetuta bertara daitezkeela kontuan izan gabe. Sarritan gertatzen da, era berean, emakumeek topatzen duten arreta sistemak zerbitzu baten onuradun gisa gehiago ikustea dagokien **eskubide bateko titular** gisa baino.

Funtsean bi esku-hartze sistema adierazi dira: judiziala eta psikosoziala, eta bietan partzialtasuna eta koordinaziorik eza hautematen da. Halaber, profesionalek ere

¹ Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren berrespenerako tresna, emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzkoa, Istanbulen 2011ko maiatzaren 11n egina. (EAO, 2014ko ekainak 6) 1.6. eta 12. artikulua.

² Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzkoa. Istanbul 2011.

badituzte estereotipo, aurreiritzi eta mugak ere, emakumeekin esku-hartzeko garaian modu nabarian eragiten dutenak, eta sarritan horren erruz gertatzen da emakumeak **esku-hartzearen muinean** kokatu behar direla ahantzi egiten dutela. Horrenbestez, osoko arretako sistema batek emakumeen premiak eta, batez ere, beren erabakiak, muineko erreferentzia modura izan beharko lukeela planteatzen da. Horrek emakumeak artatzen dituzten pertsona profesionalak paradigma aldatzea ekarriko luke.

Erreparazio eraldatzailea

Erreparazioak **deiera orokorra** izan behar du, hau da, erreparazio indibidualetik harago joan behar da, ez dadin kontua geratu neurri aringarrien aplikazioan. Halaber; deiera eraldatzaile bat izan behar du, erreparaziorako neurri bakoitzak indarkeria matxistaren ondorioak alda ditzan.

Garrantzitsua da *erreparazio eraldatzaile* eta *lehengoratzeko justizia* kontzeptuak bereiztea: indarkeria indibiduala aitortzea garrantzitsua bada ere, hura **egiturazko tes-tuinguru** batean kokatu behar da. Horrek, berez, erreparazioko ikuspegi bat dakar, izan ere, emakumeak errugabetu egiten dira eta tradizionalki indarkeria matxistari eman zaizkion azalpenekin hautsi egiten da.

Prozedura oro emakume bakoitzaren premia indibidualetara egokitu behar da eta, are zehazkiago esparru judizialean, izan ere, gauza jakina da emakumeek ez dituztela halako prozesuak abiatu nahi sistema judizialak ekartzen dizkien zailtasunen ondorioz. Horri gaineratu behar zaio indarkeria mota batzuk frogatzen zailak direla eta horrek ekar dezakeela kasu batzuetan salaketak faltsuak direla pentsatzea, erruduntasuna biktimarengan ipiniz.

Erreparazioa zeharkako prozesu modura

Erreparazioaren ikuspegiak **zeharkako** izaera izan behar du eta, horrenbestez, esku-hartzearen jardun guztietan barneratu behar da, erreparazio indibidualaren helburutik harago baitago. Halaber, erreparazioko arretan kontuan izan behar dira bai **emakume bakoitzari akonpainamendua egitea**, haren autonomia errespetatuz, bai aldaketen euskarri izango den taldeko esku-hartzea.

Egiaz erreparazioa eskaintzen duen esku-hartze batean gakoa den beste elementu bat indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten zerbitzu guztien arteko **koordinazioa** da, generoari dagokionez **prestakuntza** iraunkor, kalitatezko eta **indarkeria instituzionala** indargabetzeko gaitasuna duen batekin batera.

Hurrengo orrietan sakontasun gehiagoz garatzen dira ideia horiek. Horiek hobeto antolatuzko, edukiak hainbat ataletan egituratu dira. Lehen atal batean kontsiderazio

orokorrak aipatzen dira. Hurrengo hiru ataletan esparru soziosanitario, psikosozial eta juridikoan erreparazio esku-hartze bat zer-nolakoa izan beharko litzatekeen jorratzen da, eta azken atal batean Berdinsareak, EUDEL erakundeak bultzatutako organismoak, koordinatutako euskal udal sare baten esperientzia zehatza aurkezten da.

Jorratutako gaiak

“Artatzen dituztenek emakumeak eskubideen titular modura hauteman behar dituztela eta ez zerbitzu baten erabiltzaile gisa.”

1. Erreparazioa indarkeria matxistaren biktimei: zenbait kontsiderazio orokor

Barbara Tardonek garatutako atal honetan hizlari guztiak bat datoz adieraztean indarkeria matxistaren biktimen erreparazioak generoa eta giza eskubideak barneratzen dituen ikuspegi bat behar duela; halaber, aitortzen dutenez, normalean lan egiten den esparru instituzionalean ez da txertatu edo modu partzialean txertatu da.

Ikuspegi honetako alderdi paradigmaticoenetako bat da artatzen dituztenek emakumeak eskubideen titular modura hauteman behar dituztela eta ez zerbitzu baten erabiltzaile gisa; bigarren alderdi bati so, ezinbestekoa da artatzen dituzten zerbitzu guztiak biktimen premietara egokituta egotea, eta ez da gertatu behar biktimak egokitu behar izatea zerbitzu horien aurrejarritako diseinura.

Erreparazioaren ikuspegia gaineratzeak aldaketa oso garrantzitsua suposatzen du, izan ere, emakumeek aurre egin beharreko indarkeria modu ezberdinak haiengan dituzten ondorio guztiak ikusaraztea du xede, eskuragarri izan ditzaketen irteera ibilbideekin batera. Ikuspegi horretatik, ezinbestekoa izango litzateke aurretiaz dauden esku-hartze protokoloak berrikustea.

Erreparazioaren ikuspegia, bestalde, ez da soilik indar-

keria jorratzeko zikloan azken urratsa: sentsibilizazioa, prebentzioa, arreta, erreparazioa. Gainera, **beste urrats horietako bakoitzean barneratu beharko litzatekeen zeharkako prozesu bat** da, izan ere, ez da soilik biktimen erreparazio indibidualarekin lotzen den alderdi bat soilik, nahiz eta hura barneratzen duen, baizik eta egiazko eraldaketa soziala planteatzen du indarkeria matxistari dagokionez. Esku-hartzearen esparruan, arreta asistentziakoa eta karitatekoa gainditzen duen ikuspegi bat da.

Erreparazio ikuspegiak indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen aniztasuna eta haren arrazoien inguruko ulermen maila ezberdinak izan behar ditu kontuan, haiei erantzuna emateko modu ezberdinez gain. Halaber, ulertu behar da, aniztasun horretatik abiatuz, emakumeek laguntzaren eskaintzaile diren erakunde ezberdinak identifikatu ahalko dituztela eta, modu horretan, zerbitzu publikoetarako "sarbide ate" ahalik eta gehien irekiko dituztela, esate baterako, Oinarriko Gizarte Zerbitzuenak, zerbitzu espezializatuenak, osasun zerbitzuenak, poliziarenak, emakumeen elkarteak, biktimia/bizirauten dutenen elkarteak, Emakumeen Etxeenak, eta indarkeriatik irteteko emakumeen ibilbidea ahalbidetzen duten beste zenbaitenak. Sarbide puntu horiek guztiak legitimatuta egon behar dira, bitartekoak izan behar dituzte eta arreta egoki bat bermatzea ahalbidetzeko mekanismoen eraikuntzak izan behar dituzte euskarri.

Sarbide puntu horietan guztietan, eta zehazki, larrialdizko osasun zerbitzuen kasuan, garrantzitsua da emakumeari salaketa bat ipini ostean garatuko den prozesu judizialari eta har dezakeen erabaki bakoitzak suposa dezakeen guztiari buruzko informazio egokia ematea. Erreparazio esku-hartze prozesuan funtsezkoa da emakumeen akonpainamendua emakume horiek une bakoitzean, modu autonomoan, hartzen dituzten erabakiekiko errespetuzko esparru batetik gauzatzea.

Bestalde, garrantzitsua da gogoraraztea ez dela gauza bera emakume bati akonpainamendua egitea edo haren seme-alabei egitea; edo irisgarritasun mugatuko eta urruneko landa inguruetan esku hartzea edo baliabide

“Garrantzitsua da emakumeari salaketa bat ipini ostean garatuko den prozesu judizialari eta har dezakeen erabaki bakoitzak suposa dezakeen guztiari buruzko informazio egokia ematea.”

jakin batzuk lortzeko erraztasun handiagoa duten hiri-inguruetan esku hartzea. Era berean, tratu txarrak pairatu dituen emakumearen gaitasun fisiko eta psikikoak era kontuan izan behar dira, izan ere, akonpainamendua ezberdina izan behar da (intentsitatean, moduan edo jarraipenean) kasu bakoitzean.

Egiaz erreparazioa ezaugarri duen esku-hartze batean funtsezko elementu bat da indarkeriaren biktima diren emakumek artatzen dituzten zerbitzu guztien (polizia, osasun zerbitzuak, juridikoak, psikosozialak, etab.) koordinazioa, ez soilik bigarren mailako biktimizazioak ekiditeko, baizik eta baita egoera bakoitzerako egokiagoak izan daitezkeen esku-hartze estrategiak adostu ahal izateko.

Koordinazio hori bermatzeko ezinbestekoa da genero aldetiko prestakuntza iraunkorra eta kalitatezkoa izatea indarkeria matxistaren biktimekin lan egiten duten profesional guztientzat. Zuzeneko arreta egiten dutenen artean, era berean, egoki da gogoeta egitea haien jarrerara eta aurreiritziek ematen duten arretaren kalitatean zer-nola eragiten duten, eta baita biktimen eta, oro har, indarkeria matxistaren inguruan duten ikuskeran ere.

Biktimak prebenitu eta artatzeko moduaren erreparazio ikuspegi batek alor honetan esku-hartzen duten erakunde ezberdinetan egon daitekeen indarkeria instituzionala indargabetzeko gaitasuna izan behar du.

Erreparazio ikuspegi batean barneratu beharko liratekeen alderdi horiek guztiak ez dira kontuan hartzen ari herri administrazioen aldetik, izan Estatu mailan, erkidego mailan edo beste maila batzuetan. Horrenbestez, biktimei zuzendutako erreparazioa azkenik ikusezin bilakatu den eta alde batera uzten den mandatu bat izaten da, indarkeria matxistari so dauden politikak hautemateko modua errolik aldatzea eskatzen duelako.

Barbara Tardonek dauden eragozpen ugarien adibide bat azaldu du: indemnizazioa gauzatzeko dauden betekizun korapilatsuak dira horietako batzuk, are gehiago egoera administratibo irregularrean dauden biktimentzat,

nahiz eta horiek biktima edo bizirik irauten duenaren gisa aintzatetsi. Sarritan, gainera, biktima horren akituta sentitzen da bizi izan duen prozesu guztiarekin, ezen, indem nizazio hori eskatzeko indarrak ez baitu izaten.

Erreparaziorako eskubidea gerraondoko edo gatazka armatuko egoeretan erabili izan da gehienbat. Horrela, Kolonbian, Bake Akordioaren testuinguruan, *erreparazio eraldatzailea* eta *lehengoratze justizia* kontzeptuak berezi egin ziren, eta hori indarkeria matxistaren kasuan aplikatu daiteke. Lehengoratze justiziak, behin gerra amaituta, pertsonak gerrak eragindako eskubide urraketaren aurretik zegoen egoerara itzul daitezkeen ezinbestekoak diren baldintzak bermatzeko Estatuak duen betebeharrari egiten dio erreferentzia.

Haatik, gerra gatazkan gertatzen den moduan, indarkeria matxista gertatu aurretiko egoeran jadanik baziren diskriminazio eta ahalduntze urriko zantzuak, egoera hura emakumeentzat horren desiragarri ez izatea eragiten dutenak. Arrazoi hori dela medio, kontua ez da emakumeak egoera hartara itzultzea, baizik eta beren testuingurua eta beren harremanak eralda ditzatela, eta beren bizitza indarkeriarik gabe bizitzeko modu berriak eraiki ditzatela. Horregatik, erreparazio esku-hartzearen helburua "eraldatzea" dela planteatzen da, eta ez "lehengoratzea".

Azkenik, Gema Fernandezek indarkeriarekin zerikusia duten gaiak jorratzen zirenean hitzak ongi zehaztearen garrantzia eta nazioarteko hitzarmenen tokiko itzulpenen ondorioz sor daitekeen nahasketarekin adi egoteko premia azpimarratu zituen. Azken horren adibide modura aipatu zen Istanbuleko Hitzarmenera Atxikitze Dokumentuaren itzulpenean Espainiako Estatuak "emakumeen autonomia" kontzeptua erabili zuela "ahalduntze" kontzeptuaren ordean. Horrek -hizlarietako baten iritziz- emakumeen autonomia lantzeko konpromiso instituzionala, hau da, bizitzen ari den indarkeriak sorrarazitako menderakuntza sistemari aurre egiteko bere gaitasunak indartzeko, ahultzea dakar.

2. Esparru soziosanitarioa

Ikuspegi feminista batetik, indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko zerbitzuak gizartea eraldatzeko (zerbitzuen sare espezializatu baten bidez edo berdintasunezko edota ahalduentzako espazioen edota Emakumeen Etxeen bidez) lagungarri izango den egitura sozial eta instituzional bateko parte izan behar dira.

Biktimak espazio horietara urreratzeko bideak zabalak eta anitzak izan behar dira, emakumeak eta horiek pairatzen duten indarkeria modu eta esparruak bezainbeste, beti kontuan izanik emakume batek ezin duenean eskuratu berak behar edo hautatzen duen baliabidea, laguntza eta erreparazioa jasotzeko bere eskubidea urratzen dela.

Bestalde, arreta zerbitzuetara iristen diren emakumeen profilak ezberdinak dira: indarkeria mota ezberdinak pairatzen dituzten haiengandik hasita biktima modura identifikatu nahi ez duten haienganaino; halakotzat identifikatu eta arreta zerbitzuren batekin harremanetan jartzeari esker laguntza eskatzea erabakitzen duten haiengandik hasita biktima modura identifikatzeak oinazea ekartzen dielako edo halakotzat identifikatu gabe bere bizitzarekin jarraitzea erabakitzen dutelako gizarte zerbitzuetara iristeari uko egiten duten haienganaino.

Edozein kasutan, eta instituzioekin harremanik izan nahi ez duten emakumeek ere beren premia eta helburuen arabera artatuak eta erreparazioaren hartzailak izateko eskubidea dutenez, herri administrazioen betebeharra da GKE erakundeek eta elkarte feministek diru-laguntza publikoak izan ditzatela ahalbidetzea, emakumeak erakunde bakoitzaren ikuspegi espezifikotik artatu ahal izateko.

Arreta zentroek, beren modalitate guztietan, indarkeria matxistarekin zerikusia duten zerbitzuetarako ezarritako nazioarteko estandarrak bete behar dituzte, Europako Kontseiluak sexu indarkeriaren aurrean bizirik atera diren biktimen arretarako zerbitzuetarako planteatutakoekin

“Ikuspegi feminista batetik, indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko zerbitzuak gizartea eraldatzeko lagungarri izango den egitura sozial eta instituzional bateko parte izan behar dira.”

hasi, Emakumeen aurkako Indarkeriarako Nazio Batuen Kontalari Bereziak, CEDAW izenekoaren Batzordeak, Giza Eskubideen Amerika arteko Gorteak eta, berriki, Istanbul-eko Hitzarmenak adierazitakoetara arte.

Gutxieneko estandarrak dira, herri administrazioak derrigortzen dituztenak hala maila nazionalean nola tokiko mailan, eta baldintza jakin batzuk finkatzen dituztenak indarkeriaren biktimak artatzen dituzten haien etengabeko prestakuntzari eta berrikuspenari begira, baina baita laneko baldintzei, arretara eskainitako ordui eta kasuak orientatu, deribatu edo jorratzeko moduari buruzko gogoeta kolektiboari begira ere, eta halako arazoak artatzen direnean *nekatuta dauden pertsonen* sindromea saihestu eta artatzeko mekanismoak izateko premiari begira ere bai.

Edozein kasutan, emakumeak artatzeko zerbitzu edo balibideek irisgarritasun, ez diskriminazio eta eskuragarritasun estandarrak bete behar dituzte, horiek bezain derrigorrezkoak diren beste batzuekin batera: emakumeak artatzen dituzten taldeak genero arloan prestakuntza izatea; lehen mailako arretatik abiatuz lan egitea, emakume batek pairatzen dituen diskriminazio ezberdinak kon-tuan izango dituen arlo arteko ikuspegi batekin; zentro eta zerbitzuak biktimen beharizanetara egokituta izatea, eskubidea duten titular gisa; emakumeen autonomia eta ahalduzaren alde lan egitea, guztientzat irisgarriak diren taldekako tailerren bidez, horietan segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.

Bestalde, norberak bizi izan duen indarkeria aitortzeari dagokionez dauden maila ezberdinak eta biktima modura identifikatzeko dauden zailtasunak ikusita, saihestu egin behar da emakumeek arreta zerbitzuetara duten sarbidea bide bakarretik izatea edota profesional batek emakumeak erreparazio tratamendu, esku-hartze edo prozesu baterako eskubidea ote duen erabakitzearen baitakoa izatea.

Agerikoa izaki torturak pairatu dituen pertsona bati emateko arreta zerbitzu espezializatuek eman behar dutela,

“Halako arazoak artatzen direnean nekatuta dauden pertsonen sindromea saihestu eta artatzeko mekanismoak izateko premiari begira ere bai.”

galdera da zergatik ez den betekizun hori horren agerikoa emakumeen aurkako indarkeria aipagai dugunean. Erantzuna indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako arreta zerbitzuak zipriztintzen dituen kultura patriarkalean aurkitu behar dugu: talde profesionalek ulertzen ez duten bitartean emakumeek erreparazioarako eskubidea dutela, eta hori ematea Administrazioaren ardura dela, erreparazioari dagokionez egin daitekeen lana eskasa da.

Arreta taldeek ikuspegi feminista bat izan behar dute, emakumeen eskubideak eta autonomia barneratzen dituen, aitortuz emakumeak direla beren ahalduntze prozesua burutu behar dutenak. Ikuspegi horiek hiru eremutan eragiten duen laneko filosofia bat osatzen dute: **jarrerak, trebetasunak eta ezagutza**, nahiz eta azken hori gehiegi dimentsionatzeko akatsa egin den, izan ere, generoaren gainean edo indarkeriaren gainean ezagutza izatea ez da aski hari aurre egin behar dioten emakumeekin lan egiteko.

Haatik, oraindik beharrezkoa da prestatutako taldeek praktikara eramateko kontzeptuzko ikuspegi argiak izatea, esate baterako, familiak behartutako matrimonio batera entregatzeko arriskuan diren adin txikiko biktimak artatzeko; kasu horietan, taldeak eta esku-hartzea bera babeserako gizarte sarerik ez duten neskato horien errealitatera egokitu behar dira, beren familia baino ez dutelarik... ezkontzera behartzen ari zaizkiona.

Arreta eredu hau aplikatzeko garaian, testuinguruko ez-ugarri batzuek eskatzen diren estandarrak betetzea eragozten dute. Ildo horretatik, Eukene de Miguelek emakumeek herri txikietan dituzten zailtasunak adierazi ditu, izan ere, txikiak izaki, ez dute "sarrerako ate" dibertsifikaturik edota zentro espezializaturik; edo landa inguruetan bizi direnek, non indarkeriaren biktimak diren emakumeak are gehiago estigmatizatzen diren. Horregatik, oso garrantzitsua da prestakuntza duten profesionalak izatea, indarkeriaren adierazpide mota ezberdinak hautemateko gai direnak eta zirkuituaren gaineko ezagutza gutxieneko bat dutenak, zerbitzu espezializatua-goetara nola deribatu jakiteko.

Lorena Garridoren arabera, bestalde, kontuan izan behar da erreparazio ikuspegi batekin lan egiteak berekin dakarrela gizarte zerbitzuek txostenak egitea, ondoren epaitegietan baliozkotuko lirakekeenak; haatik, jarduera horiek barneratu ere ez dira egiten gizarte zerbitzuetako langileen funtzio, laneko plan edo gaitasunetan. Gainera, langile horiek aipatutakoa garatzeari begira, udalerrietako arduradun juridikoen aldetik ipintzen diren eragozpenak ez dira gutxi.

Hizlari horren arabera, era berean, genero indarkeriaren biktimak artatzeko protokolo asko osasun zerbitzuetatik aktibatzen dira eta Bartzelonako Clinic Ospitaleak egingandako esperientzia ekarri du. Ospitale horrek sexu indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzu espezializatu bat du, eta hartako langileak prestatuta daude generoari eta giza eskubideei dagokienez, eta badaki salaketa baten ondotik sistema judizialak nola funtzionatzen duen.

Sexu indarkeriako kasu larri bat dagoenean, poliziak hasiera batean biktima Clinic ospitalera eratoritzen du (eta ez guardiako epaitegira), biktimaren eskutan geratuko diren frogak egin diezazkioten, uneren batean eraso salatu nahiko balu ere. Ospitalean indarkeria kasuetan GIB eta sexu bidezko transmisioiko gaixotasunen prebentziarako arreta egiten da. Beraz, nahiz eta polizia izan Clinic ospitalera eraman duena, osasun esparrua da sexu indarkerian esku-hartzeko protokolo horretaz arduratzen dena. Biktimak salaketarekin aurrera jarraitzen baldin badu, medikuaren frogak helarazten zaizkio epaitegiari, baina salaketarik ipini nahi ez baldin badu frogak gorde-ta geratzen dira, aurrerago prozesua berrabiatu nahiko balu hor izateko³.

Beste indarkeria mota batzuetan, esate baterako, sexualki ustiatzeko salerosketaren kasuan, kontua ez dago horren argi esku hartzeko protokoloak aktibatzeari dagokionez: ez dago argi erakunde espezializatuek abian ipini behar ote duten protokoloa, poliziak abiarazi behar

³ Aipagarria da Kataluniako legeriak profesionalen aldetik ez salatzea ahalbidetzen duela; genero indarkeriako kasuan, profesional horiek araudi ezberdinen artean "mugi" daitezke eta ez salatzearen alde egin dezakete emakumeari autonomia emanaz, edo salatzea erabaki dezakete paternalismoaren arriskuarekin.

duen edo pertsona kaltetua bera izan behar ote den salaketa ipintzen duena. Behartutako matrimonioen kasuan, heziketaren esparruko langileek errazago hauteman dezaketen indarkeria mota, esku hartzeko protokoloak ere ez daude argi eta, oro har, azkenean ez da deus egiten, Lorena Garridok azaltzen duen eran.

Mutilazio genitalen kasuan, osasun sistema publikoak oraindik ez daude prest baginako berreraikuntzak egiteko, oso deigarria izanik Katalunian fundazio pribatu baten egiten dituela, zehazki Dexeus Fundazioak⁴, zergak desgrabatu egiten dituen “zeregin altruistatzat” hartzen delako. Osasun arreta espezializatu hori erreparaziorako neurri egokia izanik, hartarako sarbidea mugatua da espezialitate horretako profesional gutxi dituen osasun sistema publiko baten gabezien ondorioz eta, horrenbestez, itxarote zerrendak oso luzeak dira.

“Otzantasun kimikoaren ondoriozko indarkeria kasuan arreta zer-nolakoa den oso gutxi ezagutzen da.”

Garridok aipatzen duenez, otzantasun kimikoaren ondoriozko indarkeria kasuan arreta zer-nolakoa den oso gutxi ezagutzen da. Egunkarietako elkarrizketen eta Clinic Ospitaleko arduradunei egindako elkarrizketen arabera, gauza jakina da otzantasunean sexu indarkeriaren biktimia izan diren emakumeei mila proba baino gehiago egin zaizkiela, eta hauteman da substantzia ez dela organismora sartzen edariaren bidez, uste ohi den moduan, baizik eta usaimenaren eta ukimenaren ondorioz, hau da, pertsona gehienek ezagutzen ez duten moduan. Egindako azterketetan biktimaren odolean inolako sustantzia toxikorik hautematen ez denez, intoxikazioa zer eragiten duen eta nola jakitea argigarria izango litzateke, izan ere, gaur egun, ezin dira indarkeria mota hori gertatzeko moduari buruzko proba judizialik eman.

Bestalde, hurrengo eguneko pilula eskatuz edo Sexu bidezko Transmisioko Gaixotasunei buruzko informazioa bilatuz gazteen arretarako zentro batera jotzen duten emakumeen kasuan, indarkeriarekin lotutako aipamenak entzuten hasi ziren; 2018an lehendabiziko estatistika argitaratu zenean, zerbitzuaren erabiliztaile diren hiru

⁴ Fundazioak egiten duenari buruzko informazioa aurki daiteke hemen: <https://www.elperiodico.com/es/sociedad/20180205/dexeus-ha-reconstruido-el-clitoris-a-89-victimas-de-la-ablacion-6602509>

neskato nerabetik batek indarkeria pairatzen duela jakin zen, eta datu hori bat dator biktimizazioaren inkestarekin Europa mailan, Estatu mailan eta erkidegoko mailan. Hala, indarkeria hori ikusaraztea bera, dagoeneko, berez kontu aringarria da pairatzen ari denarentzat, izan ere, berari bakarrik ez beste emakume batzuei ere gertatzen zaiela ikustea ahalbidetzen du.

Laburbilduz, Lorena Garridok adierazten duenez, esparru soziosanitarioak eman daitezkeen indarkeria mota guztiak behar bezala ezagutu eta artatzeko prest izan behar du, izan ere, orain arte sexu indarkeriako adierazpen guztiak ez dira artatzen. Esparru sozialean genero indarkeria izenekoa artatzen ikasi da jadanik, hau da, bikotearen edo bikote ohiaren aldetik pairatutako eraso fisiko eta psikologikoak (sexu erasoak ez horrenbeste); osasunaren esparruan beste sexu indarkeria mota batzuk hautemateko aukera gehiago dago, baina horri dago-kionez ezer gutxi egiten da eta are gutxiago prebentzio arloan, horrek hezkuntza aldetiko esku-hartzea ere eskatuko lukeelarik.

4. Esparru psiko-soziala

Gaia, funtsean, Jesus Perez Viejok garatu du. Bere us-tez, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera, ikerketa batzuetan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen erreparazioarako elementu eraginkor zen-bait jasotzen ziren jadanik.

Esku-hartze psiko-sozialaren alorrean, esku-hartzeko eredu ezberdinak daude, esate baterako, Terapia Kognitibo Konduktuala eta Terapia Humanistikoak, esku-hartze prozesua eta hura gauzatzeko teknikak izateko moduaren inguruko ikuspegi ezberdinekin; haatik, ikerketa ezberdinetan adie-razten denez, teknikak tratamenduaren eraginkortasuna-ren % 15a baino ez dira, eta gainerako eraginkortasuna langile profesionalen eta emakume eta haien seme-ala-ben artean finkatzen den harreman motari zor zaio.

Hori dela eta, edozein esku-hartze eredu esku-hartzearen gaineko ikuspegi feminista bat izan beharko luke

“Indarkeria hori ikusaraztea bera, dagoeneko, berez kontu aringarria da pairatzen ari denarentzat.”

zeharka, hori baita indarkeriaren arazoaren muturreko analisi bat eskaintzen duen bakarra. Hala egin ezean, praktikan ipintzen dena eredu asistentziazko eta karitatekoa da, eskubideen ikuspegi bati erantzuten ez dionez, biktimei erreparazioa eskainiko ez diena eta instituzioekiko mendekotasuna eragingo duena.

Esku-hartze feministako eredu batek eremu psiko-sozialan aldi bereko bi ardatzen inguruan egin behar du lan: alde batetik, sintometan erreparatuz, hau da, indarkeriaren ondorio psikologiko eta sozialetan, trauma osteko nahasmenduekin, depresioekin, antsietateekin edota mota ezberdineko beldurrekin zerikusia dutenak; eta, beste alde batetik, generoen arteko boterezko harremanen buruzko kontzientzia sorraraziz, mendekotasun eta otzantasunekoak, emakume horiek indarkeria egoeretan murgiltzea eragin dutenak.

Esku-hartze psiko-sozialak topatzen duen arazo nagusia da epe labur eta ertaineko lan larrialdiaren eta arazoan epe luzeko desagerpenaren artean mugitu behar dela. Bestalde, gaiari buruzko literatura zientifikoak islatzen duenez, iguripen positiboak terapietan elementu gakoa dira aldaketa-prozesuari begira. Beraz, ezinbestekoa da emakumeek eurek sinestea aldatu egin daitezkeela eta profesionalak sinestea egiaz emakumeak indarkeriatik irten daitezkeela. Gainera, funtziona dezan esku-hartzeak kolaboratiboak izan behar dira, eta emakumeek terapien modu aktiboan parte hartzen ez badute, ebidentzia bat da arrakastarako aukerak murriztu egiten direla.

Esku-hartze psiko-sozialeko prozesua ez da erraza eta hura garatzen den bitartean hiru zailtasun garrantzitsu topatu ohi dira: alde batetik, indarkeria matxistako kasuekin lan egitean sortzen diren emozioak kudeatzeko profesionalak topatzen dituenak daude; beste alde batetik, emakumeen egoera eta une anitzak daude, izan ere, horrek eragiten du esku-hartze prozesua ezinbestez indibiduala izatea eta protokoloak emakume bakoitzari behar duen arreta emateko bezain malguak izatea; eta, azkenik, zerbitzu psiko-sozialen arteko egiazko koordinaziorik eza.

Halaber, planteatzen da taldekako esku-hartzeak eraginkorrak izateaz gain, erabat premiazkoak direla. Funtsezko tresna dira erreparazio aldaketa baterako, izan ere, indarkeriaren ikuskera gertakizun sozial modura zehazten dute, eta ez gertakizun indibidual huts modura. Horrenbestez, ezinbestekoa da arreta eredu horiek bultzatzea, esku-hartze komunitarioa beharrezkoa den moduan emakumeen beren gizarte-sareak berreraiki eta beren aldaketak iraunkorrak izan daitezela lor dezaten. Hala, taldeak erreparazio eta berreskurapen prozesuko elementu gako modura finkatzen dira.

Maila sinbolikoan, erreparazioa oso garrantzitsua da hala emakumeentzat nola gizarteari begira, izan ere, indarkeriatik irtetea posible dela eta emakumeek oinazea jasaten jarraitzea ekiditeko lanean dagoen jendea badagoela ikustea ahalbidetzen du. Zirrara sorrarazten digu torturen biktima bati entzutea, baina ez horrenbeste indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei entzutea; irudi luke torturen biktimek nolabaiteko "kaxeta" dutela, indarkeria matxistaren biktimek ez dutena, izan ere, hura gizonek beren jarduera politiko edo publikoaren ondorioz gehiago jaso duten indarkeria bat da, eta indarkeria matxista emakumeek pairatua da eta eremu pribatuan ematen da.

Bi indarkeria motak hautemateko abian jarritako mekanismoak oso ezberdinak izan dira. Gainera, oraindik ez da lortu Nazio Batuetako auzitegi edo batzorderen batek emakumeen aurkako indarkeria juridikoki tortura modura kalifikatzea (eta ez tratu ez gizatiar modura), izan mutilazio genitala, sexu indarkeria, emakumeen salerosketa edo bikotearen aldetiko indarkeria.

5. Esparru juridikoa

Esparru honetan, proposamen eta esperientziak Gema Fernandezek planteatu zituen funtsean. Hala, hasteko adierazi zuenez, esku-hartze oro emakume bakoitzaren premia indibidualetara egokitu behar da eta, are gehiago, arlo judizialean, izan ere, emakumeek sarritan ez dute halako prozesuak irekitzerik nahi sistema judizialean oztopo asko aurkitzen dituztelako. Eta horri gaineratu behar zaio ba-

direla frogatzen zailak diren indarkeria mota batzuk, eta horrek batzuetan salaketak faltsuak direlako ideia ekar dezake, errua biktimari egotziz.

Horretarako, garrantzitsutzat jotzen du *lehengoratzeko justizia* eta *erreparazio eraldatzaile* kontzeptuak bereiztea. Lehendabizikoak biktima indarkeria matxista eman aurreko puntura itzultzea dakar eta, bigarrenak indarkeria sorrarazten duten egoerak aldatzea suposatzen du, berriro gerta ez dadin.

Esparru juridikoan erreparazioak urratuak izan diren eskubideak lehengoratzearekin zerikusia duten zenbait printzipio dakartza berekin, esate baterako, pairatutako kaltearekiko proportzionala den indemnitazioa, errehabilitazioa (beren berreskurapen-prozesuan emakumea artatu eta akonpainamendua egiteko baliabide espezifikokoak barneratzen dituen), gertaerak aitortuak izatearen asebetetzea eta, noski, ez errepikatzearen bermeak, eskubideen urraketa hori berriro eman ez dadin.

“Esparru juridikoan erreparazioak urratuak izan diren eskubideak lehengoratzearekin zerikusia duten zenbait printzipio dakartza berekin.”

Ez 1/2004 Lege Organikoa⁵, ez Berdintasunerako 3/2007 Legeak⁶, ezta beranduago garatu diren araudi ezberdinek, ez dute jorratzen biktimen kaltearen erreparazioa. Arrazoiak, agian, erreparazioaren betebeharra gaineratzeak herri administrazioei erantzukizun zenbait gaineratzea dakarrela izan liteke, gaur egun, Espainiako Estatua ez dagoelarik prest halakorik beregain hartzeko.

Esparru horretan lan feminista premiazkoagoa da egoeraren larritasunagatik horri dagokion esku-hartzea pentsatze-ko aukerengatik baino. Dena den, azkenaldian ikusten da nolabait aitortu egiten dela erreparazioa prebentzioarekin hasi, arretarekin eta zigorrarekin jarraitu eta erreparazioarekin amaitzen den prozesu lineal bateko azken katebegia dela.

Esparru kontzeptuzko eta juridiko feministak indarkeria

⁵ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Babesa emateko Neurriei buruzkoa.

⁶ 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoa.

moduak eta haren esparruak bereizi egiten ditu. Bereizketa hori oso oinarritzkoa izan arren, sarritan alde batera uzten da. Horrenbestez, bikote barruan indarkeria aipatzen denean harreman afektiboan barnean eragindako indarkeriaz hitz egiten da, aldi berean, forma ezberdinak izan ditzakeena: psikologikoak, fisikoak, ekonomikoak edota sexualak, adibidez. Estatu Ituna nahasmen hau ebatzen saiatzen da, nahiz eta ez dagoen argi indarkeriaren modu eta esparru guztiak ikuspegi bakar batetik jorratzen duen legeria bat dagoenik. Aitzitik, esparru bakoitza modu bereizian jorratuko duten legeriak egongo dira. Esperientziak erakusten du indarkeria esparru eta forma bakoitzari dagozkion premiak artatuz jorratu beharko litzatekeela, protokolo espezifikokoak sortuz.

*Diagnosis de la Red de Atención y Recuperación Integral en la Violencia (Arreta Sarearen Diagnostika eta Indarkeriaren Osoko Berreskurapena)*⁷izeneko ikerketa batean erreparazioaren aitormenerako urrats bat aurrera egiten da, arlo horretan dagoen defizita aitortuz eta eredu legegile batean lehendabiziko aldiz *indemnizazio* hitza erabiltzen delako.

Sistema judizialak paradoxa handi bat du agerian: hartara jotzeko erabakiak eskubide urraketa bat dagoela esanahi du, genero indarkeriaren kasuan izaera historikoa izan duena. Gainera, sarritan biktimek salaketak kendu egiten dituzte prozesu judizialak eskaintzen diena ez delako nahi dutena, izan ere, salaketa ipintzen dutenean ez dute derrigorrez bilatzen erasotzaileari zigorra edo kondena ipintzea, eta eskubide urraketa baten biktima gisa aitortuak izatea da bilatzen dutena. Beraz, sistema judizialaren aldetik indarkeria indibiduala aitortzea biktima artatzeko modu gisa uler daiteke, baina baita erreparazio ekintza modura era.

Indarkeria matxistaren biktima den emakumearen asebetetzeari buruz Erresuma Batuan egindako ikerketa baten arabera, erreparazio egoki baterako gakoa siste-

“Esparru kontzeptuzko eta juridiko feministak indarkeria moduak eta haren esparruak bereizi egiten ditu. Bereizketa hori oso oinarritzkoa izan arren, sarritan alde batera uzten da..”

⁷ *Diagnosis de la Red de Atención y Recuperación Integral para las mujeres en situación de violencia machista (Arreta Sarearen Diagnostika eta Osoko Berreskurapena indarkeria matxista egoeran diren emakumeentzat)*. 2016. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Antfigona Ikerketa Taldea.

ma judizialaren eta gizarte zerbitzuen, osasun zerbitzuen edota hezkuntza zerbitzuen arteko ahalik eta koordinazio handiena lortzea izango litzateke, arriskua balioetsi eta urruntze edo babes agindu bat emateko (edo ukatzeko), modu horretan, emakume horien errealitatearen eza-gutzari lehentasuna emanaz.

Giza eskubideen ikuspegi batetik, Estatuaren betebeharrak izan beharko litzateke prozesu judizialean zehar biktimei akonpainamendua egitea eta haren gogortasuna arintzeko eginahalak egitea. Ildo horretatik, jarraitzeko bidearen adibide bat Auzitegi Gorenak *Angela Gonzalezen kasuan*⁸ emandako epaia da, non emakumeen eskubideak giza eskubideak direla eta indarkeria matxistak eskubide horiek urratu egiten dituela adierazten duen ideia sendotzeaz gain, Estatuak eta herri administrazioek biktimen prebentzioari, babesari, delituaren pertsekuzioari eta biktimen erreparazioari dagokienez dituzten betebeharrak aktibatzen diren.

Justizia aipatzea bi une garrantzitsu dituen prozesu bat aipatzea da: lehendabiziko uneak justiziarako irisgarritasuna bera du ezaugarri eta bigarren una, behin eskubide urraketa bat gertatu dela ezagutzen delarik, hura nola erreparatu deskubritzeko ahalegina egiten denean ematen da. Lehendabiziko uneari dagokionez, argi dago sistema juridikorako irisgarritasuna unibertsal izan behar dela, estereotiporik gabe, diskriminaziorik gabe, prozesu judizialean sartzen den emakume bakoitzaren gizarte egoera kontuan izanik, izan ere, kasu bakoitza ezberdina da eta indibidualizatu egin behar da.

Justiziaren sistemarekin pentsatzen denean ez da soilik Botere Judiziala aintzatetsi behar; aitzitik, hartako maila guztiei eta hartan parte hartzen duten eragile guztiei egin behar zaie erreferentzia. Fiskaltza, Epaitza, talde psiko-sozialak, epaitze-lanean laguntzen duten profesionalak, peritutzak psikologikoak egiten dituztenak, abokatutzako ordezkariak, ofizioko txandak eta, jakina, polizia.

⁸ amecopress.net/spip.php?article17927

lido horretatik, botere judizialean sartzeak emakume askok entzunak izateko xede hutsarekin gertaerak puztu egiten dituztela pentsaraztea dakartzaten estigmatizazio eta esparru kognitibo guztiak baztertzea eskatzen du, ideia horiek esparru judizialeko eragileei prestakuntza eskainiz (bide batez, Estatu Ituneko neurri nagusietako bat dena) berariaz desagerraraz daitezkeela sinestearen akatsean erori gabe, askoz ere harago joz, prozesu judizialean esku hartzen duten kolektibo guztiak prestatzen hasteko.

Angela Gonzalezen kasuan zehar, beste indarkeria mota bat gertatu zen, pairatutako indarkeriaren aitortza alde batera uztearena, eta akats horren ondorioz gertakizun berri bat eman zen: Nazio Batuetako Batzordeak indarkeria kasu batengatik Espainiako Estatuari lehendabiziko nazioarteko kondena ipini zion, hura biktimari eta haren alabari babesteko beharrezkoak diren neurriak ez hartzea salatuz. Irizpen horrek frogatu zuen partikularrek burututako indarkeria ekintzak Estatuaren ardura izan daitezkeela azken batean, baldin eta hark egoera eza-gutzen badu eta beharrezkoak diren neurriak hartzen ez baldin badira.

Batzordearen irizpenean, Estatuaren erantzukizuna adieraziz biktimei eragindako kaltea ez aipatzeagatik, adierazten zenez *"Estatuak Giza Eskubideen Konbentzioak babestutako emakume honen eta neskato honen konbentzioa eta eskubideak urratu ditu eta, horrenbestez, erreparaziorako zenbait neurri ezartzen dira"*, bi motakoak: alde batetik, Angelari zuzendutako neurriak (biziraun duen pertsona modura edo biktima gisa), neurri ekonomikoekin eta xehetasunezko ikerketa bat egiteko betebeharrarekin; eta, beste alde batetik, egiturazko neurriak, hala ez errepikatzea bermatzeko (prestakuntza judiziala, aurrekariak aintzatestea, etab.) nola esparru juridikoa indartzeko.

Angelaren kasuak emandako beste elementu garrantzitsu batzuk Batzordeak emakumeek justiziarako duten irisgarritasunari begira emandako gomendioak dira, esate baterako, 33 zenbakidun gomendio orokorra, genero estereotipoei, salaketa hartzeari, ikerketari, epai-

ketari edota epaiari buruzkoa. Gomendio horiek nazioar-
teko tresnak Espainiako legerian modu eraginkorragoan
txertatzeko aukera ematen dute.

Esparru juridikoan erreparazio ikuspegia ondoen zehaz-
teko sistema judiziala emakume bakoitzaren premia in-
dibidualetara egokitu dadila eta zerbitzu ezberdinek ha-
ren prozedura guztia erraz dezatela lortzea da, ez dezan
gehiago pentsa gertatu dena bere erabaki berezkoen
ondorio dela eta gertatutakoa menderakuntza egituren
eta egiturazko indarkerien ondorio dela jabe dadin.

**“Esparru
juridikoan
erreparazio
ikuspegia
ondoan
zehazteko
sistema judiziala
emakume
bakoitzaren
premia
indibidualetara
egokitu dadila.”**

Gizarte zerbitzuek aholkularitza juridikoa dute, nahiz eta
hastapeneko aholkularitza bat emateko soilik dagoen
pentsatua. Haatik, desiragarriena emakumeari lehen-
dabiziko arretatik akonpainamendua egitea da eta, be-
randuago prozedura hasten baldin bada, aholkularitza
hori arduratu beharko litzateke horretaz, modu horretan
nolabaiteko jarraikortasuna eskainiz emakumearen ba-
besean eta pertsona laguntzaileen aldaketa bortitzak
ekidinez.

Peritutzaren txosten psikologikoei eta, oro har, salaketa
izapidetzean eman behar den informazioari dagokio-
nez, on litzateke gizarte zerbitzuetatik egiten den koordi-
nazioa hobetzea, izan ere, zenbaitetan, are epaitegien
aldetik, arretarako zenbait zerbitzu publikotatik datozen
txostenak zalantzan ipintzen dira, eta hori tratu txarrak
ematen dituzten pertsonak badakite eta inpugnatu egi-
ten dituzte; beste batzuetan psikologo profesional batek
egindako parteko txostenak ez dira onartuak izaten.

Finean, garrantzitsua da gertuko zerbitzuak prozesua-
ren hastapenetik emakumeentzat prozedura judizial-
lek duten konplexutasuna sinplifikatzen saia daitezela,
emakumeei zein fasetatik igaroko diren azaldu eta es-
ku-hartzeak nola ongi prestatu adieraziz, haiek prozesu
judizialeko protagonista izan daitezzen.

Bestalde, indemnizazioak zigor epai judizial bidez zehaz-
tu behar dira, hau da, egilearen erantzukizuna zedarritu
eta kondena luzatzen duen prozesu judizialaren ondo-

rioz, epaian ordainketa bakarrean gauzatzen den indemnizazio bat aurreikusiz. Gakoa da abokatuak kontuan izatea emakumearentzat zein garrantzitsua den indemnizazio ekonomikoa jasotzea, izan ere, erreparazio neurri bat da eta beren osatze prozesuan emakumeentzat lagungarri zaien elementu bat.

Indemnizazioa egiaz gauza dadin kondenatua kaudimentsua izan beharko da ekonomikoki; eta hori sarritan ez da hala izaten; inguruabar horietan justizia sistemek kaudimenik ezari aurre egiteko funts ekonomikok izaten dituzte. Bestalde, 1/2004 Lege Organikoak "enplegu bat eskuratzeko zailtasun berezia duten emakumeentzako laguntza ekonomiko" bat ezarri du, baina "zailtasun berezi" aintzatespena interpretazio subjektiboen baitan dago; praktikan, laguntza hori oso muturrekoak diren egoera ekonomikotan aplikatzen da, emakumeek gutxieneko soldataren % 75etik gorako errentarik ez dutela frogatzen denean.

Indemnizazioa finkatzeari dagokionez, ondare ikerketa egokia egin behar da ezinbestez, izan ere, sarritan tratu txarrak eragiten dituztenak oso trebeak dira jasotzen dituzten diru-sarrerak ezkutatuz. Bestalde, emakume askok indemnizazioa ukatu egiten dute edo haren zenbatekoari buruz hitz egiterakoan erdi lotsaz azaltzen dira, sistema gehiegikeriaz erabiltzen ari direla sentitzen dutelako edo etekin ekonomikoa ateratzea egotzi diezaieketela uste dutelako. Argi dago diruarekin bakarrik ez direla aurretiko egoerara itzuliko, baina lagungarri izan daiteke bizi-proiektu berri bati ekiteko.

Indemnizazioarekin pentsatzeaz gain (lehengoratzeko justizia), beharrezkoa da aurreko egoerara itzultzetik harago jotzeko grina izan eta, aitzitik, hasierako egoera hura nola hobetu pentsatzea. Horrek, haren aurkako indarkeria gertatzea erraztu edo ahalbidetu zuten arrazoiak aztertzea dakar, baina egiturazko esparru batean ipiniz, beste emakume askori ere halakorik gertatzea azaltzen duena. Horri dagokionez, biktimen urteko zenbaketa ikusaraztea jadanik erreparazioan laguntzen duen neurri bat da.

“Indemnizazioa egiaz gauza dadin kondenatua kaudimentsua izan beharko da ekonomikoki.”

Esparru judizialek erreparazioak izan beharko lituzkeen elementu guztiak azpimarratu egiten dira, sistema horrek zailtasun asko sorrarazten dituelako eta, azkenean, salaketa ipintzeak ondorio lazgarriak izan ditzakeelako emakumeentzat. Zailtasunak areagotzen dituen beste elementu bat ofizioko txandan artatzen duten pertsonen indarkeriaren alorrean duten prestakuntza eskasa da, izan ere, 20 orduko ikastaro urri bat baino ez dute egiten, emakumeen aurkako indarkeria bezalako arazo konplexu bat ulertzeko gaitasunik ematen ez diena.

6. Tokiko esperientzia bat

Eukene de Miguelek, EUDEL erakundeko Berdintasun arduradunak, "Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalerrien Berdintasun Sareak" zer-nola lan egiten duen azaldu zuen.

Sare honek alderdi politikoan funtzionatzen du, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan tokiko politikak garatzeko jarraibide, irizpide eta orientazioak finkatuz. Dituen tresnak xumeak dira, baina eragin handikoak, esate baterako, martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruko deklarazio instituzionalak.

Alderdi teknikoan, hala lantalde teknikoa nola Berdintasun Indarkeria Batzordea erreparazioaren arloan prestatzen joan dira, azken bi urtetan Maria Naredorekin prestakuntza lan oso trinkoa eginez, gainera, udalerrri bakoitzaren baldintzak eta haren aniztasuna aztertuz.

Erreparazio ikuspegiaren inplikazioetan sartzeak berekin dakar emakumeen aurkako indarkeria ezberdinen inpaktu guztiak ikusaraztea. Horretarako, lehenik eta behin, esku hartzeko dauden protokolo eta tresnak aztertu ziren, eredu berean oinarrituta egon arren haien artean dauden alde handietan erreparatuz, ondoren, ia protokolo guztiak bikotearekin edo bikote ohiarekin ematen den indarkeriarekin edo sexu erasoekin lotzen direla ikusi zen eta, azkenik, bakar batek ere ez duela biktimen erreparazioa barneratzen.

Horren aurretik, kontrolerako zerrenda bat eratu zen, egoeraren gaineko diagnosi nahiko erraz modura funtzionatzen duena eta udalaren egituran txertatu beharreko aldaketak erakusten dituena, alderdi orokorretatik hasi, finantzaketa moduetara eta erantzukizunen esfera ezberdinetara. Udalerrietan dagoen errealitatea sakonean ezagutzeko, beharrezkotzat jo zen informazioa jasotzeko baterako metodo bat izatea.

2017an eta 2018an zenbait hobekuntza egin ziren udal mailan, esate baterako, berdintasuneko udal ordenantzak aldatzea indarkeriari buruzko kapituluak giza eskubideen esparrua eta Istanbulko Hitzarmeneko har ditzan erreferentziazko araudi gisa, eta azken hark aipatzen dituen indarkeria mota guztiak izendatu eta gainera daitezen. Nabarmentzekoa da Basauriko Udalak indarkeria prebenitu, artatu eta haren aurka borrokatzeko bere plana diseinatu zuela, eta erreparazioarako eskubideari buruzko kapitulu espezifikoa bat baneratu zuela, zenbait ekintza proposatuz.

2017ko azaroaren 25ean indarkeriaren biktimak oroitzeko ekitaldi bat ospatu zen, ekitaldi sinboliko modura eta indarkeria hori pairatu duten emakumeen ikuspegia jasotzeko gai izango zena. Halako jarduerak ekitaldi xumeak dira oraindik, baina oihartzun handia dute.

Halaber, Durangaldeako Eskualdeko Koordinazio Protokoloa eguneratu da. Horretarako, erreparazioaren gaineko prestakuntza prozesu bat burutu da eta protokoloan txertatzeko proposamen berriak egin dira. Orobat, Andoaingo Udalari akonpaimendua eskaini zaio erreparazioaren ikuspegitik abiatuz protokolo bat taxutzeko. Esperientzia pilotu horiekin etorkizunean tokiko mailan erreparazioaren ikuspegia aplikatzeko jarraibideen gida bat eratzeko bidea ireki da.

Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legeak tokiko mailan edo udal mailan eta aldundietan dagozkion arreta zerbitzu motei buruzko konpetentziak banatzen ditu. Udalerrietan, sarritan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ez dira aliatuak izaten emakumeen aurkako indarkeria gaietan; aitzitik, biktimentzat lurralde zalapartatsua izaten dira. Kasu

guztietan hala gertatzen ez bada ere, egia esatera udal zerbitzuen ezaugarrien artean ez dago sentsibilizatuenak izatea eta emakumeentzat erreparazio gehien dakarteenak izatea; Oinarrizko gizarte Zerbitzuetako laneko ikuspegia bazterkeria egoeretan arreta ematea denez, hori nabarmenagoa da.

Udalerrri askotan badira erreparazio arloan jardun onak, izan ere, elkarren laguntzako funtzio bat betetzen hasten diren indarkeria prozesuen biktimez/ bizirik iraun duten pertsonen osatutako emakumeen taldeak, denboraren poderioz, plataforma bilakatzen dira emakumeek bere indarkeria istorioa eratu dezaten egiturazko gertaera gisa eta menderakuntza sistema baten barnean.

Kontzientzia hartzeko prozesu horien ondorioz emakumeak modu kolektiboan ahalduz dira pixkanaka eta, aldi berean, salaketak ipini eta tokiko administrazioarekin harremanetan jartzeko plataformak sortzen dituzte, eta plataforma horietatik emakumeek aitortzarekin eta erreparazioarekin lotutako esku-hartzeak eskatzen dituzte. Badira halako esperientziak Basauri, Gasteiz eta Donostian. Dimentsio komunitarioagoa hartzen dute eta erreparazioari begira ondorio oso adierazgarria izaten dute.

“Udalerrri askotan badira erreparazio arloan jardun onak.”

Zerbitzu batek erreparazio ikuspegi bat ote duen ikusteko adierazle onena da emakumea izatea erdian dagoena eta erabakiak hartzen dituen, nahiz eta une batzuetan, erabakitzeko gaitasunak mugatuta edo kaltetuta izan ditzakeen. Bera eta bere premiak erdigunean kokatzen baldin badira eta erabakiak hartzeko bere prozesuan laguntza ematen baldin bazaio, une nahiko lazgarriak dituen indarkeriazko esperientzia batetik osatu eta berreskuratzeko zirkuitu horren barnean, erreparazio esku-hartze bat ematen ari dela esanahiko du.

3:

Gizonei bideratutako
politika publikoak sexu
indarkeria arloan:
gogoetak, aurrerapenak,
erronkak.

Sarrera

Atal hau gizonekin maskulinitasuna eta indarkeriaren prebentzioa nahiz gizon erasotzaileen arreta lantzeko esperientzia eta politikak aztertzea dago bideratua.

Edukiak lau pertsona adituk garatu zituzten, gai ezberdinei buruzko beren gogoetak partekatu zituztenak: gizonen identitate maskulinoa lantzeko modua, emakumeetan dagoen imajinario maskulinoa aztertzeko modua, maskulinitasun hegemonikoaren dekonstrukzioaren inguruko politika publikoak, gizonen berdintasunarekiko duten konpromisoa eta beren bikote edo bikote ohiak diren emakumeak erasotzen dituzten gizonen arreta.

Laneko mahaia berdintasun zuzendaria den Miren Elgarrestak gidatu zuen.

Aztergaia parte-hartzaile hauek joratu zuten.

Parte-hartzaileak



Soziologoa, nazioarteko erakunde, administrazio publiko eta Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeetarako generoari eta maskulinitasunari buruzko nazioarteko kontsultorea. Berdintasunerako Ongiz Elkarteko eta Berdintasunaren aldeko Euskal Herriko Gizon Sarea Gizonen Sareko sortzailekide, eta Eusko Jaurlaritzako Gizonduz programako sortzailea. Bere hitzaldian maskulinitasuna birpentsatzeko gizonekin egiteko lanetan garatzen den teoria eta praktika jorratu ziren.



Aditua emakumeen eguneroko bizitzara aplikatutako feminismoan; emakumeen bizitzan eragina duten aldaketa maskulinoei buruzko ikerketak, ikastaroak eta tailerrak koordinatzen ditu. Berdintasunaren aldeko instituzio ezberdinekin eta emakumeen elkarteekin kolaboratzen du. Bere hitzaldian subjektibotasun femeninoetan maskulinitasun ereduari buruz lantzen dituen ideiak garatu zituen.



Lizentziatua psikologian eta familia terapeuta sistemikoa. Aditua gizonekin esku hartzeari dagokionez indarkeria matxista eta psikologikoan harreman ez indarkeriazkoen sustapenerako Gizonen Arretarako Zerbitzuan (SAH); indarkeria matxistako egoeretan esku hartzen duen Bartzelonako zerbitzu publikoen zirkuituko parte dena. Bere hitzaldian zerbitzu horren esperientzia eta hartako emaitzaren bat azaldu zituen.



Zuzenbidean lizentziatua, Emakunde erakunde instituzio arteko Kooperazio Zerbitzuko arduraduna eta Gizonduz programaren arduraduna. Bere aurkezpenean Gizonduz programak 2007an sortu zenetik gaurdaino jorrotutako edukiak eta izandako emaitzak azpimarratu zituen.

Saioaren laburpena

Eztabaida mahai honetako hasierako galdera herri administrazioetatik gizonekin lan egiteko komenigarritasunari buruzkoa zen. Hizlariak bat etorri dira hala egiteari dagokionez, batez ere, justizia kontuak aipatuz, baina era berean, bat etorri dira adieraztean ezinbestekoa dela arretaz aztertzea nola, noiz, nola, zertarako eta norekin egin.

Maskulinitasunaren esanahia gizonentzat

Esperientzia ezberdinetatik garrantzitsu modura adierazitako alderdi bat da **maskulinitasunen** gainean egin behar dela lan eta, zehazki, emakumeentzat eta gizonentzat maskulinitasunak duen esanahiaren gainean. Pertsona batzuek, era berean, garrantzitsutzat jotzen zuten gizonekin lan egitea, baina betiere genero harremanetan haien rola zalantzan ipiniz. Beste batzuek, aldiz, erasotzaile diren gizonekin lan egiten dutela adierazi zuten, emakumeen aurka abiatutako indarkeriaren arduradunak haiek direla uste dutelako.

Ados azaldu ziren maskulinitasunen edota gizonen inguruan lan egiteko abiapuntua sistema patriarkalean duten rola **zapaltzaileena** dela aitortzearekin. Rol horrek zenbait abantaila ematen dizkie, mugatuak zaizkien beste alderdi batzuk orekatzen dituztelarik abantaila horiekin. Halaber, maskulinitasun hegemonikoaren eraikuntza sozial, kultural eta ekonomikoa bi zutabetan oinarritzen dela aintzatetsi zen: **misoginia eta homofobia**. Horrenbestez, gizon guztiengan hura dekonstruitzeko ezinbestekoa da emakumeekin dituzten harremanak eta euren artean dituztenak aldatzea.

Hori guztiori egiaz dauden gizonen **aniztasuna** ahantzi gabe, hala beren bizipenei eta maskulinitasuna ulertzeko moduari dagokienez nola beren pribilegioak azaltzeko eta haiei aurre egiteko moduei dagokienez.

Maskulinitasunaren esanahia emakumeentzat

Deigarria da ahaldundutako emakume batzuek, are baita feminista zailduak ere, hautemandako portaera matxistak "jasotako heziketarekin, analfabetismo emozionalarekin, guztiok berdin zanpatzen gaituen kapitalismo neoliberalarekin, enpatiak ezarekin eta egiturazko desgaitasunekin" justifikatzen jarraitzen dutela, eta are, gizonak **patriarkatuaren lehendabiziko biktimak** direla baieztatzen dutela, horren ondorioz zenbaitetan azalekoak diren zenbait aldaketa maskulinoen idealizazio eta gehiegizko balorazioa eginez.

Illo horretatik, maskulinitasun hegemonikoa ez da soilik subjektibotasun maskulinoan aurkitzen, **femeninitasunaren eraikuntzan** ere leku garrantzitsua hartzen duelarik. Femeninitasun horretan emakumeen zereginen artean haiekin harremanetan diren gizonen maskulinitasunaren zaintza barneratzen da.

Horregatik, emakumeek maskulinitasun horrek esanahi duenari buruzko dekonstrukzio lan bat egin behar dute; hori da emakume horien lana, beren buruaren gaineko eta gizonekin harremana izateko duten moduari buruzko ardura hartzekoa. Horrek ez du, inolaz ere, esanahi gizonengan kontzientzia egitea beren arazoan inberran, hori gizonen euren egiteko lanketa baita.

Indarkeria sexista

Indarkeria sexista fenomeno konplexu modura ulertu behar da ezinbestean, maila ugarian gertatzen dena. Fenomeno horren kontzeptualizazioak emakume eta gizonen arteko eztabaida sorrarazten du, batzuen zein besteen izateko modu, ikuspuntu eta esperientzia, indibidual nahiz kolektibo, ezberdinen ondorioz. Gizonen fenomeno hori indarkeria horren eragilearen posizioetik kontzeptualizatzen duten bitartean (kolektibo orokor modura hitz eginda), emakumeen kasuan haren esanahia zedarriztatzea gizonen harremanari eta beren buruaren zaintzari dagokienez beren berezko heziketa, iguripen eta bizipenei aurre egin behar izatea suposatzen du.

Erasotzaile diren gizonen egiteko lanketan beren eskubideak direla uste izan duten, baina egiaz, beren **pribilegio** izan diren hori (emakumeen gainean eragiten duten boterearen eta kontroletik eratorrita) zalantzan ipintzeko duten ardurari begiratu behar zaio.

Politika publikoak

Gizonen edota maskulinitasunarekin (egiazkoa, sinbolikoa, hegemonikoa, alternatiboa, etab.) egiteko lanketa **feminismoarekin, emakumeekin eta espazio feministekin** lotuta egon behar da, izan ere, soilik horrela lanketa hori aldaketarako tresna eraginkorra izan daiteke.

Gizartean eragina izan dezaten, erasotzaileen arretarako eta gizonengan aldaketa bultzatzeko politika publikoak **iraunkorrak, kontzienteak eta konpromisokoak** izan behar dira, hala sentsibilizazio kanpainei dagokienez nola sor daitezkeen arretarako zerbitzuei dagokienez; gainera, irizpide feministekin ebaluatu behar dira.

Gai horiek sakontasun gehiagoz garatzen dira hurrengo orrialdeetan.

Jorratutako gaiak

1. Maskulinitasun hegemonikoa

“Maskulinitasunak” aipatzen direnean, ez zaie talde maskulino homogeneoei erreferentzia egiten, baizik eta testuinguruan ipinitako eraikuntzei. Subjektibotasunaz hitz egiten denean barne eskemen multzo horri egiten zaio erreferentzia, hau da, gizarteko mandatuaren oinarri diren eta mundua hauteman eta munduarekin komunikatzeko baliatzen ditugun oharrek, sentimenduak eta ideiak ditugu aipagai. Multzo hori guztiori ez da beti kontzientea izaten; aitzitik, hartako portzentaje handi bat gure inkontzientean geratzen da; eta aldaketa asko gertatu arren, multzo horrek oraindik matxista eta patriarkala izaten jarraitu dezake neurri batean.

“Maskulinitasun hegemonikoak pribilegioak dakartza gizonentzat.”

Maskulinitasun hegemonikoaren eraikuntza sozialaren eta indarkeria matxisten artean harreman zuzena bada-go ere, gizonak (indibidualki nahiz kolektibo modura) ez dute harreman hori modu argian identifikatzen, hein batean gizon izate hutsagatik dituzten pribilegioak identifikatzen ez dituztelako. Maskulinitasun hegemonikoak pribilegioak dakartza gizonentzat, eta ordainsaria ordaindu behar badute ere beren mandatuak betetzeko, hori egiteak konpentsatu egiten die oraindik. Amelia Valcarcelek dioen moduan: “gizon izateak min ematen du, baina konpentsatu egiten du”. Bestalde, “gizonek berdintasunarekin irabazteko asko dute” argudioa arriskutsua izan daiteke; bestelakoan, gizonen lana irabazi eta galeren arteko oreka modura planteatu beharko balitz, errealistagoa izango litzateke aldaketak ekarriko dien pribilegioen baldizko galeren ikuspegitik planteatzea.

Gizarte justizia, giza eskubideak eta ekitatea izan behar dira gizonekin egiteko lanketa gidatzeko ikuspegiak maskulinitasun hegemonikoa, bere alderdi guztietan, dekonstruitze aldera. Susana Covasek ohartarazi zenez, maskulinitasun hori ez da entelekia bat, ezta super

egitura bat, anonimoa ere ez da, eta helgaitza ere ez, aitzitik, hezkuntza eta osasun instituzioek, enpresa erakundeek gobernuz kanpoko erakundeek, elizarekin lotutako erakundeek eta orotariko erakundeek osatuta dago, emakumeak lehen mailako herritartzat hartzea, kostu handiegirik ordaindu beharrik gabe beren izatearen diseinuan parte hartzeko eskubidea dutenak, bultzatzen ez dutenak edota horren aurka daudenak.

“Maskulinitasun berrien” goraldiak onarpen nahiko zabaldu du, batez ere, publiko femeninoaren artean, baina emakumeek eurek aldaketa maskulino jakin batzuen gainean egiten duten balioespena, nahiz eta rol batzuen zamari dagokionez arintasun apur bat sentitzen duten, ez dator bat gizonengan gertatutako eraldaketa sakon batekin eta ez da islatzen beren bizi-kalitatearen hobekuntza nabarmen batean.

Ohartarazpen horretatik hasita, ikerketaren abiapuntua, zeinaren emaitzak Susana Covasek eman zituen mahaian, da aztertzea gizonen zein barne eredutik ari diren emakumeak harremanak izaten gizonekin. Jarraian, emakumeek balioetsitako gizonen portaeraren alderdi zenbait aurkezten dira, horien adibide modura ipinitako lekukotza batzuekin batera:

“Gizonen zein barne eredutik ari diren emakumeak harremanak izaten gizonekin.”

- **Hazkuntza:** Zein ongi! Egiaz ekipo bat dagoenean hau ezberdina da. Sinetsi ere ezin dut egin, ni neu izaten jarraitzeko denbora daukat eta!
- **Laguntza:** “Gaur nire nagusi (gizona) zenaren nagusia (emakumea) naiz. Interesgarriena da berak (gizonak) nire ibilbidea erraztu zuela ahal izan zuen heinean”.
- **Lilura:** “Betidanik liluratu izan naiz nire buruarekin egiten dudana eta eskatzen dudana guztian azaltzen dudana nire koherentzia feministarengatik... eta halere erakargarria naiz emakume modura... miraria!!!”

Halaber, emakumeen iritziz sakonegiak ez diren aldaketa maskulinoen adibide diren lekukotza zenbait azaldu zituen:

- “Guztiak dira oso feministak ekitaldi batetik jaistea egokitzen zaien arte”
- “Eta ekin eta ekin protagonismo publikoarekiko obsesioarekin: *Feminismo para principiantes* irakurri berri dute eta dagoeneko liburuak argitaratzen dituzte!”.
- “Horrenbestez ez nazala eskertu eta zerbait itzul nazala. Elkarrekikotasuna... eta hori beretzat (gizona) zer ote da?”
- “Nire anaia hipotetikoa: beti esan izan du gure gurasoak zaintzeko garaia iritsiko balitz, partekatu egingo genuela noski. Garaia iritsi denean... *where is my brother?*”
- “Sinbolikoki oso ongi dago konpromiso publikoak sinatze hori... oso mediatikoak direnez, agian beste batzuk sentsibilizatzea lortuko dute. Baina egiaz sineskorak izateko, ez al lukete zehaztu behar zein irizpiderekin ebaluatuko duten beren burua, Zenbatero balioetsiko dituzte emaitzak? Nork monitorizatuko du haien lanketa?”.

Covasek, aldi berean, gizonen eta emakumeen artean harremanak garatzeko ezartzen diren parametroei buruzko zenbait galdera proposatu zituen, eztabaidarako baliagarri izan zirenak. Horien artean, honakoak: “Behar beste interpelatu al dugu patriarkatuak guri ere sartu digun maskulinitasunaren ereduak? Zer espero dugu gaur egun ekitate lotura batean arlo pertsonalean, lan arloan, familiakoan, bikotean, adiskideei dagokienez, militantziako kideen artean, prestakuntza espazioetan edota kirol arloan? Zein oinarriren baitan negoziatzen ditugu premiak, nahimenak, interesak eta erantzukizunak egunez egun? Zein irizpiderekin balioesten ditugu ahalegina egiten ari diren gizonen aldaketak? Maskulinitasun berri bati dagokion zein eredutik ari gara erkatzen *gizon berri* modura eskaintzen zaiguna? Gure egunerokotasunean modu kualitatiboan eragina duten aldaketak al dira? Zer-nolakoa? Zer izan beharko litzateke guretzat maskulinitasun berri bat? Zer da gaur egun emakume heterosexualak maitemintzen dituenak? Zein irizpide erabiltzen ditugu emakumeok esparru ez-

berdinetan identitate, premia eta nahimen berezkoak ditugun pertsona modura errespetatu, baliozkotu eta legitimatuta senti gaitzen? Zein da, Aitor/Jordi/Pacok, gure inguruko izen-abizenak dituzten gizonak, gauzatzen duten maskulinitasunak sorrarazten dizkigun eragin zehatzak hautemateko gure atalasea?

Gizon berriek beren maskulinitasun tradizionalan egingo dako aldaketan maila sekula ez denez neurtzen emakumeekin finkatzen duten loturaren arabera, baizik eta beste gizon batzuekin (aurreko belaunaldietakoak, beste kultura batzuetakoak, edo beste oldarkor eta tratatu txarren eragile diren *horiekin*) alderaketa egitearen arabera, gizon horiek beren buruarekiko atsegin maila handia eta beren lorpenei dagokionez neurritz gainera balioespena transmititu dezakete. Azpiazuk dioen moduan¹, "beren balioespenetan ordezkatzeko ez dituen maskulinitasun eredu baten kondena eta bereizketarekin lotutako elementu gehiago dituzte, berezko ereduak zalantzan jarri eta aldatzeko begirako elementuak baino".

Bestalde, emakume horientzat oso zaila da beren ahalduz aurrera egitea gizon horiekiko loturetan, izan ere, gizon horien analisia ez dago emakume horiekin finkatzen dituzten harremanei begira, baizik eta beren baitako aldaketari so. Eta horrek eragotzi egiten die eskaintzen zaien lotura mota balioesterakoan asertio handiagoko eta zorrotzagoak izateko aukera, eta horrek garrantzi handia du indarkeria matxistaren prebentzioari dagokionez.

Maskulinitasunaren analisisetan sakontzen ez baldin bada, gizonen portaerak halako adierazpenak kontuan izanik neurtzen dira azken batean: "Nire senarrak ohikoa dena jotzen nau". "Saindua da, etxearekin eta haurrekin zer-nola laguntzen nauen ikusiko bazenu". "Zaila da haren laguntzaren zain egotea, sekula ez baitu astirik, baina mutil sentibera da, gu bezalaxe (emakumeok) negar egiten du eta hunkitu egiten da" "Adiskide ona da: ni izaten uzten nau". "Nire nagusiak dio gure buruari jomugak

¹ Jokin Azpiazu Carballo (Ermua, 1981), ikuspegi feminista batetik maskulinitasunetan aditua den soziologoa.

eskatzeari utzi eta gure merituen arabera iristen ikas dezagula, nik uste dut hori beste asko baino feministagoa izatea dela”.

Haatik, emakumeen pentsamenduaren barnean maskulinitasunaren eredia aldatzeak eskagarri diren estandarrik igotzea eta ekarpen hutsalak edo bertutez mozortutako indarkeriak balioesten uzteari eskatzen du. Modu horretan, gizonekin lan egiteko estrategietan beste irizpide batzuk gainera litezke eta halako alderdiak balioetsi: espazio mistoetan eragiteko moduak; protagonismoa izan eta egiten duten gauza bakoitza ikusarazteko premia handiago edo txikiagoa; absente egon eta botereko espazioen asmotan ez egoteko gaitasuna; egiaz behar dituzten eta ez soilik ongi sentiaraztea ekartzen dien zainketekin hartzen duten konpromiso maila.

“Gizon guztiak gertatzen ari denaren konplizeak direla.”

2. Maskulinitasun hegemonikoa eta indarkeria matxista

Behin gizonekin lan egitearen garrantzia adostuta eta kontuan izanik gehienak ez direla jabetzen indarkeria matxistetan inplikaturako dinamika ugariekin, hurrengo urratsa baterako ikuspegi batetik lan egiteko zer behar den pentsatzea da. Indarkeriaren gaineko definizio argi bat izatea elementu gakoa izan beharko litzateke gizonekin eta gizonentzat lan egiteko modua jorrazteko... Indarkeriaren izeberga ikusaraztea eta gizonak ikusten ez den eta ikusi nahi ez duten hondoratutako aldean daudela ulertzea, gizon guztiak gertatzen ari denaren konplizeak direla onartzeko premia dago, eta zenbaitek errealitate hori ihes egin arren, egiaz gizon guztiak dira sistemako kide eta horregatik emakumeen aurkako indarkeria gizon guztiei dagokien kontu bat da.

Beren bikote emakumearen aurka indarkeria erabiltzen duten gizonekin egiteko esku-hartzeak portaera horren aitortza baldin badu ere abiapuntu, ezinbestekoa da indarkeria hori zein elementuk zilegitu duten joratu eta erasotzaileak emakumeak nola “bizi” dituen eta haiekin zer-nolako harremana duen, gatazkak nola ebazten di-

tuen, harreman afektiboak nola finkatzen dituen edota intimitate harremanak nola ezartzen dituen hausnartzea; finean, hondoratuta dauden baina indarkeriazko portae-
ran erabakigarriak diren eta indarkeria matxista bezain fenomeno korapilatsuaren gainean irakurketa sinplis-
ta bat ez egiteko jorratu beharrekoak diren elementuak azaleratzea.

Helburu horien lorpenera bideratzeko, erasotzaile diren gizonekin lan egiteko metodologian hauek barneratu behar dira: gauzatutako indarkeriaren berezko erantzuki-
zuna hartzea ardatz nagusi modura; erasotzailearen his-
toria pertsonala berrikustea; bere bikotearekin eraikitako lotura aztertzea; eta botere harremanei eta matxismoari buruz zer pentsatzen duen arakatzeta, ohartaraziz azken elementu hori dela lantzen zailena.

Gizonekin lan egiteko garaian arazo handienetako batek gizon eta emakumeen arteko botere harremanek indar-
keria matxistetan eta, horrenbestez, gizon izate hutsagatik dituzten pribilegioetan zer-nolako eragina duten aitortze-
ko dituzten zailtasunekin... eta maskulinitasunarekin lo-
tutako indarkeriaren gaineko kontzientzia eta ulermena sortzearekin du zerikusia, fenomenoak ikuspegi konplexu batetik jorratuz.

Indarkeria maskulinoen konfigurazioan inplikaturako al-
derdi psikologikoen hazkuntzarekin, lan espazioekin, sexu eta afekziozko harremanekin, harremanetan dagoen elkarrekotasunarekin, zaintzekin edota indarkeria horiek emakumeen eta gizonen aldetik ikusi eta aitortzeare-
kin dute zerikusia. Beraz, indarkeria matxistaren aurkako lanketa eraginkor baterako erronka herri administrazioe-
tatik luzatzen diren diskurtsoak homogeneizatzea da, er-
pin guztietatik kontzientziatu eta horiei aurre egiteko.

Indarkeria matxistak maskulinitasunetik eta progra-
ma publikoetatik abiatuz eta ildo espezifikoak baliatuz zer-nola landu eztabaidako ardatz garrantzitsua izan zen jardunaldian zehar. Eztabaida horren inguruan hizla-
ri bakoitzak bere ikuspuntu berezkoa eman zuen, nahiz eta guztiek onartu zuten jorratze horretan zehaztasun ga-

“Maskulinitasunarekin lotutako indarkeriaren gaineko kontzientzia eta ulermena.”

rrantzitsu bat dagoela: eguneroko lanketa kolektibo mistoetan egiten bada ere, garrantzitsua da gizonen zuzendutako lanketa ikuspegi feminista batetik egiteko premia gehiago nabarmentzea, bestela sekula ez baikara azken helburura iritsiko, hots, berdintasun eta ekitatera.

Sobera ezaguna izanik, feministentzat bederen, imajinario sozialak berrikusi eta ikasitakoa desnaturalizatzea zein garrantzitsua den aldaketarako edozein aukera ikusezin mantendu ez dadin eta aukera hori bertan behera gera ez dadin, argi dago, aldi berean, oraingoz, gizonak soilik feministen inguruan daudenean aldatzen direla. Gainera, transmititu zaigun gizon eredu dekonstruitzeko lanketari ekiten ez bazaio, egitura subjektibo sakonetan, emakumeok ezingo dugu gure diseinu berezkoa egin gizonetik ekitate loturen inguruan espero dugunari buruz.

Behin premisa hori adostuta, eztabaidatu beharreko hurrengo puntua "gizonekin" lan egin eta "maskulinitasunekin edo haien inguruan" lan egitearen arteko ezberdintasuna da, izan ere, oso ohikoa da bi eszenarioak uztartzea, baina aldiro eta helburu bakoitzaren arabera, zer behar den pentsatzea komeniko litzateke. Lehen eszenarioari helduz, lantzeko gaia indarkeria sexista baldin bada, ezinbestekoa da gizonekin lan egitea, izan ere, bestela, indarkeriaren ondorioak baino ez ditugu artatuko eta indarkeria eragiten duena ahortzi egingo dugu. Eta maskulinitasunei dagokienez, lanak haren zutabeen inguruan sakontzea izan beharko luke ardatz, hau da, misoginia eta homofobia, horiek baitira maskulinitasun patriarkalaren eraikuntza sozial, kultural eta ekonomikoaren euskarriak.

Lan ildo horiei berdintasunarekin lotutako taldeekin zerikusia duten gizonak idealizatzeko joera geldiarazteko ahalegin bat gaineratu behar zaie, zehaztuz zenbaitetan talde horietako kide izateak orotatik libre mantentzeko baimen bat direla dirudiela, egiaz ez duenean eragozten maskulinitasun sexistarekin zerikusia duten portaerak azalratzea... Zenbaitetan, halako taldeetan parte hartzen dutenek gizonen halako garrantzi publikoa izan behar ote duten edo espazio publiko mistoetan parte hartu behar

ote duten galdetzen dute; funtsezkoa da maskulinitasunaren eta sexismoaren osagaiei buruzko gogoeta moduko aurretiko lanketa bat egitea arlo sozial, publiko edo politikora jauzi egin aurretik.

Argudio horiek esparru sendo bat konfiguratzeko gizonekin eta maskulinitasunekin lan egiteak duen garrantzia ulertzeko, indarkeria matxisten arreta eremu publikoetatik jorratzeko, emakumeak beren inguruko gizonen *hezitzaile* modura aintzatesten jarraitu ordez. Eginahalak programa eta erakunde publikoetara bideratzea agian, baliagarri izan daiteke gainera gizonen beren aldaketa berezkoak balioesteko garaian beren exijentzia mailak areagotzeko eta urratzen duten bidea uneoro berrikus dezaten.

3. Gizonekin eta maskulinitasunarekin lanketa

Jardunaldian parte hartu zuten lau pertsonen gizon taldeekin lan esperientzia zabala dute, eta esperientzia hori partekatzeak beren lorpenekin eta etorkizuneko jomugekin lotutako panorama zabala izatea ahalbidetu zuen. Euskadiren kasuan, Otxotorenak aipatu zuenez, gizonentaldeek, gutxi badira ere, badituzte zenbait alderdi interesgarri, kontuan izatekoak: Taldeak oso ezberdinak dira, ezaugarriei, parte-hartzaile kopuruari, elkartzeko moduari, jarraikotasunari edo egunerokotasuneko ekintzari dagokienez, baina taldea egote hutsa (betiere, ikuspegi feminista eta LGTBI taldeen ikuspegia baldin badute) eta gai horien inguruan hitz egiten hastea, dagoeneko aurrerapauso nabaria da. Berdintasunerako gizon taldeak sortu diren herrietan (Ermua, Laudio, Zarautz), erreferentzia garrantzitsu bilakatu dira eta baita talde feministen aliatu handi ere". Haatik, adierazi zuenez, oraindik ezin da esan berdintasunaren aldeko gizonen mugimendu bat dagoenik, izan ere, daude taldeek mugimendu orok gutxienez behar dituen bi elementu falta dituzte: agenda bat eta koordinazio bat, eta gaur egun Euskadin ez dago halakorik.

3.1. Instituzioen aldetiko lanketa

Ander Bergarak, bestalde, azaldu zuenez, Gizonduz programa Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planera nahiz Emakume eta Gizonen Berdintasun legera egokitzen da, beste esparru juridiko eta programatiko batzuetara egokitzeaz gain. Horregatik, lanketa bi norabidetan bideratzen da: emakumeengana, emakumeek eskubide eta baliabideetarako irigarritasuna izatea bermatzen duen ahalduntze ildo batekin; eta gizonengana, boterea eta aisialdi orduak partekatzeko helburuak ipinita; beregain hartzen ez duten zaintzaren zatiaz ardura daitezen eta, finean, eman zaizkien pribilegio maskulinoei muzin egin diezaieten; jakinik gizonekin egiteko lanketa dauden gizonen aniztasuna kontuan izanik eta kasu bakoitzerako sarbide-puntuak zein diren ezagutuz egin behar dela.

“Gizonekin egiteko lanketa dauden gizonen aniztasuna kontuan izanik eta kasu bakoitzerako sarbide-puntuak zein diren ezagutuz egin behar dela.”

Kontuan izanik errazagoa dela gizonak inplikatzeko espezifikoki haiengana bideratzen diren ekintzak eginez gero, eta sentsibilizazioa eta prestakuntza gakoak direla ideia eta portaerak aldatzeko, Bergarak azaldu zuen gizonak feminismora hurbilazteko bere metodologia gai horri buruzko ikastaroak antolatzea izan dela gizon taldeen eta udaletako berdintasun arduradun diren emakumeek eskatuta, berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka sentsibilizatu eta konpromisoa hartutako gizonen kopurua; berdintasunean prestakuntza duten gizonen kopurua eta etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan gizonen aldetiko erantzukidetasun maila areagotzeko xedez.

Gizonduz programaren lorpen kuantitatiboan artean hurrengoak aipatu zituen:

- 10.000 gizon euskaldunek sinatu dute berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko gizonen gutuna.
- 30.000 familiek berdintasunezko aitasun erantzukidea bultzatzera zuzendutako sentsibilizazioko material multzo batez osatutako motxila bat eskatu zuten, gizonei helarazi zitzaizkienak emaginen eta adopzioaz arduratzen diren foru erakundeen eskutik.
- 7.000 gizonek parte hartu dute Gizonduz

programako ikastaroetan.

- 0 eta 10 bitarteko eskala batean, emakumeen elkarteek eta udaletako berdintasun teknikariek 7 puntu ematen dizkie berdintasunaren alde Emakunde erakundeak gizonekin egiten duen lan ildoari.
- Gizarte-sareetan presentzia 5.000 pertsona jarraitzailekoa (% 60 gizonak) da.

Lorpen kualitatiboak dagokienez, Bergarak adierazi zuen nagusia mota eta profil ezberdinetako erakunde askotara iritsi gaitela dela: herri administrazioak, enpresa erakundeak, sindikatuak, eskolak, GKEak... Aurkitutako zailtasunen aurrean metodologiak eta jarduerak berritzen, jakin dugu, nazioarteko gomendio eta tratatuak betez. Eskualde mailan nahiz maila nazionalean aitortzea lortuz joan gara, berdintasunaren aldeko erreferente bilakatu garelarik.

Gizonekin maskulinitasunetatik indarkeria matxisten aurka borrokatzeko egiteko lanetaren ondorioz planteatutako erronkei dagokienez, Otxotorenak zein Bergarak honakoa nabarmendu zuten:

- Programen ebaluazioan sakontzea horien inpaktua hobeto ezagutze aldera. Egiten dugunaren gaineko egiazko inpaktua zein den jakitea lagungarri izango zaigu gizon gehiagorengana iristeko, baina ez edozein modutara, baizik eta modu eraginkor batean, eraldaketaren bat sorrarazteko.
- Sektore estrategikoekin lan egitea aldatzea lortze aldera, esate baterako, esparruren batean lider diren eta oihartzun handiagoa sor dezaketen gizonekin.
- Kritikak hobetzeko aukera modura baliatzea, adostasuna bilatuz gizonekin modu eraginkorrean lan egiteko.
- Talde feministekin, berdintasunaren alde dauden beste gizon talde batzuekin eta helburu berdinak dituzten instituzioekin aliantzak areagotzea.

“Egiten dugunaren gaineko egiazko inpaktua zein den jakitea lagungarri izango zaigu gizon gehiagorengana iristeko, eraldaketaren bat sorrarazteko.”

3.2. Erasotzaile diren gizonen arretarako lanketa

Bestalde, Laila Aljendek adierazi zuenez, berak lan egiten duen zerbitzua, 2005ean sortua Bartzelonako Udalaren eskutik, udal mailako zerbitzu bat da eta bikotesren esparruan indarkeria matxista gauzatzen duten gizonen erantzun espezifikoa emateko sortu zen, nahiz eta gaur egun bere estaldura areagotu duen 2008ko Kataluniako legeari erantzuteko. Bere helburuak indarkeria matxista desagerrarazi eta biktimei babesa ematea da. Hala, zerbitzuak indarkeriak gauzatzen dituzten gizonekin prebentzioa eta esku-hartze psikoterapeutikoa landuz egiten du lan; halaber, gizonek indarkeriaren aurkako eta aldaketa sozialaren aldeko borrokan parte har dezatela bultzatzen du. Horrez gain, jomugan ipintzen ditu maskulinitasun hegemonikoa eta emakume eta gizonen arteko botere aldetiko desberdintasunak.

Adierazi zuenez, indarkeria matxisten aurkako borrokan gizonen parte-hartzea zerbitzuaren funtsezko irizpide bat da, izan ere, lehenik eta behin, Genero Indarkeriaren aurkako Osoko Legeak hala eskatzen du; bigarrenik, berdintasunerantz egiteko indarkeria gauzatu duten gizonen berrirori jarrera hori ez errepikatzea ezinbestekoa da, eta gizon guztiek botereari dagokionez dagoen desberdintzaren gaineko arduraren har dezatela eta emakume eta alaben segurtasuna hobetzearekin kezka daitezela; eta, azkenik, gizon askok berdintasuneko harremanak mantentzeko zailtasunak dituztenean sentitzen duten ondoreari erantzuna emateko xedez.

Zerbitzu horrek genero ikuspegitik jorratzen ditu esku-hartze guztiak, gizonen parte-hartzea borondatezkoa da eta prozesu judizialak izan ditzakete. Zerbitzura iristen diren gizonen indarkeria erabiltzen dutela onartzen badute ere, egia da, aldi berean, garrantzia kendu egiten diotela indarkeria horri eta eskuragarri dituzten mekanismo guztiak baliatzen dituztela justifikatzeko, eta sarritan indarkeria erabiltzera zergatik iristen diren ere ez dute ulertzen. Adierazi zuenez, gizonekin lan egitearen zentzuari eta emakumeekin lan egiteak gehiago merezi ez ote lukeen galdetzen zaionean ematen duen

erantzunari helduz, ez du uste beharrezkoa denik bataren edo bestearen artean hautua egitea; aitzitik, bere ustez, indarkeria desagerrarazteko gizartearekin lan egin beharko litzateke orokorrean eta botere publikoetatik, eragindako eragile guztiak inplikaturako zituzkeen ildo batekin.

Zentzu horretan, lorpenak eta planteatutako erronkak helburu horri so aztertu behar dira; arrazoi hori dela medio, adituak lehen lorpen gisa inplikaturako gizon kopurua pixkanaka areagotzearena aipatu zuen, horrek eragina duela bi faktoreri begira: alde batetik, jarduera horietara aurrekontu gehiago bideratzeari begira eta, beste alde batetik, gizarte zerbitzu guztiak genero ikuspegitik prestatzera bideratutako udal gobernuaren neurri bati so.

Halaber, garrantzitsuak diren bi lorpen adierazi zituen: alde batetik, Bartzelonako Unibertsitateak egindako ebaluazioa, programaren emaitzak objektibotasunez ezagutzeko aukera eman zuena eta, beste alde batetik, Bartzelonako hiriko politika publikoek ahalbidetutako sare lana, indarkeria biktima direnak artatzen dituztenen parte-hartzea eta segurtasun, hezkuntza edota osasun zerbitzuen artikulazioa bultzatzen duena helburu horrekin², indarkeria matxistako kasu bakoitza artatzeko eta esku-hartzearen prozesua, alderdi guztietan, arintzeko espazio egokiak eraikiz.

Hartako programak eta lorpenak xehetasun gehiagoz azalduz adierazi zenez, zerbitzuak burutzen duen prebentziorako lana Cambiémoloslo(Cambiemus, katalanera) izeneko programaren bidez egiten da, herritarrei eta profesionaleri zuzendua dena; halaber, azaldu zenez, 2018. urteaz geroztik informazio eta aholkularitza juridikoko jarduerak egiten dituzte genero ikuspegitik, tratamenduan diren gizonei zuzenduta. Artatutako herritar taldeei dagokienez, aipatu zenez, ugariak dira eta hiru programaren bidez iristen da haiengana:

- *Sa Hombres* programa, beren bikote edo bikote ohiaren aurka indarkeria erabili dutenei zuzendua,

² <http://ajuntament.barcelona.cat/bcnantimasclista/es/prevenir-y-actuar/circuito-barcelona-contra-las-violencias-machistas>

baina baita lan eremuan edota familia barnean erabili dutenei zuzendua ere.

- *Sa Jóvenes* programa, 12-21 urte bitarteko mutiko eta gazteei zuzendua.
- *Sa Padres* programa, bere bikote edo bikote ohiaren aurka indarkeria erabili ostean, beren guraso jarduna kaltetua izan zaien gizonak artatzekoa.

Zerbitzura beren borondatez jo dezakete gizon erasotzaileek edo profesional batek erator ditzake bertara. Behin zerbitzura iristen direlarik, arretaren metodologiak urrats hauek jasotzen ditu:

“Lehendabiziko bost egunetan arreta emateko ahalegina ematen da, gertaerak zer-nola jazo ziren ahanztea ekidite aldera.”

Bisita: lehendabiziko bost egunetan arreta emateko ahalegina ematen da, gertaerak zer-nola jazo ziren ahanztea ekidite aldera. Lehendabiziko bisitan informazioa baino ez da ematen eta kasua eskaintzen dugun zerbitzura egokitzen den jakiteko ere balio du; hala izango balitz, bigarren fasera igarotzen da, balioetsi edo harrera egitekoa, non motibazioa balioesten den, izan ere, borondatez etorri arren, horrek ez du esanahi hori egokia denik. Hor, besteak beste, gizonak indarkeriaren aurrean duen posizionamendua edota nola deskribatzen duen balioesten da.

Balioespena: fase honetan gizonari eskatzen zaio emakumearen izena eta telefono-zenbakia emateko, izan ere, biktimarekin harremanetan ipintzen gara bisita bat eskaintzeko hainbat helbururekin: zerbitzua desmitifikatzea, pairatutako indarkeriari buruzko bere bizipena balioestea, arriskua balioestea, pairatutako indarkeriaren arabera egokiak diren zerbitzuetara eratorzea, etab. Azkenik, fase hori amaitzeko, esku-hartze fasean erabiliko ditugun helburuak eta formatua zehazteko laneko plan bat adosten da.

Esku-hartzea: esku-hartze prozesuari dagokionez, taldekakoa izateko ahalegina egiten da; 32 saio egiten ditugu talde itxi batekin bederatzi hilabetez gutxi gorabehera. Zenbaitetan arreta indibidualizatua eskaintzen dugu, komenigarritzat jotzen denean edo beste era bateko zailtasunak daudenean.

Zerbitzuak erronka hauek planteatu ditu:


- Programara iritsi nahi duten gizonen kopurua areagotzea, izan ere, oraindik tabua da lan honetan sartzea, indarkeriarekin amaitu nahi ez dutelako, erasotzaileek ez dutelako beren burua halakotzat identifikatzen, halako zerbitzu batera jotzeak kostu sozial bat suposatzen dielako edo maskulinitasunaren inguruan eraikitako pentsamenduaren ondorioz.
- Deribazio kopurua areagotzea eta prozesuak mantentzea lortzea inork prozesuak utzi gabe.
- Indarkeria matxistarekiko erantzunkidetasun sozial eta kolektiboa gehiago jorratzea, izan ere, ezinbestekoa da egiturazko arazo modura ulertzea.

3.3. Emakumeekin maskulinitasuna landuz

Bestalde, Susana Covasek, emakumeekin maskulinitasuna lantzeko bere interesetik abiatuta, emakumeek gizonekin dituzten harremanean gainditu behar dituzten zenbait erronka aipatu zituen, eta gizonak ere gainditu behar dituztenak emakumeen aliatu izan nahi badute, eta agerraldia gogoeta honekin amaitu zuen:

Garrantzitsua da errepikatzea emakumei ez dagokigula gizonak aldatzeko eginkizuna, inondik ere ez, lan hori eurena baita soilik. Baina emakumeek elementu baliotsuak eman ditzakete haiekin harremanetan ipintzeko moduari dagokionez. Eta agian, ematen dugun ekarpenaren ondorioz, agian hori baliagarri dateke gizonak beren berezko aldaketak balioesteko garaian planteatzen dituzten exigentzia mailak areagotzeko eta, horren ondorioz, urratzen duten ibilbidea uneoro berrikustera eramanez ditzakegu. Horrek beren diskurtsoen ebaluazio jarraitu bat eskatuko luke (kontzientzia gehien dutenen kasuan ebaluazioaren emaitza espero den horretatik gero eta gertuago dagoela ikusten da), eta inguru feminista batzuetatik, eskatu egiten zaie.

“Garrantzitsua da errepikatzea emakumei ez dagokigula gizonak aldatzeko eginkizuna”



Zorionez, gizon batzuek dagoeneko ez dute soilik emozio eta sentimenduez hitz egiten, izan ere, jakin badakite, beraiantzat maskulinitasunak dakartzan kostuak arintzea ekar badiezaieke ere, argi geratu dela ez dela aski emakumeekin dituzten botere harremanak eraldatzeko; aitzitik, beren pribilegioak jorratzeaz ere hitz egiten dute eta, are, batzuek “berdintasunaren amets” moduko bat ere aitortzen dute, eta horren alde dauden arren ez dute praktikan ipintzen, beste batzuek “emakumeen borrokarekiko sentitzen duten lilura” aipatzen dute, baina ondoren, errealitateak, oso tematia baita, zorritzarez agerian uzten du horrek zein neurri gutxian eragiten dituen aldaketa kualitatibo eta adierazgarriak, eta eraldaketa egiturazkoak emakumeen egunerokotasunean, eta egunerokotasun hori da lorpenak eta asmo onen adierazpenak kontrol argienaren eraginpean ipintzen diren esparrua.

Soilik egile bakar batzuk: Thiers-Vidal, Luis Bonino, Peter Szil, Jokin Azpiazu edo Luciano Fabbrik, aipatzen dute espezifikoki etika aldaketaren ardatz eragile nagusi modura, prozesu jarraituez hitz egiten dute eta ez aldiari behingo gertaerez, berezko lerroetan feminismoa erreproduzitzearen garrantziaz, kode maskulino berdina aldatu nahi diren haiekin interpelatzeaz, beren protagonismo premia eta lorpenak neurritz gain balioesteko beren joera zaintzeaz... Haatik, badirudi gaur egun hori ez dela ildo mediatikoena.

Ezin da ukatu gizonek emakumeekin dituzten harremanak egiturazko modu batean eraldatzen ez diren bitartean, emakumeak korrontearen aurka igeri egitera behartzen dituen bidegabekoa eta zorrotzegia den oztopo horren funtsezko parte izaten jarraitzen dutela. Badakigu emakumeentzat korrontearen aurka igeri egite hori ohiko bilakatu den arren eta aurrera egiten jarraitzen den arren, horrek sorrarazten duen higadura eta akidura (emakume askok hainbatetan naturalizatuak) egiturazko desberdintzaren euskarriaren parte direla, izan ere, gizonek beste arlo batzuetan xahutu ditzaketan energia eta eginahalak deribatzeri behartzen du.

4:

**Bortxaketaren kultura:
problematikak eta
alternatibak**



Sarrera

Atal honetan ikuspegi feminista batetik sexu indarkeria aztertzeko laneko mahaiaren aurkeztutako ideiak jasotzen dira.

Eduki horiek bost emakume adituk garatu zituzten hedabideek eraikitako bortxaketari buruzko kontakizunen, ikuspegi feminista batetik sexu indarkeriaren jorrazteko gainditu beharreko erronka legezko eta instituzionalen, sexu indarkeriak emakumeengan sorrarazten duen inpaktu traumatikoaren eta profesionalen prestakuntzan eta sexu indarkeriaren biktima direnen arretarako zerbitzuen horniduran kontuan izateko elementuen inguruko beren gogoetak partekatu zituztenak.

Laneko mahaiaren buruan berdintasun zuzendaria den Miren Elgarresta eta Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia den Belen Larrion izan ziren.

Aztergaia parte-hartzaile hauek jorratu zuten.

Parte-hartzaileak



Sorkuntza Positibo Elkartean intzidentzia politikoko koordinatzailea, *Violencias sexuales: un marco conceptual, teórico y ético* dokumentuaren egilekide eta *El abordaje de las violencias sexuales en Cataluña* ikerketaren koordinatzaile Indarkeria matxistan espezializatutako zerbitzuetako profesionalak prestatzen daukan esperientzia zabala abiapuntutzat hartuz, bere hitzaldian sexu indarkeriaren biktimak artatzen di-

tuzten profesionalen prestakuntzan nahiz indarkeria matxista mota hori jorrazteko politika publikoetan aintzatesteko alderdiak zehaztu zituen.



Nerea
Barjola

Doktore Feminismo eta Generoan eta Microfísica sexista del poder entsegua-
ren egilea, non hedabideek laurogeita
hamarreko hamarkadan Alcasserreko
krimena jorrazteko modua aztertu baitu.
Bere aurkezpenean bortxaketari buruzko
kontakizun ezberdinak nola eraikitzen
diren, sarritan erabiltzen den guda len-
goaia eta sexu indarkeriak "emakumeen
gorputza zer-nola hartzen" duen zehaztu
zuen.



Lorena
Garrido

Jurista feminista eta Genero eta Berdin-
tasuna eta Indarkeria Matxistak Gra-
duondoetako irakaslea Bartzelonako
Unibertsitate Autonomoan. Bere hitzal-
dian legeriaren arabera sexu indarkeria-
ren biktimek izan behar duten portaera
heroikoak dakartzan ondorio pertsonal
eta sozialak, nahiz sexu indarkeria ikus-
pegi feminista batetik jorraztean ageri
diren legezko hutsuneak eta instituzio al-
detiko erronkak jorratu zituen.



Anne
Campillo

Psikologo feminista, sexologoa eta psi-
kotraumatologian aditua, 18 urteko es-
perientzia duena Madrilgo Komunita-
tean sexu eta genero indarkeria pairatu
duten eta bizirik atera diren emakume,
adingabe eta gazteekin lan egiten.
Bere agerraldian sexu indarkeriak emaku-
me eta neskatoengan duen inpaktua
eta bizirik atera diren horiek "beren gor-
putzaren gainean eta konexioko beren
bizitzaren gainean boterea berrezartzea"
bilatzen duen esku-hartze sendabidezko
batek finkatu behar dituen helburuak
azaldu zituen.



María
Solé

Madrilgo Udaleko Genero Indarkeriaren
aurreko Prebentzio eta Arreta Saileko
burua. Sail horretatik ireki nahi zen
2019an sexu indarkeriaren biktimak
artatzeko lehendabiziko krisi-zentroa.
Aurkezpenean zentro horren ezaugarriak
eta haren arreta eredia sostengatzen
duen sexu indarkeriari buruzko ikuskera
azaldu zituen.

Saioaren laburpena

Saioan zehar, sexu indarkeria angelu ezberdinetatik jorratu zen (teorikoa, juridikoa, psikologikoa eta esku-hartzea). Horrela, problematika honen tratamenduari sakontasuna eman zitzaion eta hizlari bakoitzak eztabaida bere espezializazio eremutik jorratzeko aukera izan zen.

Hala, Barjolak sexu indarkeria korporazioko tekniketarik eta kontakizunetatik abiatuz jorratu zuen bitartean, Garridok legerietatik eta horiek sorrarazten dituzten hutsuneetatik abiatuz heldu zion gaiari, Campillok sexu indarkeriak emakumeengan eragindako trauma hartu zuen ardatz eta, azkenik, Pineda eta Solek sexu indarkeriaren biktimen arretari dagozkion erronkak (hala profesionalen prestakuntzari begirakoak nola arretarako eredu alternatiboen eraikuntzarakoak) jorratu zituzten.

Sexu indarkeriaren esparru teorikoa eta izu sexualari buruzko kontakizunaren eraikuntza

Bortxaketaren kulturari berez dagozkion problematiken dimentsioa zehazteko kontzeptuzko esparru feminista bat behar da, esparru ezberdinetan sexu indarkeriak, horien arrazoi eta adierazpenak, nola jorratu ulertzea ahalbidetzeko, horiek naturalizatzeko (lengoaia, praktika eta imajinarioak), baina baita isilarazteko interesa duen testuinguru sozial batean. Gainera, problematika hori ikuspegi politiko feminista batetik jorratzeak sexu indarkeria erregimen politiko-sexista batean iltzatutako egitura modura ikustea ahalbidetzen du, beretako kontakizunak egituratzean izu sexualaren teknikak gaineratzen dituen, hala esparru juridikoan nola mediatiko nahiz sinbolikoan.

Jardunaldian zehar Alcasserreko krimenak ikertu dituen Nerea Barjola izan zen argien adierazi zuena **sexu indarkeriaren kontakizuna** emakumeen gorputzean haragitzen den narrazio politiko modura aintzatestearen garrantzia, eta esparru feminista batetik aztertzean, **sexu arriskuari buruzko narrazio** gisa defini daitekeela aipatu zuen, emakumeak izu sexuala sortu eta birsortuz trebatzea bilatzen duena.

Adituaren arabera, arrisku sexualaren irudikapenek izu sexualaren diziplina sartzen dute emakumeen gorputzean, haien otzantasuna nahiz estatus quo sexuala mantentzea bilatuz. Arrisku sexualari buruzko kontakizunak sexu indarkeria sorrarazten ari dira etengabe lengoaiaren bidez; gainera, preskripzioko testu guztiek bezala, eraikuntzan den kontakizun horrengatik galdekatuak diren emakume horiei portaerazko arauak proposatzen dizkiete, emakumeek beren buruari debekatzen dizkieten espa-

zioak edota eginarazten dizkieten keinuak zehaztuz.

Bestalde, Montserrat Pinedak kontrolerako modu bezala soilik desberdintza eta indarkeria aipatzea gaitzetsi egin zuen, sexu indarkeriak zer diren eta zer-nola konfiguratzen diren ulertu behar delarik; bere ustez, emakumeenganako kontrola sexualitatearen bidez artikulatzen da beti, "baina **sexu askatasuna** ez da izaten sexu indarkeriaren gainean egiten ditugun analisisen ardatza. Sexu indarkeriaz hitz egiten dugunean ez gara ari soilik jazarpen jardunaz hitz egiten, egiturarekin, instituzioekin, indarkeriaren mekanismoaren zertarako horrekin zerikusia duten fenomeno batez ari gara mintzatzen.

Bortxaketaren kultura kontzeptu hedatuari buruz Pinedak adierazi zuenez, ez zaio aski sexu indarkeria azaltzeko, beste arrazoi batzuen artean bortxaketaren kultura patriarkatuaren kultura delako eta erreferentzia horren orokor horrek ez duelako laguntzen femininotasunari forma ematen dieten kontrolerako mekanismoetan sakontzen. Bere ustez garrantzitsua da aztertzea "nola sistema patriarkala gorputz egiten den, nola litekeen femininotasuna muga eta arriskuen bidez eraikitzea, maskulinitasuna bere baitarako baimenak eta pribilegioak ematearen bidez eraikitzen den bitartean".

Sexu indarkeriari buruzko narrazio juridikoa

Sexu indarkeriaren esparruan, egitura sistemiko patriarkala sostengatzen duen mekanismo modura ulertuta, **baimenaren** gaia funtsezko elementu modura jorratu zen, inpunitatearen kulturarekin, berbiktimizazioarekin, errugabetasun presuntzioarekin eta sexu indarkeriaren biktimizekiko indarkeria instituzionalarekin batera.

Lorena Garridok bere agerraldian Kode Penalak sexu indarkeria jorrotzeari dagokionez dituen mugak arakatu zituen. Hasteko adierazi zuenez, berdintasunaren eta indarkeriaren kontzeptuak elkarri hertsiki lotuta badaude ere giza eskubideen eta emakumeen eskubideen nazioarteko esparru juridikoetan, arazoa da politika publikoek **berdintasuna eta indarkeria bereizita** jorratu dituztela, eta horrek zenbaitetan "legea aldatzeko premia planteatzera eramán gaitu, berez egin behar duguna kontzeptualizazio berri batetik abiatuz politika publikoak birpentsatzea denean".

Hizlariak, era berean legeetan ematen den **sexu indarkeriaren naturalizazioa** aipatu zuen, adibide modura ipiniz sexu indarkeriari lotutako kontzeptu juridikoak "badirudiela azaldu behar ez ditugun kontuak azaltzen ari direla beti, izan ere, itxura batean mundu guztiak argi duela zer den *gertaeren izaera sexuala* legeak dioenean".

Indarkeriei buruzko araudiak biktimei ematen dien tratamenduari dagokienez, Garridok adierazi zuenez, sistema juridikoak **biktimen artean kategoriak** ezartzen ditu, izan ere, sexu erasoen eta sexu gehiegikerien arteko bereizketa egiten du, azken horiek (baita kontakizunetan ere) nolabaiteko anabasa-kaxoi modura hartuz, non lehen-dabizikoak baino "larritasun zertxobait gutxiago" duen guztia sartzen baita. Halaber, ohartarazi zuenez, emakumeen ahotsa susmopean egonik sistema judizialean, hori politika publikoei eskatu behar zaien aldaketa bat da.

Bestalde, adierazi zuenez, indarkeria pairatu duten emakumeen babesari erreparatzen dion Europako zuzentarauaren arabera lehen-dabizi babestu egin behar da eta ondoren sistema judizialak esku har dezake.

Sexu indarkeriak biktimengan sorrarazten duen inpaktua

Jardunaldiaren zati batean sexu indarkeriak emakumeengan duen inpaktua, sexu erasoaren ondorioz sorrarazitako krisiaren ezaugarriak eta gertakizun traumatikoaren aurrean biktimek erantzuteko dituzten sistemak aztertu ziren.

Anne Campillok, psikotraumatologian aditua denak, sexu indarkeriaren inpaktua **traumaren** definizioarekin bat datorrela azaldu zuen, kontuan izanik "gertakari horren aurrean ez gaudela prestatuta: sexu indarkeriaren errealitatea (eta mehatxua) etengabe izendatzen diguten arren, ez digute esan nola presta gaitzen hari aurre egiteko".

Azkenik, Campillok adierazi zuenez, gorabehera traumatiko baten aurrean, sexu indarkeria kasu, hiru erantzun eman daitezke: defentsa, ihesa eta hirugarren bat, oso baliagarria den defentsa mekanismo bat dena: **blokeoa, shock egoera, disoziazioa**. "Emakumeek esaten dutenean 'ez dutela ezer egin' erantzun hori baliozkotzat hartu behar dugu, arriskuaren aurrean babesteko mekanismo garrantzitsu bat delako.

Sexu indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta

Bere lan esperientzietatik abiatuz, hala krisi-zentroak diseinatuz nola profesionalak prestatuz, Maria Sole eta Montserrat Pinedak sexu indarkeriaren biktimen **arreta ereduen** problematika espezifiko ugari jorratu zituzten, esate baterako, esku-hartzearen kalitatearen neurketa, arretaren pribatizazioa edo hartara bideratutako metodologia eta baliabideak.

Hurrengo orrietan sakontasun gehiagoz garatzen dira ideia horiek.

Jorratutako gaiak

1. Sexu indarkeriaren esparru teorikoa eta izu sexualari buruzko kontakizunaren eraikuntza

Hizlari ugari, zehazki, Barjola, Garrido eta Pinedak bere hitzaldien zati handi bat sexu indarkeria egiturazko kontuztat ulertzea ahalbidetzen duen esparru teorikoa planteatzen eman zuten, sistema patriarkalaren funtsezko zutabea dela kontuan izanik.

Nerea Barjolak adierazi zuen emakumeok dugun izu horrek baduela izendatzaile komun bat, hots, sistema patriarkala, eta sexu indarkeria sistema zital baten egiturazko parte dela, gure espazioan manten gaitezen erabiltzen duena indarkeria hori. Lorena Garridok, aldez, aparatu juridikoan indarkeriaren egituraketa esparru batzuetan definitzeko zenbait hitz dauden arren, sexualitatearen esparruan ez direla modu berean aplikatzen planteatu zuen; adibidez, juridikoki, bi pertsona edo gehiago aski dira krimen antolatuko talde bat eratzeko eta, halere, definizio hori ez da aplikatzen sexu erasoak egiteko ados jarri diren bi gizon edo gehiago daudenean. "Kontzeptu larrigarrienak, esate baterako, krimen antolatua, ez dira aplikatzen emakumeok delituaren biktima garenean; gehienbat zigor txikiagoak dakartzatenak aplikatzen dira, inpunitate gehiagokoak".

Montserrat Pinedak, bestalde, testuinguru sistemikoak kontuan izan eta egiturazkoa denaren garrantzia balioestea beharrezkoa dela azpimarratu zuen, izan ere, mitoak, aurreiritziak eta estereotipoak ontzat eman eta erreproduzitu egiten dituzte instituzioek, jarrera indibidualen inpaktua biderkatu egiten dutelarik; gainera, sexu indarkeria normalean pribatuaren edo mikroaren esferarekin lotzen denez, are beharrezkoagoa da kontzeptualizazioaren eta lengoaiaren esparruak aldarrikatzea, beraz, sexu indarke-

“Sexu indarkeriaren inguruan gogoeta egiten dugunean emakumeak nahiz sistema patriarkalaren abolizioa erdigunean ipini behar dira.”

riaren inguruan gogoeta egiten dugunean emakumeak nahiz sistema patriarkalaren abolizioa erdigunean ipini behar dira, izan ere, kontua ez da soilik indarkeria matxistak ikusaraztea, izebergaren eskeman urpean daudenak, begien bistatik at, baizik eta “izeberga berotu egin behar dugu urtzen den arte”, hots, indarkeriak abolitu egin behar ditugu.

Lorenak oroitarazi zuenez, Martha Nussbaume¹ planteatutako emakumeen eskubideen dekalogoan sexu indarkeriarekin harreman zuzena duten zenbait jasotzen dira: “Bizitzeko moduko bizitza bat, osasuna eta osotasun fisikoa izateko eskubidea; erasoan aurrean babestua izateko eskubidea, sexu indarkeria barne; sexu plazerarekin gozatzeko aukera eta ugalketaren esparruan erabakitzekoa”.

1.2. Kontakizunak eta izu sexuala

Bere tesia izu sexualaren inguruan garatu zuen Nerea Barjolaren arabera, sexu indarkeria testuinguruan ipintzeko egiturak sexuarekin lotutako edozeren inguruan izu sakona sortzen duten kontakizunen artikulazioarekin lotzen da, eta izu horrek ez du kutsu pribatu bat, politikoa baizik. Izu sexuala ez da beldurra eragiten duen kontakizun batetik abiatuta sortzen, baizik eta emakumeek beren bizitzan zehar egiten duten gorputz ikasketa bat da; arrisku sexualari buruzko irudikapenak kategoria politiko-sexista bilakatzen dira, izu sexuala adierazi (eta gorputzu) eta bortxaketaren proiektu politikoa gauzatzen dutelako.

Izu sexualari eta bortxaketaren proiektu politikoari dago-kionez, isiltasunaren tabua nabarmendu zuen, emakumeen gorputzean txertatuta egoteaz gain zauri kolektibo ireki bat dena, Alcasserreko kasuan agerian geratu zen moduan. Bertan garrantzitsuena ez da hiru neraberen gainean eragin zen tortura sexuala bakarrik eta eskusiboki, baizik eta gertaera horrek, kontakizunen eskutik, gainerako emakume gazteengan sorrarazten duen indarkeria.

¹ Iparramerikako filosofo garaikidea

Arrisku sexualari buruzko kontakizunen esanahian sakonduz, adierazi zuen hauek sexu indarkeria transmititzeko modu oso zehatza direla, izan ere, komunikazio sozialean heriotza arrisku etengabearen den bizitza bat dagoenaren nozioa- *bizitza soila*- sartzen dute. Mezu hori da kontakizun horiek guztiek duten irakaspen elementua. Gainera, kontakizun horiek gorputz sozialak eraikiak dira krimena kutsu politikoan birpentsatzea saihestu eta status quo sexuarean aldaketa bat egon dadila ekiditeko. Barjolak dioenez, okerrena da “mekanismo oso irristakor eta eraginkorra dela, pertsona guztiok artikulatzen dugun boterearen mikrofisika sexistarekin zerikusia duena”

Izu sexuala eraikitzen duten kontakizunen konfigurazio mediatiko eta gorputzeko horri, Garridok esparru juridikoan gertatzen dena gaineratu zion: alde batetik, sexu indarkeriari buruzko legeria berez emakumeen gorputzen gaineko kontrolerako mekanismo bat da; beste alde batetik, epaileek ere kontakizunak egiten dituzte epaietan igortzen dituzten mezuekin; eta, azkenik, sexu indarkeriaren biktimen lekukotzak zalantzan jartzen diren bakoitzean indarkeria instituzionala gertatu ez ezik, izu sexualaren kontakizuna berretsi egiten da, emakumeen kontakizunei sineskortasuna eman beharrean. Garridok, gainera, onarpen publiko handia duten kontakizunak zalantzan ipintzearen premia adierazi zuen (Alcasser eta Manada kasuak adibidez), izan ere, horietan eta politika publikoetan ezezagunek eragindako sexu indarkeria gehiago azpimarratu arren, ez da ahantzi behar sexu indarkeria gehienbat, estatistikei so, familia esparruetan gertatzen dela, pertsona hurbileko eta ezagunen eskutik.

Galdetzen denean, zer bilatu nahi da izu sexualarekin? Barjolak erantzun zuen lehenik eta behin gizonen emakumeen bizitzen eta gorputzen gainean bidegabeki dituzten dituzten eskubideak negoziatu eta birnegoziatzeko espazioak lausotzea bilatzen dela; bigarrenik, boterearen mikrofisika sexista martxan jartzea, hau da, gizarteak menderakuntza eta kontrolerako espazio horiei estaldura emateko dituen modu ezberdinak; eta, azkenik, tortura eta sexu eraso naturalizatzea. Agertoki horiek guztiek arrisku sexualari buruzko kontakizun bat osatzen dute, eta horren ondorioz, indarkeria pairatu ez duten emaku-

“Sexu indarkeria gehienbat, estatistikei so, familia esparruetan gertatzen dela, pertsona hurbileko eta ezagunen eskutik.”

meak ere, arriskuan bizi dira kontakizunaren bidez. "Izu sexuala oso ongi eta modu sotilean antolatutako egitura bat da, gizartearen muinean horren modu bizian sartzen dena ezen mekanismo oso ahaltsu modura ulertu behar baitugu".

Adierazi zuenez, erresistentzia kontakizunak ere badaude, izan ere, emakumeek ez dute erraz amore ematen izu sexualaren otzantasunaren eta diziplinaren aurrean, baizik eta erresistentzia ipintzen diote mehatxuari beren gorputz ibilbideetatik: "Egia da Alcasserrekoa izu sexualari buruzko oso kontakizun gordina dela baina, era berean, izu sexualari erresistentzia agertzeari buruzko kontakizun bat ere bada. Egia da Alcasser kasuaren inpaktua pairatu zuten emakume askok auto stop egiteari utzi ziotela, baina beranduago auto stop egiten hasi ziren berriro, gauz ibiltzen, beren bizitza egiten jarraitu zuten. Eta, are gehiago, horren ahaltsuak diren ordezkatzeko eta errepresio mekanismo horiek auto defentsa feministako gorputz ibilbide bat ireki dute emakume askorengan. Eraildako hiru nerabeen lagun bat orain auto defentsako irakaslea da; beraz, izu sexuala gertatzen den modu berean, erresistentziak eta disidentziak sortzen dira".

2. Sexu indarkeriari buruzko narrazio juridikoa

2.1. Baimenaren amarrua

Jardunaldian jorratu zen gai garrantzitsu bat baimenarena eta hura inguratzen duen inpunitatearen kulturarena da. Nerea Barjolak planteatu zuen baimena erasoaren arduradun den subjektua lausotzea eta, are modu zitalagoan, arreta emakumeengan ipintzea helburu duen kategoria patriarkal bat dela, une horretan defendatzeko bere gaitasuna eta bai ala ez esateko ahalmena zailantzan ipiniz. "Nahiko frogatuta dago emakume askok, une horretan dauden pertsonarekin harreman sexual bat izateko gogorik ez dutenak, baiezkoa esaten dutela nahiz eta beren gorputza ezezkoa ari den adierazten; hori sexu indarkeria da eta emakume askok pairatzen dute

egunero, baina ez diogu garrantzirik ematen gertatzen zaienari, kontzeptualizatu ere ezin ditugu egin, eta, horrenbestez, salatu ere ez”.

Ildo beretik, Montserrat Pinedak beharrezkotzat jo zuen baimen ematea gai politiko modura aztertzea, kaltea eta kalte horrek merezi duen zigor erantzuna aintzatestearekin dago lotuta, eta sexu indarkeria zigorgabea izatea eragiten duten mekanismoekin. “Baimenaren tratamendu juridikoak ez du soilik zerikusirik igorriko den epaiarekin; emakumeen sineskortasuna eta inpunitatea eraikitzeke modua ere auzian dago”. Gainera, adierazi zuenez, negoziatioaren logika ez zaio aplikatzen baimenaren kasuari eta, aitzitik, baieitzoaren aldera egiten duen baimena eraikitzeke ahalegina egiten da gehiago, hots, *Ez da ez horretatik Soilik bai baldin bada* horretara pasatzea, baimena zein baldintza politikotan gertatzen den ere kontuan izanik, hau da, emakume bat bere bizitzaren subjektua den ala ez aintzatesten ote den.

Lorena Garridok, eskuaren irudiaren inguruan hitz egiten², adierazi zuen emakumeei gero eta gehiago eskatzen zaiela portaera heroikoa izan dezatela sexu indarkeriaren aurrean, beren gaitzespena erakuts dezatela, esku har dezatela, erresistentzia ager dezatela... baina indarkeriarik ez pairatzeko eskubidea ez dela azpimarratzen. Ildo horretatik epai judizialeetan lesio traumatikoen eta trauma osteko estresaren inguruko kontakizun bat egiten da, emakumeek erresistentzia agertzeko duten betebeharraren ideia indartu egiten duena. Gainera, ukoaren adierazpenei baimenaren adiera esplizituari baino balio handiagoa ematen zaionean, sistema juridikoek sexu indarkeriaren inpunitatea indartu egiten dute. “Nik baimena modu argian adierazi beharko litzatekeela, adiskide sexualari gauza bakoitza nahi duen ala ez galdetzearen ideia herabetuz, berresten dudanean, galde egiten didaten gizonekin eztabaida sakonak izan ditut. Zera esaten diet: Bai, bai, sexu jardun bakoitzerako galdetu egin behar da, izan ere, emakume batek sexu jardun bat baimendu ahal izan zuen, eta ez beste bat”.

² La Manadak 2016ko San Fermin jaietan egindako sexu erasoaren ondorioz Iruñean izandako manifestaldian identifikatu dituen indarkeriaren aurkako irudia.



“Baimena emakumeekin lan egiteko baino gizonen ardura da gehiago.”

Aipatu hiru hizlarien ustetan baimena emakumeekin lan egiteko baino gizonen ardura da gehiago, eta hirurak bat etorri ziren horretan. Gizonak dira baimena zer den eta zer ez ikasi behar dutenak, nahiz eta, egiaz, bada-kiten oso ongi zer den baimena eta badakite, era be-rean, zein botere duten hura kontuan ez izatea eraba-kitzen dutenean; ezagutzen dute legitimitatea eta duten inpunitatea, eta badakite erasoak pairatu duen emaku-meak esandako hitz bakoitza zalantzan ipiniko dela auzitegietan.

Emakumeen baimenaren gaiaren eztabaidan funtzio-natzen duen logika beren autonomia eta askatasuna negoziatzearena da, eta hori ez da egokia, adierazi zuen Pinedak. “Profesionalekin lan egiten dudanean gi-zonei beti galdera hau egiten diet: ‘Noiz erakutsi zizuten ez bortxatzen?’”. Eta erantzuna adierazgarria da: sekula ez. Beraz, argi dago, baimenaren gaineko gure diskurtsoa sekula ez hori ikusarazten eraiki behar dugu”.

2.2. Sineskortasuna eta inpunitatea

Sexu indarkeria mekanismo ezberdinen bidez ematen da, eta horietako asko inpunitatean oinarritzen dira. Inpunitate hori ez da judiziala soilik, nahiz eta legeriak eta epaiek ekarpen sendoa egiten dioten biktimak zer-no-lakoa izan behar duen eta zein jokabide agertu behar duen agintzen duen kontakizunari. Iruñeko kasua³, Lo-rena Garridok adierazi zuenez, baliagarri izan da mugi-mendu feministak erreklama dezagun biktimaren ideario hori ez dela emakumeok duguna, baina oraindik bide asko dago aurretik egiteko ez-profil hori zein izan behar den zehazteko.

Halaber, nabarmendu zuen errugabetasunaren presuntzioa sistema judizialak duen zama bat dela, izan ere, sendotu eta bermatuen dagoen eskubideetako bat da, sistema juridiko patriarkalak “zeharo” defendatzen duena. Eta esan zuenez, errugabetasunaren presuntzioa horren in-

³ 2016an San Fermin jaietan izandako sexu erasoaz ari da. Kasua sexu indarkeriaren gainean horren paradigmatikoa da, ezen Wikipedian bere sarrera baitu: https://es.wikipedia.org/wiki/Caso_de_La_Manada

dartsua da ezen hemen ez baitugu oraindik beste ordenamendu juridiko batzuetan bezala funtzionatzen, adingabeen aurkako sexu indarkeriaren salaketa edo susmo baten aurrean bisiten erregimena bertan behera geratu behar dela uste baitute, zalantzan ipini gabe familia eta haien harreman afektiboak krisian ipintzen dituen gai batean zergatik gezurra esan behar duen.

Anne Campillok, ikuspegi psikologikotik, sineskortasuna ukatzen zaien emakumeen gorputzetan gertatzen denari buruz sakondu zuen. Sexu indarkeriaren kasuan portaera otzanek babes funtzioa betetzen dute, izan ere, nahi duena lortzeko indarkeria gehiago erabiltzen duen erasotzailea uxatu egiten dute, eta gainera biktima anesthesiatu egiten dute, deskonektatzera ere iristen delarik. Erasokortasunik eza ezaugarri duten portaera horiek (obediencia automatikoa, menderakuntza babesgabea) ezin dira erasotzaileekin kolaborazio izatea modura ulertu, baizik eta biktimak bizirauteko aukerak areagotzeko duen mekanismo gisa.

Halaber, batzuetan gertatzen da, pairatutako indarkeria gogoan ez gordetzeko, biktimak ez duela gertatutakoaz hitz egiten, eta hitz egiten badu errua bere buruari botaz edo bere buruari sineskortasuna kenduz egiten du, hori aparatatu judizialak emakumeen kontakizunak arintzeko erabiltzen dituen mekanismo anitzetara gaineratzen da. Garridok zenbait emakumeren kasuak azaldu zituen, non sexu indarkeria salatu ostean, sistema judizialak haien sineskortasunerako oztopo modura erasotzaileekin nolabait harremanetan izatearen alde egin izanaren edozein zantzu ipintzen zuen, nahikoa izanik pertsona talde batekin argazki bat ateratzea, baldin eta argazkian erasotzaileak agertzen baziren.

Aparatu Judizialak biktimen aurka eragiten duen indarkeria instituzionalaren aurka, emakumeek pairatu dituzten sexu indarkeriak ikusezin eginez eta haiek babesik gabe utziz, derrigorrezkoa da emakume horiek egoera hori aurreikusteko akonpainamendu profesional bat izatea, epaiketek zer-nola funtzionatzen duten ezagutzen duena edo txostenak nola egin dakiena, biktimak egiaz

“Pairatutako indarkeria gogoan ez gordetzeko, biktimak ez duela gertatutakoaz hitz egiten.”

entzunak izatea lortzeko xedez. Biktimek, era berean, kalte eta trauman adituak diren profesionalen laguntza izan behar dute, halako inpaktuak defentsaren kontaktuzunera gaineratu ahal izateko.

Azkenik, hizlarien arabera sistema judizialaren eraldaketa sakona bilatzearekin batera, sexu indarkeria kasuan jarduteko moduaren inguruko pedagogia egin behar da emakumeekin, eta guztiak bat etorri ziren horretan ere, izan ere, kontakizun judizialak egin behar duten lehen-dabiziko gauza telefonoa hartu eta poliziari deitzea dela adierazten duen bitartean, jardun onek erakusten duteenez, lehendabizi osasun sistemak esku hartu behar du, are frogak gordean mantentzeko, eta ondoren emakumeak libreki erabaki behar du salaketa ipini nahi duen ala ez.

3. Sexu indarkeriak biktimengan sorrarazten duen inpaktua

Sexu indarkeriaren biktima diren emakumeak nola artatu joratu aurretik, Anne Campillok alde aurretik jazoera traumatikoaren ondorioz sortutako krisiaren ezaugarri zenbait aintzatestea proposatu zuen. Hasteko, beti galdera bat luzatu behar da, hots, “zer da biktimarentzat okerre-na”, izan ere, askotan okerre-na ez da jazoera traumatikoa, baizik eta ondoren norbaiten babesa ez jasotzea. Bestalde, kontuan izan behar da sarpena pairatu duten emakumeek eta halakorik pairatu ez duten beste batzuek zama traumatikoa izan dezaketela, gorputzean sintoma berdinak agertu ez arren.

Garrantzitsua da sexu indarkeria pairatu duten emakumeek kontaktzen dituzten disoziazio-ko bizipenak aintzatestea. Badira bortxaketa pairatu ostean itxuraz modu normalean funtzionatzen jarraitu duten emakumeak, beren sistema arrazionala gertatu zenaren inguruan ez pentsatzeaz eta jazoera traumatikoarekin zerikusia duena oroitzea ekiditeaz arduratzen delako; haatik, haren alde emozionala uneoro “Aizu, hau gertatu egin da” esaten ari zaio eta etengabe trauma hura alderdi emozio-

nal edota gorputzekoan bizitzen ari da berriro.

Disoziazio hori, era berean, jazoera traumatikoan zehar ere gerta daiteke eta ondoren emakumeak berak hura nola bizi zuen adierazteko egiten duen kontakizunean oroitzeta gerta daiteke, hurrengo lekukotzan ikus daitekeen moduan: "Ez sentitzearen ahalmena dut, izugarria da, hilik edo izozturik egongo banintz bezala da, naizen pertsona horretatik aterako banintz bezala; hor dago une horretan eta guztiari men egiten dio, baina nik ez dut sentitzen, hil egiten naiz, hil egiten naiz ezin defendatzeagatik, ezin oihu egiteagatik, ezin izateagatik". Traumatizazioarekin lotutako disoziazioa ezin da sintoma gisa pentsatu, ezta defentsarako mekanismo modura ere, baizik eta gertakizun traumatiko bat bizi ostean psikismoa berregituratzeko mekanismo gisa.

Sexu indarkeriaren inpaktua esperientzia pertsonaletik harago doa eta arretarako politiketan izu sexualaren narrazioek, ez soilik zuzenean bizi dituenarengan, baizik eta entzun, irakurri eta bere gorputz esperientzia berrezkoaren barnean txertatzen dituenarengan dituzten ondorioak aintzatetsi beharko lirateke.

Nerea Barjolak aipatu zuen, Alcaassereko kasuan, emakume askok urteak igaro dituztela loezinarekin, krimenaren inguruan zehaztu zitzaizkien xehetasun guztiak behin eta berriz irudikatzen dituztelako, beste batzuei irudi horiek etortzen zaizkie sexu harreman bat izaten ari direnean... Berak egiten dituen bizitzako istorioetan emakumeak bere haurtzaroaren inguruan duen oroitzapen batez hitz egiten hasten da eta prozesuaren une jakin batean galdera hau luzatzen du: 'Zer oroitzen duzu Alcaassereko krimenaren inguruan, eta aski da 'Alcasser' esatearekin izu sexualaren diziplina aktiba dadin eta emakume askorengan negarra, isiltasuna edota blokeoa sorrarazten du horrek.... barnean oso blokeatuta duten zerbait da; beste batzuen kasuan, Alcaasseren inguruan oroitzen dutena esaten didatenean, arrisku sexualari, torturei eta xehetasun beldurgarrien inguruko kontakizun mediatikoa errepikatzen dute...

Izu sexualaren biktima horiek ez dute legitimotasunik sentitzen psikoloarengana joan eta esateko 'arrisku sexualari buruzko kontakizun honek sakon intoxikatu nau, sekulako beldurra sorrarazten dit eta arazoak ematen dizkit nire bizitzan, izan ere, ezin dut lorik egin edo ezin dut sexu harreman bat eduki nire bikotearekin'. Nola jorratzen da inpaktu hori? Gorputzean modu bortitzean irudikatutako indarkeria modura aitortu behar da.

3.1. Sexu indarkeriak haurtzaroan sorrarazten duen inpaktua

“Sexu indarkeria pairatzen duten neskatoak, edozein modutara ere, bere hurbilen duten ingurunearekiko, familiarekiko, lotura mantentzen saiatzen dira, lotura izatea ezinbestekoa baita, instintiboa da.”

Haurrek sexu indarkeria pairatzen dutenean, trauma ez da gertaera isolatu edo urakan baten modura bizitzen, izan ere, beste gizaki batek eragindako trauma bat da, gainera, orokorrean, kronikoa dena, haurtzaroan indarkeria ez baita saio bakarrean ematen. Neskatoek min sakonena alboratzen ikasten dute, oroitzapen horiek amnesian gordetzen, denboraren eta espazioaren zentzua aldatzen; nortasun zatikatua, disoziaziorako beren defentsak eratzea, horiek dira egokitzeko bere moduak. Emozioen erregulazio patologiko horri esker neskatoak bizirautea lortzen du, izan ere, nolabaiteko normaltasunaren itxura hori da hala ingurune jazarleak nola gizarteak nahi duena.

Campillok adierazi zuenez, sexu indarkeria pairatzen duten neskatoak, edozein modutara ere, bere hurbilen duten ingurunearekiko, familiarekiko, lotura mantentzen saiatzen dira, lotura izatea ezinbestekoa baita, instintiboa da. Hala, haurtzaroan sexu jazarpen bat dagoeanean, beti dago indarkeria psikologikoa, fisikoa, abandonua eta zabarkeria, eta erasotzailea aita, aitaordea, aitona, anaia edota osaba baldin bada, beti dago familia barneko indarkeria, izan ere, biktimek egunero hautematen dute haiek babesteko ardura duten beste heldu batzuek ez dutela hala egiten.

Horren ondorioz, indarkeria pairatu duten neskatoek *Niaren* kontzeptua zeharo kontrakoa zaien giro batean garatzen dute, beren erasotzaileekin lehen mailako harremana duena ezaugarri, eta giro horretan garatu behar

dituzte bere nortasuna zein beren burua erregulatzeko, ekimenari heltzeko, intimitaterako eta beren burua kontsolatzeko gaitasuna. Erregulazio emozionala ez da instintibo, gaitasun emozionalak areagotzen diren heinean eratu eta indartzen da eta loturaren bidez ikasten da hura erregulatzeko; neskatoek ahal duten guztia egiten dute beren loturak mantentzeko, horregatik, segurua dirudien atxikimendu bat edo itxuraz osasungarria den lotura agertzen denean, susmoa azaleratu behar da, izan ere, lifekeena da jazarpenarekin zerikusia duen guztia kontzientziatik baztertu izana.

4. Sexu indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta

Sexu indarkeriaren biktimen arreta egoki baterako eredu elementu modura berreskuratzeko alderdietako bat entzutea eta informazioa da, prebentzioa osatzen duten elementu modura. Prebentzio hori sexu heziketan oinarrituta egon behar da eta haren helburua bortxaketaren kultura errotik moztea izan behar da, gizonekin baimenaren ulermena jorratuz eta emakumeekin erresistentziak eta sexu indarkeriatik defendatzeko garatu diren babeserako mekanismoak jorratuz.

Ikuspegi terapeutikotik, azpimarra loturaren erreparazioan eta emakumeen beren gorputzaren eta kontakizunaren gaineko ahalmenean ipini beharko litzateke. Horretarako, emakumeen arretan indarkeria egoeretan arriskuak murrizteko moduari buruzko estrategiak gaineratzen dituzten profesionalak behar dira. Ikuspegi legal bati so, ezinbestekoa da biktimen portaera bakarra irudikatzen duten eta "izan behar" hori betetzen ez duten haiek zalantzan ipintzen dituzten kontakizun sozial eta juridikoak ezbaian ipintzea. Azkenik, onartzen baldin badugu izu sexualaren kontakizunak indarkeria modu bati direla eta, horrenbestez, kontakizun horiekin kalte-urik sentitzen diren emakumeak artatuak izan beharko liriatekeela, zerbitzuak egokitu egin beharko liriateke bortxaketaren kulturaren egiturazko izaerari erantzun bat emateko.

“Ikuspegi terapeutikotik, azpimarra loturaren erreparazioan eta emakumeen beren gorputzaren eta kontakizunaren gaineko ahalmenean ipini beharko litzateke.”

4.1. Paradigmak eta eredu- konfigurazioa

Arreta ereduak indarkeriak eta horien inguruneak modu etikoan eta lengoaiari dagokionez modu zehatzean izendatzen dituen ikuspegi feminista batetik konfiguratzeko hasierako elementu bat; ereduaren proposatzen duten subjektuak nortzuk diren eta jorraketa bera eta dauden baliabideak, nahiz zerbitzuei eta, oro har, arretari begira dauden mugak nori zuzentzen zaizkion zehaztekoa. Eta beti gogoan izanik biktimak artatuko dituzten langileen prestakuntza erabakigarria dela ereduaren funtzionamenduari so.

Sarritan arreta ereduak nahastu egiten dira emandako zerbitzuekin; hala, aplikatzen ari den ereduaren onurak eta zailtasunak aztertu nahi dira, baina azkenik zerbitzuen koordinazioaz edo zerbitzu espezializatuen prestazioaz hitz egiten da. Sexu indarkeria egiturazko kontu bezala agertzen duen ikuspegia berreskuratuz, arreta ereduari buruz planteatzeko funtsezko alderdi bat da sexu indarkerien bidez sostengatzen den patriarkatua ikusarazi eta dekonstruitzeko mekanismoak artikulatzeko modua; patriarkatuaren oinarrian dauden arrisku eta izu sexualei buruzko ideiak desnaturalizatzeko modua.

Arlo juridikoan, arreta ereduak eraginkorrak izan daitezkeen Kode Penalaren erreforma bati ekin beharko litzaioke, emakumeen sexu askatasun eta autonomiaren ideiarekin koherente bilakatzeko, eta gaur egun sexu indarkeriekin lotutako delituen inguruan dagoen dispertsioa ekiditeko (alde batetik salerosketa, beste alde batetik mutilazio genitala, beste artikulatu batzuetan jasotzen diren sexu eraso eta gehiegikeriak). Bestalde, problematika honen aurrean instituzio publikoek dituzten funtzioak eta erantzukizunak ezartzen dituzten nazioarteko araudiei erreparatzea: emakumeak entzun, sinetsi, babestu, frogak jaso eta aukerak ematea, nola eta noiz salatu erabaki dezaten.

Halaber, koordinazio bat egon beharko litzateke arreta zerbitzuen eta sexu indarkeriaren arretaz arduratzen den

fiskaltzaren artean, eta fiskaltza horrek krisian artatzeko zentroekin kolaboratzea eskatu beharko litzateke.

Madrilgo Udalean irekiko den krisi-zentroari dagokionez, Solek azaldu zuenez, udal sailak prebentziorako ekintza ezberdinak ditu buruan, esate baterako, festetan kanpainak puntu moreekin, gaueko aisialdirako lokaletan sexu indarkeriaren aurrean esku hartzeko protokolo bat, eta orain arte Madrilen erabiltzen den sexu erasoen aurreko erantzunen protokoloaren erreforma bat ere bai, azken hori "aberrazio bat" dela esan zuelarik.

Hauetara dira esku-hartzearen oinarri diren printzipio gidariak: sarbide unibertsala, autodeterminazioarekiko errespetua, emakume bakoitzaren denbora eta prozesuekikoa, diziplina aniztasuna, kultura aniztasuna, indibidualizazioa, konfidentzialtasuna eta sare-lana beste baliabide batzuekin; bestalde, eredu irizpide hauetan oinarritzen da:

- Emakumeak udal administrazioak bermatu behar dituen eskubideen titular dira.
- Esku-hartzea emakumeen ahalduzeari eta generoberdintasunari begira dago, aniztasunaren arreta eta baliabidearen irisgarritasun fisiko, ekonomiko eta linguistikoa gidatzen duen sekzio arteko ikuspegi batetik,
- Bizirik ateratako biktime bakoitzaren premia indibidualetarako egokigarritasuna.
- Emakumeen parte-hartzea, esku hartzeko planaren diseinuan nahiz jasotako arretaren ebaluazioan.

Halaber, azaldu zuenez, zentroak helburu hauek ditu:

- Berriki edo iraganean, sexu indarkeria saiakera bat edo egoera bat bizi izan duten emakumeei akonpainamendua egin eta aholkularitza ematea, erabakiak hartzerakoan eta egoeraren ondoriozko aztarnak eratzeko prozesuan diziplina

**“Campillok
proposatutako
esku-hartze
psikologikoko
ereduaren funtsa
Judy Hermanek,
berreskurapene-
ra iristeko
planteatzen duen
ibilbidea da.”**

anitzeko esku-hartze baten bidez, epe labur eta ertainera.

- Telefono bidezko zein presentziazko informazioa ematea, 24 orduz, hala biktimei nola, oro har, herritarrei.
- Beren eskubideak erabil ditzatela bermatzea.
- Berbiktimizazioa ekiditea.
- Egoera jorratzeko fase horietan guztietan emakumeek pairatzen duten indarkeria instituzionala, ahal den heinean, arintzea.

Zentroko baliabideren hartzaille den herritargoa hiru zirkulu zentrokidez dago ordezkaturia: erdiko zirkuluan sexu indarkeriaren aurrean bizirik ateratako emakumeak daude, haien adina, sexu indarkeria pairatu zuten beren bizitzako unea, haien egoera administratiboa edo balizko salaketaren aurreko beren prestutasuna edozein delarik ere; bigarren zirkuluan biktimen familia ingurunea kokatzen da, biktimen errehabilitazio prozesuan nola lagun dezaketen jakiteko laguntza eta orientazioa ematen zaielarik, eskuragarri dauden baliabide eta alternatibek, biktimek erabil ditzaketen eskubideen eta horiek erabiltzeko moduaren inguruko informazioa ematen zaie, hala telefonoz nola modu presentziazkoan; eta, hirugarren zirkuluan herritarrek kokatzen dira, orokorrean hartuta.

4.2. Krisiak esku hartzeko metodologiak

Campillok proposatutako esku-hartze psikologikoko ereduaren funtsa Judy Hermanek, trauman adituan den psikologo feministak, berreskurapenera iristeko planteatzen duen ibilbidea da: pixkanakako aldaketa bat, aurreikusi ezin den arriskuaren sentipenetik segurtasun fidagarri baten lorpena, trauma disoziatutik hautemandako oroitzapenera, eta estigmatizatutako isolamendutik gizarte izaeraren berrezarpenera doana; esku-hartze horrek segurtasuna lortzea, arazoari izena ipintzea, kontrola berrezartzea, ingurune seguru bat eraikitzea, egoera traumatikoa eratzeko, bizitako istorioa berreraikitzea, galerari negar egitea (bizi izan ez den hori) eta, azkenik, birkonexioa lortzea, norberaren buruarekin bat egin eta gainetik pertsonekin berriro konektatzea du helburutzat.

Eskema honetan terapiaren xedea emakumeen berreskurapen integrala da. Horregatik, oso garrantzitsua da haur bezala ez tratatzea eta behin eta berriz haiek bo-terera, beren gorputzera, itzularaztea. Esku-hartze eredu feminista bat da, jorratzeko modu psikotraumatologiko feminista bat, non funtsezkoa den emakumeekiko lotura terapeutikoa ezartzea. Teknika asko izan ditzakegu, baina loturarik finkatzen ez baldin badugu, prozesuak ez du funtzionatzen, izan ere, pertsona barneko trauma ezin da isolamenduan landu. Jarraibideak dira sineskortasuna ematea, haien emozioak baliozkotzea eta esperientziari beste esanahi bat ematea, esku-hartzeak sako-neko sentimenduak mugiarazi ditzakeela jakinda, baina, era berean, emakumeek duten erresilientzia eta berreskurapenerako gaitasuna ikaragarria dela.

Pinedak bere agerraldian emakumeei beren segurtasunerako planak egiteko eta sexu indarkeriako testuingurutan arriskuak murrizten ikasteko tresnak emateari begira dagoen ikuspegi bat izatearen garrantzia aipatu zuen. Esku-hartze ildo horretan profesionalak prestatuz eta 'traumaren esparrutik' at lan eginez, posible da emakumeen ahalduz eta autonomian erreparatzea, eta Campillok azaldutako krisialdietako esku-hartzearen ikuspegia ordeztu edo osatzeko joraketak abian jartzea, sexu indarkeriak emakumeei, guztiei, nola eragiten dien eta inpaktu hori autodefentsa feminista bakarrik ez, bai-zik eta erantzun eraldatzailea izango den erantzun femi-nista nola bilakatzen den jorratze aldera.

Garridok krisialdian esku-hartzeko erduei buruzko bere zalantzak adierazi zituen, nabarmenduz 'krisia' hitzak sinbolikoari dagokionez durundi anitz dituela eta denborarekin lotzen dela, hau da, irudi luke emakumea eraso gertatu bezain laster artatuko luketela, eta ez bi aste beranduago, adibidez; krisialdian esku-hartzea, era berean, baztertzailerik izan daiteke gizarte erasoak oraindik minez ez ezik, pribatutasun eta lotsa ideia batek estalita dauden gizarte testuinguruetan eta, horrenbestez, ez da laguntzarik bilatzen lehendabiziko une batean. Eredu hori zalantzan jartzen jarraitu du eta honako galdera luzatu du: Zer portaera izan beharko lukeela suposatzen da trauma osteko estresa duen emakume batek? Justi-

“Terapiaren xedea emakumeen berreskurapen integrala da. Horregatik, oso garrantzitsua da haur bezala ez tratatzea.”

ziak emakumeen kontakizuna entzun dezala, hori da bi-latu behar dena.

Barjolak eztabaidan sexu indarkeriekin lotutako krisiak ikertu edo artatzen dituzten pertsonak entzuten ari diren kontaktizunak zer-nola gorpuzten dituzten arretaz zaintzearen garrantzia gaineratu zuen: "Nire tesirako egin nituen elkarrizketa guztiak izu sexualari buruzko isiltasunez beterik daude, eta hor nik neronen isiltasunaz hitz egin beharko nuke, izan ere, are tresna feministak izanda ere, nik ere gai hau guztiau blokeatuta nuen. Lan honen aurrez aurre ipintzea oso gogorra izan da, arrisku sexualari buruzko kontakizunen parean ipini ez ezik, xehetasun guztiak eza-gutu ditut, oroitzen nituenak baino askoz ere gehiago; lan hau egiteak ordain emozional handi samarra eragin dit, hainbeste ezen tesia amaitu eta bi urtez lan honi ekin ezinik egon bainintzen, eta berriro heldu badiot elkarrizketatu nituen pertsonetikiko erantzukizun feministak bultzatuta izan da.

4.3. Prestakuntza profesionalei

Montserrat Pineda izan zen krisi-zentroetako profesionalen prestakuntzaren gaia modu zabalago batean jorratu zuena, prestakuntza hori eskaintzeko testuinguruei eta arretarako ereduen osagai modura gaineratzen denean kontuan izateko faktoreei panorama orokor bat helaraziz.

Horri dagokionez, adierazi zuenez, prestakuntzak ez du soilik zerikusia teknika edo jorraketa jakin batzuk ikasteko moduarekin, baizik eta profesionalak errealitatea eraldatzeko inplikatzeko duten moduarekin. Horrek sexu indarkeriaren gaia jorratzeko erabiltzen den eredia ulertu eta dekonstruitzea dakar. Eredua hori, orokorki, segurtasunean oinarrituta egon ohi da prebentzioa lantzen denean, minean eta trauman arreta lantzen denean, baina ez dira emakumeak erdigunean ipintzen, eta hori da, hain zuzen, garrantzitsuena, izan ere, hala egiten ez baldin bada, jorraketa azalekoa eta aringarria baino ez da izaten.

Liluragarria izaten da protokoloen lengoia aztertzea, esate baterako, emakumeei ematen zaizkien mezuak, adibidez "gorde froga", hau da, frogaren gordailu bilakatzen ditugu, eta hori behin eta berriz egiten dugu, gure triptikoetan ipintzen dugu, emakumeei esaten diegu. Frogaren gordailutzat baldin badugu gure burua, zein esku-hartze egin dezakegu? Horregatik, prestakuntza-aren alderdi ezinbestekoak dira patriarkatuaren aurkako ikuspegi politikoa, profesionalak ere sexu indarkeria sostengatzen duen egitura hori eraldatzeko eragile ere badirela aitortzea, eta sekzio artekotasunaren ikuspegia, politikatik aski baztertua izan dena baina beharrezkoa dena oso sexu indarkeriatik eratorritako problematikak osoko modu batean jorratzeko.

Eta profesionalki artatzen dutenei prestakuntza egokia eskatzeko, garrantzitsua da, arreta zerbitzuak kanpora eramaten baldin badira, profesionalen laneko baldintzak zaintzea, modu horretan, zerbitzuaren kalitatea ere bermatze aldera. Horregatik, enpresak kontratatze prozesuetan ezartzen diren esleipenerako irizpideak berrikusi egin behar dira, eskaintza ekonomikoaren garrantzia murriztuz eta enpresak langileen soldatak eta beste zenbait baldintza hobetzeko duen konpromisoa zenbat eta handiagoa izan orduan eta puntu gehiago emanez, hitzarmenak ezartzen dituen minimo horiekin alderatuz.

Soilik patriarkatuaren aurkako eredu batetik artatzeko profesionaleri prestakuntza ona ematea bermatuz eta ikuspegi feminista batekin joratu ahal izango da sexu indarkeria egiturazko arazo gisa.

5:

Indarkeria sexista eta
hedabideak



Sarrera

Atal honetan sexu indarkeria hedabideetan nola jorratzen den aztertzeko laneko mahaian aurkeztutako ideiak jasotzen dira.

Edukiak lau adituk garatu zituzten, indarkeria sexista arloan hedabideetan gertatzen dena, zein zailtasun eta erronka dituzten kazetari feministek gai hori jorratzen dutenean eta bakoitzak bere hedabidean hobekuntzarako zein proposamen egiten duten hobeto ezagutzearen bidez hobetzeko moduari buruzko beren gogoetak partekatu zituztenak.

Laneko mahaia berdintasun zuzendaria den Miren Elgarrestak gidatu zuen.

Aztergaia parte-hartzaile hauek jorratu zuten.

Parte-hartzaileak



Lizentziatua Kazetaritzan eta doktore Informazioaren Zientzietan Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Kazetari gisa Cadena Ser, Onda Madrid eta Radio Nacional de Españan egin du lan, eta 2001az geroztik berdintasunaren eta genero indarkeriaren informazio tratamendurako protokoloen eraketan parte hartu du RTVE kateko eta Público enpresako Larrialditarako Eskuliburuan, eta baita Murtzia, Kantabria, Valentzia, Andaluzia edo Kanarietako hedabideetan ere.



Kazetaria eta masterra Ikerketa Feministetan eta Generokoetan Eusko Herriko Unibertsitatetik. Bertan lesbiana gazteek Espainiako Estatuan ekoiztutako fikzioko serieetan agertzen diren lesbianismoko erreferenteak nola ezagutzen dituzten aztertu zuen.



Lizentziatua Kazetaritzan Madrilgo Complutense Unibertsitatean, erredaktore eta lokutore modura egin du lan Cadena Ser katean eta, baita Expansión etxeko finantza eta merkatuen sekzioan ere. Gaur egun, genero eta LGBTI arloko kazetari gisa egiten du lan eldiario.es gunean.



Kazetaria, masterra Berdintasunean Eusko Herriko Unibertsitatean, erreportari lanetan RTVE etxearen *La 1* kateko *La Mañana* saioan, eta baita *La Sexta* etxean ere informazio programa ezberdinetarako. eldiario.es gunean idazten du genero arloko aditu modura eta nazioarteko informazioan. Berriki "La revolución de las agujas" liburua aurkeztu du.

Saioaren laburpena

Indarkeria matxistei buruzko informazioa ematea, "genero indarkeriatik" harago, erronka bat da, izan ere, indarkeriei buruzko kontakizun hegemonikoek alderdi batzuei erreparatzen diete soilik, eta horren ondorioz indarkeriei buruzko kultura mugatu bat sortzen da; hori dela eta, garrantzitsua da albisteak nola kontatzen diren edota horrek indarkeria batzuk ezkutuan geratzeari eta beste zenbait alderdiri dagokienez zer-nola eragiten duten hausnartzea, izan ere, faktore horien ondorioz zeregin mediatikoa ere bada indarkeria matxistek irautearen eta ikusezinak izatearen erantzule.

Diskurtsoen eraikuntza

Hizlariak jorratutako alderdi nagusi bat indarkeria matxisten inguruan diskurtso feministak eraikitzeke premiarekin lotutakoa da, **bizirik atera direnek** bete behar duten eginkizuna nabarmenduz, izan ere indarkeriatik bizirik atera den bati egindako elkarrizketa on (ala txar) batek inpaktu handia izan dezake emakumeengan. Horregatik, garrantzitsua da galdera zenbait luzatzea, hots, hedabideek bizirik atera direnen ahotsa eskatzeko eskubiderik ba ote duten, zer galdetuko dieten eta lekukotzetatik abiatuz zein diskurtso igorriko duten.

Eraikitzen doazen diskurtsoek bikotearen edo bikote ohiaren eskutik ematen den indarkeria lehenesten dute eta, batez ere, **heriotzak**. Hedabideek indarkeria horri begiratu diote eta indarkeria hori baino ez dute indarkeria matxista gisa izendatzen. Horregatik, azken urteotan lan nekeza izan da indarkeria matxista guztiak identifikatzea. Horrenbestez, hizlariak luzatzen duten galdera da, ea hedabideek indarkeria guztiak eraikitei buruzko informazioa emateko erabiltzen dituzten tresna berdinak erabiliz salatuko dituzten.

Indarkeria matxistei buruzko diskurtsoaren eraikuntzan garrantzi handia dute kontsultatutako iturriek: 2018ko ikerketa batek agerian utzi zuenez, gai horren inguruan hedabideetan hitz egiten duten pertsonen artean soilik % 5,4 dira **adituak** eta, horien artean, erdia gizonetakoak dira; **instituzioenak** dira deklarazioen % 52 eta **auzotarrena** % 32. Instituzioak beste iturri bat gehiago balira bezala hartu behar direla planteatu zen, horien prentsa komunikatuak gailen modura hartu beharrean egunkarietako oharak idaztean.

Genero ikuspegia hedabideetan

Andaluzian 2018an egindako ikerketa baten arabera, genero indarkeriari buruzko albisteak gainerakoak baino % 21 laburragoak dira eta % 24 azaroaren 25aren bueltan emititzen dira (2016. urtera arte portzentaje hori % 40koa zen). Hala gertatzen da Andaluziako komunitatean, baina baita tokiko 15 irratietan eta RTVE katean.

Hedabidetako zuzendaritzek diotenez, "zaila da genero indarkeria estaltzeko erabiltzen den ikuspegia kontrolatzea". Egia esatera, ordea, ikuspegi hori (ustez) emakumeekin zerikusia duten gaietan soilik gertatzen da. **Ikuspegi eta mugimendu feministek** indarkeria matxistak nola hobeto jorratu adierazten dute, baina hedabideek ikuspegi hori beren informazioak lantzeko moduan ez ezik, erredakzioetan lan egiteko moduan txertatu behar dute, izan ere, beren ohiko ordutegiak bateraezinak dira kontziliazioarekin eta bizitzarekin.

Gai horiek sakontasun gehiagoz garatuko dira parte hartzen duten kazetarien esperientzia zehatzetatik abiatuz.

Jorratutako gaiak

1. Begirada historiko labur bat

Erasotzaileak babesten dituzten mekanismo mediatikoak salatu zirenetik, 1988an Konpostelako Santiagon egin ziren indarkeria matxisten aurkako lehendabiziko jardunaldietan, horiek doituz joan dira eta kazetaritzako jardun matxistak "gehiago zaindu" du erasotzailea zaintzeko modua, hari barkamena eman eta bere delituaren ondoriozko erantzukizunetik askatzeko.

Emakumearen Institutuak urte haietako dossier bat argitaratu zuen. Bertan jasotzen zenez, indarkeria matxistei buruzko albisteen % 91n biktima eta erasotzailea orain baino sakontasun gehiagoz identifikatzen ziren. Albisteak ez ziren laburrak, orain bezala; aitzitik, hedabideek denetarik kontatzen zuten, izan ere, ez ziren ohartzen, modu objektiboan, gizon erasotzaileen aurka borrokatzen ari zirela; horretaz ohartu diren bezain pronto, erasotzaileari buruzko aipamen horiek guztiak alboratu egin dira.

Marta Borrazek adierazi zuenez *eldiario.es* gunean 2012az geroztik jorratzen da indarkeria matxisten gaia, Ana Requena mikromatxismoen inguruan idazten duela, eta *Pikara Magazine* argitalpeneko kazetariak bere artikuluekin astero eguneratzen duten blog bat argitaratzen duten zuzenean, baina 2014. urtera arte egina hala indibiduala zen eta ez zegoen ofizialduta. Haatik, *eldiario.es* gunea haziz joan den heinean (2012an hamar edo hamabi kazetari ziren, eta gaur egun laurogei dira), gai horiek egituratuz joan dira eta 2016. urtean "fokuak" sortu ziren, hots, lehentasun editorialak ordezkatzeko dituzten etiketak.

"Badugu memoria historikoko foku bat, hezkuntzako beste bat, hirien inguruko beste bat, ustelkeriakoa eta guztion diruari buruzkoa, eta hor daude, era berean, berdintasunaren fokua, indarkeria matxistarena eta LGTBI

fokua. Fokuen helburua edukia sailkatzea da. Hala, fokura sartzen zarenean gai horri buruz argitaratu diren artikuluko guztiak agertzen zaizkizu hura sortu zenetik. Fokuak *eldiario.es* guneak jarraitu behar dituen ideia saihestezinen modukoak dira eta horrexegatik irakurtzen gaitu jendeak ere bai, etiketa horiei esker", dio Marta Borrazek.

Kazetari horrek dioenez, 2017an hedabide horretan "Isiltasuna hautsiz " izeneko espazio bat ireki zen. Bertan, postontzi seguru bat aktibatu zen emakumeek beren kontakizunak plazara zitzaten: hedabidea haiekin harremanetan jarri eta elkarrizketa egiten zien, eta haiek blogean argitaratu ala ez erabakitzen zuten. Argitu zuenez, hasieratik gauza jakina zen espazio hori aldi baterakoa izango zela, nahiz eta ikerketa bereziek izaten dutena baino iraupen luzeagoa izan, eta ez zuen baztertu berriro aktibatzeke aukera, Ana Requenak, erredaktore buru gisa, gidatzen duen genero arloko lantaldearen parte modura.

**"Hedabideetan
eduki eta ahots
feminista
gehiago ageri
badira
mugimendu
feministek
gizarte-sareetan
arrakasta
dutelako da."**

Emilia Ariasek, bestalde, telebistaren ikuspegia ipini zuen mahai gainean, bitarteko horretan berak izandako lan esperientzia aipatuz eta adieraziz informatiboetako zenbait pertsona arduradunek argi dutela emakumeen aurkako indarkeria aurkezteko moduak ez duela odola nabarmendu behar, edo biktimaren etxebizitza, ezta auzotarren lekukotzak jaso ere. Arduradunen arteko aldeak adierazgarriak dira, izan ere, horrek ere albisteak estaltzen dituzten profesionalen lana baldintzatzen du.

Hedabideetan eduki eta ahots feminista gehiago ageri badira mugimendu feministek gizarte-sareetan arrakasta dutelako da. Albiste askok "Interneten gertatzen ari den hori, gal ezin dituzun 10 txioak, Facebooken gertatzen ari den eztabaida handia, hori buruzko iritzi bat izaten lagunduko zaitugu" dute oinarritzat. Mugimendu feminista gizarte-sareetan oso aktiboa denez, horrek nolabait, hedabideak horretaz hitz egitera behartzen dituzte; gainera, hedabideak konturatzen ari dira sinadura feministek funtzionatu egiten dutela.

2. Zein da “ikuspegi feministaren” esanahia hedabideetan?

Hizlarien arabera, eta guztiak bat datoz horrekin, hedabideetan gertatu den leherketa feministak gaien inguruko zenbait konpartimendu sortzea ekarri du, eta horrek badiu bere arriskuak, izan ere, emakumeei eskainitako espazioak nolabaiteko orotarako kutxa bilakatu ahal izan dira, non “emakumeei gertatzen zaizkien gauzak” ipintzen diren, gai bat eta kolektibo bat bailiran, eta horren ondorioz, genero ikuspegia ez da gaineratzen beste sekzioetan eta gainerako buruek ez dute aintzat hartzen; egiaz, adierazi zenez, “egiazko garaipena izango litzateke politikako sekzioko buruak ere genero ikuspegia izan zezala”.

Zeharkako begirada hori hedabide osoan egon behar da eta *eldiario.es* gunean ahalegin bat egiten saiatzen dira sortu duten taldearen bidez: genero arloko erre-dakzio burua bilkuretan elkartzen da gainerako buruekin eta bertan gaiak erabaki egiten dira eta egiazko eragina du edukietatik harago, izan ere, zera esan dezake: “aizu, artikulu horretan lau iturriri egiten diezu galdera eta laurak gizonak dira”; halaber, ahalmena du, esate baterako, liritzen kaxa orekatua izan dadin, adierazi zuen Borrazek.

Telebistan faktore ugari daude genero indarkeria es-taltzeko ikuspegiarekin zerikusia dutenak, horien artean, informazio prozesuetan izaten den denbora urria eta erredakzioetan izaten diren pribilegioak, izan ere, zenbaitetan eraiketa matxista bati buruzko informazioaz arduratzen denaren eskuetan uzten da. Horrenbestez, informazio horretaz arduratzen den pertsonaren ideologia matxista baldin bada, informazioa desegoki emango du.

Pikara Magazine hedabide feminista modura, adibidetzat hartzen baldin badugu, komunikabideetan ikuspegi hori txertatzeko dauden zailtasunak ikus daitezke. Oso hedatua da *Pikara* emakumeetan espezializatutako komunikabide bat delako ustea, nahiz eta hedabide horretako edukiak oso anitzak diren. Pentsamendu feminista lagungarri da kazetari hobea izateko, zorrotzagoa eta gertatzen

“Egiazko garaipena izango litzateke politikako sekzioko buruak ere genero ikuspegia izan zezala.”

diren gauzak hobeto azaltzeko. "Indarkeria matxista hobeto jorratzen ez ezik, espetxeetan dauden pertsona gehienak zergatik diren gizonetakoak hobeto azaltzen ere ikasi dugu, edo trafiko istripu gehienak zergatik eragiten dituzten gizonetakoak, eta ulertzen errealtate horiek ez dira emakumeen edo gizonen gaiak, baizik eta bide segurtasuneko gaiak, herritarren segurtasunarekin lotutako gaiak, espetxeekin lotutakoak edo sistemari dagozkionak, zentzu zabalean", adierazi zuen Andrea Momoitiok.

Hedabideetan ikuspegi feminista ez litzateke horrenbeste "espezializatza" bideratu behar, baizik eta "zeharkakotasuna" ipintza, eta baita kazetarien bizi-kalitatea azpimarratza ere. *Pikara* magazinean hedabideetan ikuspegi feminista txertatzearen alde egiten dute, ez soilik informazioak lantzen dituzten eran, baizik eta oro har, lan egiteko moduan. Erredakzio bateko ohiko lanorduek bateraezinak dira kontziliazioarekin, bizitzarekin, lagunak izatearekin edo "taxuzko ordu batean zure ama ikustera joatearekin. Beraz, nekez egin daiteke kazetaritza feminista zure laneko baldintzak ez badute ikuspegi feminista muinean".

3. Kontakizun mediatikoei eta indarkeria matxistei buruz

Mahai gainean ipini zen beste eztabaida garrantzitsu bat da zer-nola agertzen diren gizonak eta emakumeak hedabideek genero indarkeriari buruzko informazioa ematen dutenean, aipatutako lau pertsonatik soilik bat dela emakumezkoa adieraziz, eta hura gehienetan genero indarkeriako biktima modura agertzen da eta, horrela, emakumeak biktima bihurtuz ikusarazten dira. Joe-ra hori ekiditeko garrantzitsua izango litzateke indarkeria matxistari buruzko albiste osoa gizonak emakumeen gainean erabiltzen duten boterezko harremanen barnean kokatzea.

Erronka eginahala egitea da, hedabideetatik eta instituzioetatik, emakumeak eta gizonak, erasotzaileak nahiz biktimak, interpelatuta sentitzeko kontakizunak eraikitze-ko. Gai zehatz horri buruz adierazi zenez, zenbaitetan bik-

timarioak "mamu" modura agertzen dira, eta estereotipo horrek ere ez du, hizlarien esanetan, indarkeria matxisten tratamenduari sakontasunik ematen, oso egoera muturrekoak agertuz, 'niri hori ezin zait gertatu, horretatik at nago ni' pentsamendua eraikitzen laguntzen dutenak, tratu txarrak eragiten dituen zital hutsa edo mamua izango balitz bezala, eta indarkeria emakume gehienen bizimodutik kanpoko zerbait izango balitz bezala.

Halaber, indarkeriak zein testuingurutan ematen diren ikusaraztearen eta horiei aurre egiteko daude laguntzarako sareen garrantzia azpimarratu zen, testuingurua erakutsiko duten eta laguntzarako sareak agertuko dituzten erreportajeak eginez, indarkeria pairatzen ari diren emakumeak jakin eta senti dezaten ez daudela bakarrik.

Feminizidioak "emakumeen heriotza" bilaka daitezela ekidin behar da, eta hori gertaerak *Beste emakume bat hil da* izenburuarekin adierazten diren aldiro gertatzen da. Halako adierazpenek erakusten dute erredakzioetan ere indarkeria matxistari duen larritasuna ematerakoan uzkur agertzen direla. Horrenbestez, ezinbestekoa da feminismoarekin konpromiso politiko bat hartu eta instituzioek komunikabideetako buruekin eta erredakzioarekin lanketa bat egitea.

Biktimen lekukotza indarkeria matxisten ikusgarritasunerako erabiltzen den modua aztertu zen, lehengoratu egin beharko litzatekeen mekanismo zital eta kaltegarria sorraraziz. Esate baterako, CEAR batzordeko komunikazioko arduraduna kexu azaldu zen halako eskaera ugari jasotzen zituelako: "Mugan geratu den lesbiana baten bila nabil, gorputz-adarren bat falta baldin bazaio, hobe". Zertarako?, erreportajearen *hasiera erakargarri* bat izateko; azken finean, lekukotza gehienek albistetan *hasiera erakargarri* bat izateko balio dute.

CEAR batzordeak proposatutako balizko irtenbide bat da instituzioek artatzen dituzten emakumeen lekukotzak jasotzea eta ez dadila beharrezkoa izan haiek beste kazetari bati beren bizitza kontatzea, haien lekukotzak eskuragarri izatea kazetariak istorio horiek berriro emakumeekin

“Ez dute argi eraildako emakume bakoitzaren istorio horretan zenbat dagoen kontatzeko, eta emakume bakoitzaren inguruan partikularki hitz egin behar ote den.”

hitz egin beharrik gabe eskura ditzaten. Argi dago istorioak behar direla erreportajeen hari gidari modura; datuak istorio batera irauli behar dira eta, horretarako, jendearekin hitz egin behar da, baina hori ez luke kazetari bakoitzak egin behar, agian irudien eta lekukotzen banku moduko bat egin liteke, hartara jotzeko, baina kazetaritzaren arazoetako bat da oso lanbide egozentrikoa dela.

Idea horren eskutik, indarkeriatik bizirik ateratzen direnenganako ohiko begiradara ez jotzea proposatu zen, izan ere, maila sozialean, are maila judizialean, biktima mota jakin bat dagoela uste da; imajinario kolektiboak indarkeriaren biktimaren estereotipo bat du eta hedabideek estereotipo hori errepikatu egiten dute. Emakume bati, bost gizonen bortxatu ondotik, Instagrameko argazki batean irribarre egitea bururatzen baldin bazaio edo drogei buruzko txantxak egitea, La Manadako biktimarekin gertatu zen moduan, badirudi biktima modura legitimitatea galtzen duela. Hedabideek oso eginkizun garrantzitsua dute beren bizitza berreraiki, irri egin eta modu normalizatuan lan egin dezaketen bizirik atera diren horiek erakusteko. Hori lagungarri da indarkeria matxistaren biktima *izateak suposatzen* duenaren inguruko estereotipoa zalantzan ipintzeko, errealitate horri aurre egiteko modu bakarra dagoenaren ustearekin hautsiz.

Pikara magazinean, sarritan, oso mediatikoak diren indarkeria kasuak nola landu aztertu izan da, eta istorio horretan zenbat kontatzea den zehatza, etikoa edo arduratsua galdetzen diote beren buruari, izan ere, ez dute argi eraildako emakume bakoitzaren istorio horretan zenbat dagoen kontatzeko, eta emakume bakoitzaren inguruan partikularki hitz egin behar ote den. La Mareak *Por Todas* izenburua duen proiektu bat egitea proposatu du, 2014. urtetik gertatu den indarkeria kasu bakoitzaren jarraipen partikularra egiteko xedea duena, besteak beste, emakume horrekin zer gertatu zen, nor zen, bere udalerrian zein neurri hartu ziren, zerbait egin ote zuten ala ez edota berdintasun teknikariak zein esku-hartze burutu zuten ikusiz.

Telebistan zailtasun asko daude emakumeak berriro biktima bilakatuko ez dituzten narrazio berriak eraikitzeko, zer gertatzen ari den azaltzeko testuinguruko piezak egiteko, jakintzat eman gabe jadanik kontaktu dela eta jende guztiak dakiela eta ulertzen duela zer ari den gertatzen.

Narrazioei dagokienez, albisteetan sexu indarkeriari buruzko informazioa azaltzeko moduari eta emakumeek senti dezaketen izu sexuala ez nabarmentzeko informazio hori zaintzeko moduaren garrantziari buruzko kezka jorratu zen. Esate baterako, Laura Luelmoren erailketarekin agerian geratu zen emakumeek korrika egiteko edo kalean ibiltzeko beldurra areagotu egin zela, emakumeen milaka lekukotza agertu ziren horren inguruan hitz egiten eta beldurraren kontakizun kolektibo bat sortu zen, nahiz eta, aldi berean, gertatzen ari zenari eta krimena zigorrik gabe ez geratzearen garrantziari buruzko kontzientzia ere sortu.

Emakumeek kalean itxuraz sentitzen dugun beldur hori izu sexualaren diskurtsoaren parte da, horren inguruan sozializatu baikaituzte, eta hori ez dute soilik hedabideek eraikitzen, giro horren sorreran beste faktore ugari dute eragina, nahiz eta, zalantzarik gabe, hedabideetan indarkeria hori jorratzeko modua oso garrantzitsua den.

Arrisku horren aurrean, hizlari guztien iritziz, informazio iturri berriak arakatzeko unea da hedabideetako bertsioei indarra kentzeko, agian ahalduntzeari buruzko istorioekin autodefentsa feministako taldeei entzunez, nola entrenatzen duten eta nola lortzen duten gero eta emakume gehiagok izen ematea erakusteko erreportaje bat egiteko. Guztiak bat etorri zirekin horretan.

Hedabideek indarkeriaren aurrean bizirik ateratzeko moduari fokua ipintzea kontu berria dela aitortuz, eta hori izu sexuala eta emakumeen artean beldurra ez sustatzeko nola egin ez dela kontu jakina, informazio horiei indarra kentzeko garrantzia adierazi zen, adituek gaiaren inguruan ematen dituzten testuinguruak bilatuz, beren semeak etorkizunean erasotzaile izan ez daitezen hezteaz kezkatzen ari direnekin hitz eginez, elkarren arteko

“Informazio iturri berriak arakatzeko unea da hedabideetako bertsioei indarra kentzeko, agian ahalduntzeari buruzko istorioekin.”

heziketa abiapuntutzat hartuta pistak emanez eta abar. Laburbilduz, indarkeria gertaerak testuinguruan ipiniz eta kazetaritzako kontakizun bilakatuz berdintasunean hezteko gakoak emango dituzten adituen ahotsen bidez, eta horrek, instituzioak eta irakaskuntza publikoa inplikatzeari ere badakar.

Komunikaziorako zurruneak diren parametroak ezartzen baldin badira, indarkeria matxistei buruzko oharra "eguneroko berdinak" ez izatea lortzeko moduari buruzko galderaren aurrean, adierazi zenez, kazetaritza arduratsu batek patriarkatuaren kontakizunetan pentsatu behar du derrigorrez horiek ez erreproduzitzeko; gainera, ez du ahortzi behar indarkeria matxistek ez dutela "mamuekin" zerikusirik, ezta "kalera ateratzearekin" ere ezinbestean, izan ere, agian *izan behar duzun* beldurra ez dago kalean, etxean baizik.

Desadostasuna izan zen planteatu zenean **bortxaketa sexualaren** aurrean bizirik ateratzearen kontakizuna ez berdina izan daitekeen "**emakume baten bizitzako esperientzia izugarriena da**" esaldiarekin alderatuz. Alde batetik, Pilar Lopezek planteatu zuen emakumearen ahotsa deslegitimizatuta dagoen gizarte batean, **kontakizun hori hedatzea ez zuela zuhurtzat jotzen**; beste alde batetik, Emilia Ariasek, adierazi zuenez, ikuspegi judutar kristautik, bortxaketa "erabateko izugarrikeria" modura dago ikusita, izan ere, emakume horren jabe den gizonaren aurkako delitutzat hartzen da; haatik, bere ustez, "**bortxaketa batek betiko desohoretu egiten zaituenaren ideia legez kanpoko da guztiz** sexu askatasunaren kontrako baita... Kontakizun horiek berridatzi egin behar dira emakumeengandik idatzi ditzagun eta ez patriarkatutik, hura baita beti bortxaketaren kontakizuna eraiki duena, horregatik dago kale itxiaren edo lepora doan labanaren beldurra, bortxaketa sexuala pairatu dugun emakume gehienok egiaz **logela itxi edo pisu baten** testuinguruan pairatu badugu ere.

Zentzu beretik, Momoiok azpimarratu zuenez, era berean kontakizunak **indarkeria matxistak kontu kolektibo modura fokatu behar ditu, nolabait egiturazkoa dena.**

Deigarria da lortu dela ulertzea emakumeen aurkako indarkeria ez dela kontu pribatu bat, publikoa baizik, eta oraindik ez dagoela argi kontu kolektibo bat denik; horregatik, emakume bat erailtzen duten bakoitzean, hedabideek azaldu beharko lukete eraildako emakumea edozein izan zitekeela, hori emakume guztiek, kolektibo gisa, bizi duten arrisku bat baita.

4. Prestakuntza genero ikuspegian

Panorama orokor horren argitara, agerian geratu zen era berean kazetaritza egiten ari diren pertsona guztiek genero ikuspegiari buruzko prestakuntza izan behar dutela nahitaez, beste kontu batzuen artean, errugabetasunaren presuntzioaren gezurkeria ekiditeko, eraileak "hil eta akabatu" egin zuela aitortzen duenean ere agertzen dena, izan ere, oraindik badira kazetariak gizonak ekintza zigorgarrien egile modura begiratzten ez dituen jarrera patriarkala defendatzen dutenak.

Indarkeria matxistaren inguruko informazioa emateko, gaiaren inguruko prestakuntza izan behar da, bestela sekulako basakeriak esate baitira. Errugabetasun presuntzioari dagokionez, zehaztu zen, harekin ados egon arren, izan ere, akusatuek gezurra esateko eskubidea dute, ez duela hilketarik egin esateko edo nahi duena esateko eskubidea dute, bitxia dela errugabetasun presuntzioa modu desegokian erabiltzen dela, esate baterako hedabideek aipatzen dutenean 'ustezko bortxaketa', bortxaketa ez denean ustezkoa, izatekotan erasotzailea izango da ustezkoa; eta lesioen parte bat baldin badago, labankada ezin da ustezkoa izan. Gai horiekin arreta berezia izan behar da eta argi dago prestakuntza espezifiko bat behar dela, ez soilik narratiba zuzen bat sortzeko, baizik eta baita gertaera batzuen inguruan egoki informatzeko.

Halaber, arazo bat da iturrietan emakume adituen presentzia gehiago ez egotea. Mugimendu feminista informatzaile modura faltan botatzen da, baina zailtasunak daude, esate baterako, emakume adituen bankuak eratzeko; eta halakorik egitea lortzen denean, gero zaila izaten da haiekin hitz egitea denborarekin lotutako edo

“Itxura batean
betiereko
iruzurtien
sindromea
bizirik dago
oraindik.”

ordutegiak kontziliatzeko arazoak direla medio; halaber, zailagoa da telebistan agertu nahi duten emakumeak aurkitzea, izan ere, itxura batean betiereko iruzurtien sindromea bizirik dago oraindik. Arrazoi ezberdinak direla medio, mugimendu feministaren izenean hitz egingo duten emakumeak aurkitzea ez da erraza, oro har, inork ez du zeregin hori beregain hartu eta orduan mugimendu feministak hitz egin dezala nahi dugu baina feministek ez dute hitz egin nahi, asanbladan kontsultatu behar dutelako, baina kazetariak gaur behar du, gaur atera baitaiteke informazio hori hain justu.

Ariasek horri dagokionez gaineratu zuenez, adituen agenda bat dagoenean ere, nagusiei ez zaie interesatzen haiekin harremanetan jartzea, martxoaren 8a iristen denean izan ezik. TVE katearen kasuan bederen, non emakume asko dauden, eta gizonak ere bai, panorama hori alatzeko premiaren kontzientziarekin, **azkenik gogoetak eta baliabideak Madrilén geratzen dira eta ez dira lurraldeetako zentroetara iristen.**

Bestalde, genero ikuspegian prestakuntza sendoa izan dadin, Kazetaritzako fakultateetan eman behar dela planteatu zen. Unibertsitatek kazetari izango diren pertsonak prestatzen ditu kazetaritza ona egin dezaten, beraz ulergaitza da ikuspegi feminista ez egotea zeharka txertatuta unibertsitateko graduetan.

Kazetaritza arduratsu bat egiteko konpromisoa hartze aldera hedabideetan sinatzen diren akordioei dagokionez, hizlariak *dekalogo* horiekin zergatik ez den egiazko konpromiso bat bermatzen adierazi zuten ahobatez: normalean nagusiek (gizonek zein emakumeek) sinatzen dituztelako, baina ez dituzten erredakzioko langileekin sozializatzen, beraz, pertsona horiek ez dakite zer den sinatu dena eta ez dakite zein konpromiso hartu duten; eta, azkenik, betetzen ez bada, ez zaie axola.

*Begirako*¹ dekalogoari buruz, gutxi gorabehera guztiek

¹ Publizitaterako eta komunikazio ez sexista baterako kode deontologikoa eta autoerregulazikoa, hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/es_def/adjuntos/begira.codigo.deontologico.pdf

esaten dutena jasotzen duela esan zen: terminologia egokia erabili behar dela, indarkeriaren gaia nondik datorren azaldu behar dela, erasotzaileen errugabetasun presuntzioa mantendu behar dela, baina ez tronpatzearekin eta mitoak elikatzearekin arretaz ibiliz; bizirik ateratako emakumeen agentzia zaindu egin behar da, erreportaje osagarriak egin behar dira, eta abar, baina ez daude batere argi zen mekanismo ari diren martxan jartzen argibide horiek erredakzioetara iritsi eta egunerokotasunean aplika daitezten.

Salaketen kontuari buruz, Borrazek adierazi zuenez, garrantzitsua da kontatzea biktimak salaketa ipini zuen ala ez, izan ere, **salaketa gutxiegi izatearena indarkeria matxistaren arazo bat da eta ez da ezkutuan gorde behar**, baina garrantzitsuagoa da azaltzea, hala salaketa egon bazen zein egon ez bazen, bi kasuetan, gizartearen porrot baten aurrean gaudela: salaketa ipini bazuen, sistemak huts egin duelako hari babesik ez ematean; eta salaketarik ipini ez badu, zergatik ez duen hori egin ere kontatu egin behar dugu.

Horri dagokionez, garrantzitsua da oraindik sistema judizialean eta Estatuko segurtasun gorputzetan bizirik dirauten estereotipo eta aurreiritzi jakin batzuen gainean arreta ematen duten kanpaina instituzionalak egotea. Fokua salaketan bakarrik (hor ere bai) ipiniko ez duten kanpainak, indarkeria pairatzen duten emakumeek zergatik ari diren salaketak ipintzen ere begiratzuz eta zergatik ez diren fio sistemarekin salaketak ipintzeko. Hedabideetan indarkeria matxistak tratatzea aldera, horiek ikusarazi egin beharko lirartekeen testuinguruko piezak dira, indarkeriaren egiturazko erroak eta kasura soilik ez mugatzea bezalaxe.

Borrazek **kazetaritzaren eritmoak ipinitako denboren aurka lan egitearen zailtasunetan** sakondu zuen, kasuei zein izenburu ipini, zer egin komunikatzeko presa dagoenean eta datuak berresten ez direnean, edo nola koordinatu informazioa lortzeko egin ahalak: *eldiario.es* gunean astero bilkurak egiteko ahalegina egiten da sezkio guztietako nagusiekin (emakume zein gizon) astea-

“Indarkeria pairatzen duten emakumeek zergatik ari diren salaketak ipintzen ere begiratzuz eta zergatik ez diren fio sistemarekin salaketak ipintzeko.”

ren plangintza generoaren gaineko zeharkako begirada batekin egiteko, baina gaurkotasunaren presak ez digu orain arte bilkura horietako emaitzak sistematizatzeko aukerarik eman.

Sarritan **editoriale**tako erabakiak hain daude urrun **kazetaritza egite**tik ezen litekeena baita ez axolarik izatea nor arduratzen den indarkeria sexualen kasuan eta, Ariasen arabera, horren ondorioz, azkenean, kontakizun ezberdinak eraikitzeko helburua lortzea ekiditen da. Sarritan edozein modutara erantzuten zaio espazioa betetzeko premiari. Guztiok dakigu ez duzula bidaliko epaiketa bat estaltzera epaitegi batek nola funtzionatzen duen ez dakiena edo Zuzenbideko oinarrizko ezagutzak ez dituen; aitzitik, edonor bidaltzen da indarkeria matxista kasu bat estaltzera eta ez da deus gertatzen, "gertaera" baten ikuspegitik estaltzen baita kasua.

Azkenik, Borrazek *eldiario.es* gunean **genero ikuspegiko prestakuntza modu ukigarrian aplikatzeko** egin zutena partekatu zuen: urte amaierako balantze bat argitaratu zen eta testuaren barnean, diseinuko lantaldearekin, urte hartan zehar bortxatu eta eraildako 47 emakumeen istorioen inguruko zenbait alderdi ipini ziren ikusgai. Eraildakoen memoria egitea interesgarria da, baina zein puntutara arte kontatu behar dugu haien istorio pertsonala? Kasu hartan aurkeztu zena ez zen haien istorio pertsonala izan, baizik eta kasua, bakoitzaren inguruabarrak erabiliz indarkeria matxistaren egiturazko arazoekin lotura egiteko. Hots, 80 urte zituen emakume bat 84 zituen bere senarrak erail baldin bazuen, adin nagusikoen artean ematen den indarkeriaren ikusezintasunaz hitz egiteko baliatu genuen aukera. Banantzearen izapidea jorratzen baldin badugu, arrisku faktoreak azpimarratzen ditugu eta emakumeak gizonari banandu egingo dela esaten dionean dagoen arriskuari buruz adituek diotena adierazten dugu; albistean salatu ote zen aipatzen baldin bada eta salaketa ipini eta babes agindurik ez zuela, babes aginduak emateko orduan dagoen desberdintza garatzen dugu, izan ere, zure bizilekua den hiriarren arabera babes agindu bat izateko aukera gehiago ala gutxiago izango duzu.

5. Kazetaritza arduratsu baterako oharrak

Indarkeria matxisten inguruan narrazioak eraikitzeko moduari buruz gogoeta egiteko premia eta kazetaritzak horretan duen erantzukizuna luze eta zabal jorratutako gaiak izan ziren. Horrela, adibide batera, indarkerien inguruan "horrenbeste" hitz egitea kalterako ote den ala ez eztabaidatu zen; xehetasun zantarretan erreparatzean erasotzaileei ideiak ematen ote zaizkien; emakumeei behin eta berriz elkarrizketa egiten zaienean berriro biktima bilakatzea eragiten ote den; indarkeria ekidinezina den zerbait balitz bezala naturalizatzen ote den; biktimei errua botatzen ote zaien eta erasotzaileak justifikatu egiten ote diren; bidezkoa ote den emakumeak hedabideetan soilik halako gaietan ateratzea .

Adierazi zenez, indarkeria matxistei buruz hitz egitea ez da kontraesankorra arrazoiak, ondorioak eta irtenbideak azaltzen direnean, eta horri dagokionez dagoeneko proposamenak dituen mugimendu feministari ahotsa ematen zaienean, izan ere, egiaz badakigu hau nola konpon daitekeen, huts egin dezakegu gutxiago edo gehiago, baina argi dago nora joan nahi den, aspaldidanik ari baikara horrekin pentsatzen. Ikuspegi feministak erantzukizunak helarazten dizkio kazetaritzari: kazetaritza feminismo bat ohartu behar da zein nolako eragina duen iritzi publikoan eta biktimekin arduratsu eta sentikorra izateak zein garrantzia duen.

Kazetaritza arduratsu bat kritikoa da, eta ezin ditu aurreiritziak eta estereotipoak elikatu, nahiz eta indarkeria matxistako kasuak jorratzean hartutako zenbait erabaki ez dituzten ulertzen zenbait sektore hartzailek, esate baterako, egunkarietako oharretan erasotzaileen nazionalitatea ez aipatzea erabakitzen denean. Eraiketa egiten duten gizonen nazionalitatea errazago aipatzen da horiek Espainiako Estatuan jaiok ez baldin badira; Aljeria, Maroko edo Kolonbian jaiok baldin badira, datu hori berehala iristen da beti erredakzio guztietara.

Bestalde, argitaratzeko orduan datuen eta ikuspegi ins-

**“Genero
ikuspegia
edozein
hedabidetan
argitaratzen den
albiste
bakoitzean egon
behar da.”**

tituzionalen baitan dagoen “kazetaritzaren burokrazia” baten aurrean, azpimarratu zen kazetaritza arduratsu batek informatzeaz arduratzen diren pertsonak genero aldetiko prestakuntza izatea ziurtatu behar duela, prestakuntza hori izan ezean ezinezkoa baita pentsaera patriarkalak eraistea; halaber, errealitateari “generoaren betaurrekoak” jantzita begiratu behar dio. horrek berekin dakar emakumeek gizonekin alderatuz dituzten desberdintzez ohartzea eta emakumeak desberdintza egoeretan mantentzen dituzten faktoreak salatzekeo kontakizunak eratzea.

Genero ikuspegia edozein hedabidetan argitaratzen den albiste bakoitzean egon behar da, kazetari bakoitzak, generoari dagokionez jaso duen prestakuntzari esker, esate baterako, tratu txarrak eragiten dizkion senar batekiko dependentzia emozionala duen emakume batek zergatik jarraitzen duen berarekin bizitzen ulertzearen ondorioz.

Kazetaritza arduratsuen beste ezaugarri bat da indarkeria kasuen ikusgarritasunetik ihes egiten duela, orotariko xehetasun makabroak ematen dituzten gertaera edo serial modura lantzea ekidinez, horixe egiten baita zenbait programatan, batez ere kate pribatuetan. “Esate baterako, Ana Rosa Quintanak, goizean telebistan audientzia gehien duena izanik, indarkeria matxistako kasuak gertaera-ikusbizun ikuspegi erabateko batekin jorratzen ditu oraindik”. Audientzia askoko programak dira, oinazea erakusten duten eszenak erakusteko inolako lotsarik gabeak, are agertu beharko ez liritekeen irudiak azalduz, horregatik inolako ondorioz izan gabe.

Hizlariak kazetaritza arduratsua egiteko ahaleginean aurkitzen dituzten oztopoen gaia jorratu zuten. Lehenik eta behin, eraildako emakumeen daturik eza dago, emakume izate hutsagatik (eta ez soilik beren bikote edo bikote ohien eskutik). Orain arte genero indarkerian indarkeria eragiten duen subjektua eta indarkeria pairatzen duen subjektua zeuden, baina erronka da motibazio matxista zein den ere kontuan izatea eta halakorik badagoen, horrek zein eragin izan duen gertaera oldarkorrean... eta hori zailagoa da asmatzen eta kontatzen.

Bigarren oztopoa da emakumeen erailketak kasu isolatuak balira bezala eta arrazoi pertsonal eta indibidualizatuaren ondorioz gertatuko balira bezala lantzea, gizon eta emakumeen desberdintzekin zerikusia duten egiturazko arrazoen eta arrazoi politikoen ondorio direla ahantziz. Gainera, halako erailketak estaltzeko modua lagungarri da izu sexualaren diskurtsoari begira, izan ere, emakumeen beldurra areagotzen duten kontakizunak sortzen dira. Horrek hedabideei sexu indarkeriako istorioak kontatzeko modua orekatzeko erronka ipintzen die, La Manadako kasuan bezalaxe.

Oreka lortzeko modu bat narrazioen sintaxia aldatzea da, albiste-gertaera formula klasikoa alde batera utziz (nork - non - nori - noiz - eta nola), mugatua baita eta jadanik higitua baitago, eta zergatik horri eutsiz, hau da, indarkeria matxistak sorrarazten dituzten botere harremanetan barneratuz; eta erasotzaileengan eta erabiltzen duten eta erabiltzen jarraitu nahi duten boterean begirada ipiniz. Halaber, kontakizunak orekatzeko baliagarri izan daiteke beren buruaren gaineko agentzia duten eta ahaldunduta dauden emakumeen istorioak kontatzea, esate baterako, autodefentsa feministan izen ematen duten emakumeenak.

Hirugarren oztopo bat, agerikoa batez ere telebistan, audientzia irabazteko xedez erantzukizunari uko egiten dion kazetaritza bati aurre egitearena da: Ana Rosa Quintanaren eskuetara iristen baldin bada La Manadaren bortxaketaren bideoa, ipini egingo du, horretan ez daukat inolako zalantzarik. Jendea programa hori ikustea hautatzen ari da eta hori gizarte heziketako arazo bat hautematen da. Merezi ditugun hedabideak ote ditugun, beste hedabide batzuk merezi ote ditugun edo zer kontsumitu nahi dugun; galdera horiek ez dute erantzun sinplerik eta erantzukizun partekatuarekin, kazetaritza deontologiarekin eta prekarietatearekin lotutako kontuak plazaratzea eskatzen du horrek, guztia baitago elkarlotuta.

“Hirugarren oztopo bat, audientzia irabazteko xedez erantzukizunari uko egiten dion kazetaritza bati aurre egitearena da.”

Hiru kezka adierazi ziren plataforma mediatikoez hitz egiten denean:

Alde batetik, espazio ikusgaietan adituek duten ahulda-dea: "Tertulietan aditu feminista modura gonbidatzen dituzten emakumeak kokatzeko moduak arduratu egiten nau. Gogoan dut martxoaren 8aren ondotik, egiaz aditu ziren emakumeei ez zitzaizela hitz egiten uzten, eztabaidan logika matxista eta patriarkala delako, eta oihu ozenen egiten duenari entzuten zaio gehien eta hura da arreta gehiago bereganatu eta denbora gehiago izatea lortzen duena. Horrek eragiten zuen beste logika batzuekin funtzionatzen duten emakumeek ezin zutela espazio tarterik eskuratu, eta horrenbestez, eztabaidaren 'apaingarri feminista' modura geratzen ziren.

Betalde, "eztabaidagarri" denaren logika dago, deslegitimizatzeko mekanismo gisa. Emakume feministak gonbidatzen dituzten eztabaida saioetan jakintzat ematen da guztiaren inguruan eman daitekeela iritzia eta jadanik gaindituta dauden gaiak ipintzen dira mahai gainean, eztabaidan horiek berriro ireki eta berreskuratzea beharrezkoa izango balitz bezala. Egiaz, eztabaidagai izan daiteke berriro indarkeria matxistarik ote den? Ez. Orduan, hedabideak tertulietan hori planteatzea onartzen baldin badu horren inguruan iritzia eman daitekeela uste du, egiaz dagoeneko ezin denean, errealitatearen gertakizun bat baita.

Eta, azkenik, indarkeria matxisten aurrean bizirauteari buruzko kontakizun ugarien gabeziarena. Gutxi dira *bizirik atera direnen* ahotsak, indarkeria matxistaren aurrean bizirik atera diren emakumeena edo bere ingurunetik irten direnena, eta daudenak oso arriskutsuak dira, izan ere, ezkutuko emakume modura ipintzen dira, klandestino moduan, indarkeria matxistatik irtetea argitasunarekin zerikusirik izango ez balu bezala, askatu, ahaltzua izan eta indartsua zaren espazio horrekin. Kazetaritza jendea-ri interpelatzea eragingo duten istorioak kontatzea ere bada, eta jendeak emakume horiek bizitzen ari direna eta beren bizitza berria zer-nolakoa den ezagutu behar du, betiereko biktimaren irudi hori gaindituz.


“Kazetaritza arduratsuak istorio pertsonalak lehenesteko gaitasuna du” dio Momoitiok, *Pikara* magazinean publikora irekitako bere sekzioan indarkeriazko egoerak kontatzen zaizkienean gainditu behar izan dituzten dilema etikoen inguruan. “Kopiatu, erantzun eta mundura plazaratzea ez da aukera bideragarria kontakizunak kazetaritzako erantzukizunetik abiatuz eraikitzeko orduan; gure eginkizuna istorio pertsonalei testuingurua ematea da, izan ere, pertsonala politikoa da baldin eta politizatzen baldin baduzu”.

Instituzioek indarkeria matxistei buruzko kontakizun mediaticoak eraikitzeari dagokionez betetzen duten zereginari dagokionez, aldi berean hedabide publiko, informazio iturri eta horri buruzko diskurtsoak eratzen dituzten entitateak diren aldetik, Borrazek horiekin aliantzak ezartzeko abagunerako tarte bat identifikatu zuen, esate baterako, Barne Ministerioak delitu sexualen salaketei buruz jasotzen dituen eta hedabideek istorioak testuinguruan kokatzeko eskatzen dituzten datuetara iristeko.

Halaber, publizitate instituzionalerako sarbidea indarkeria matxisten inguruko informazioa ematen dutenean eduki laidogarriak erreproduzitzen ez dituzten hedabideei soilik onartzeko aukera azter daiteke. Ildo horretatik, adibide modura adierazi zen, Begira akordioa sinatu ez duten euskal hedabideek ez luketela publizitate instituzionalik jaso behar, eta hori gobernuko erakundeek eta aldundiek dituzten behatokitatik kontrola liteke, hedabideei jakinaraziz indarkeria matxisten istorioetan informazio, irudiak eta kontakizunak hedatzeari buruzko akordioko puntuak urratzen ari direnean.

6:

**Gazteen artean indarkeria
matxistaren kontrako
prebentziorako politikak
eta esperientziak**



Sarrera

Atal honetan gazteen artean indarkeria matxistaren prebentziora bideratutako esperientziak eta politikak aztertzeko laneko mahaian aurkeztutako ideiak jasotzen dira.

Edukiak lau emakume adituk garatu zituzten, gai ezberdinei buruzko beren gogoetak partekatu zituztenak: *millennials* belaunaldiko gazteen sexu portaerak; sexismoa eta indarkeria Interneten eta gizarte-sareetan; maitasuna (erromantikoa) eta gazteen indarkeria matxistarekin duen harremana; emakume gazteen arteko laguntza eta elkartzeko taldeen esperientziak; gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko esku-hartze psikosozial, indibidual eta komunitarioa eta, sekzioen arteko ikuspegi batek herritarren sektore horri zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainetan aintzatesteko elementuak.

Laneko mahaia berdintasun zuzendaria den Miren Elgarrestak gidatu zuen.

Aztergaia parte-hartzaile hauek jorratu zuten.

Parte-hartzaileak



Bárbara
Biglia

Doktore Psikologian eta irakasle Rovira y Virgili Unibertsitatean (Tarragona). Epistemologia feminista, irakaskuntza birtuala eta pedagogia (ziber)feminista landu ditu. Sekzio artekotasanak indarkeriaren azterketan duen garrantzia jorratzeaz gain, bere hitzaldian prebentzioaren zentzua eta indarkeriak mantendu eta errepikatzeari dagokionez erantzukizun pertsonal, kolektibo eta instituzionala norberarengan hartzeak zer inplikatzan duen planteatu zuen eta, horrenbestez, esparru guztietan eta maila guztietatik prebentzio lana egitearen premia.



Ianire
Estébanez

Psikologoa, ezkongai-harremanean tratu txar psikologikoari buruzko bere tesia eta ondoren gazteen artean indarkeriei buruzko prebentzio, sensibilizazio eta prestakuntzan espezializatu da. Aitzindaria ziberindarkeria jorratzeari dagokionez, 2007an "Mi novio me controla... lo normal" izeneko bloga sortu zuen, gazteen artean indarkeria matxistaren prebentziarako erreferentziatzko espazio gisa jotzen dena Interneten. Hain zuzen, ziberindarkerien inguruan mamitu zuen bere hitzaldia, tresna birtualetan betiko indarkeria errepikatze modu gisa aztertuz.



Isabel
Duque

Psikologoa, sexologoa eta terapeuta sistematikoa. Institutuzio eta kolektibo ezberdinekin kolaboratzen du emakume elkarte, nerabe, hezkuntza komunitate eta psikologia nahiz sexologiako profesionaleri zuzendutako programetan. 2015ean "PsikoWoman" izeneko youtube katea sortu zuen eta 2018an Clara Campoamor saria jaso zuen. Hain zuzen, Psicowoman modura duen esperientziatik abiatuz prebentzioa burutzeko modurik onenen inguruko gogoeta egin zuen, heldua arrisku modura erdigunean ipintzen duten ikuspegiak eta gazteei entzun eta arlo horretan politika publikoak zehazteko hitza ematearen premia nabarmenduz.



Eider
Goiburu

Psikologo soziala eta sexu hezitzailea, Lahia-Nahia elkarteko kide izan da eta bertan esku-hartze psikosozialak egin ditu ikuspegi feminista batetik, sexualitatearen eta indarkeria matxistaren inguruan. Bere doktorego tesian "El sexismo, una lacra para la salud sexual: la perspectiva feminista como factor de protección" jorratzen du. Bere hitzaldian gazteen artean indarkeria matxistei buruzko programa bigarren hezkuntzako ikastetxeetan osoko ikuspegi batetik egin osteko esperientzia aurkeztu zuen. Programan hiru maila aintzat hartuz jardun zuen aldi berean: maila psikosoziala, indibiduala eta komunitarioa.

Saioaren laburpena

Gazteen artean indarkeria matxistari buruzko problematika angelu ezberdinetatik jorratu zen saioan zehar (kontzeptualizazioa, intzidentzia eta indarkeria motak, prebentziorako ereduak, politika instituzionalak, etab.). Horrela, sakontasuna eman zitzaion problematika honen tratamenduari eta hizlari bakoitzak bere espezializazio esparrutik bere ekarpenak egiteko aukera izan zuen.

Indarkeria matxistari buruzko ikuspegiak gazteen artean

Testuinguru hezkuntzako, familiar eta sozialetan helduen diskurtsoen azterketari helduz, hizlari ugari, profesionalak gazteekin duten harremana kontrolatu, babestu edo kudeatzeko irrika horretan, **helduak erdian ipintzearen logikan** erortzeko arriskuaz ohartarazi zuten. Hala Estebanezek nola Dukek adierazi zuten, akonpainamendu eraginkorra gauzatzeko, lehendabiziko urratsa gazteak zein mundutan mugitzen diren aurreiritzirik gabe begiratzea da eta horien erreferenteak zein diren ezagutzea zuzena zer den eta zer ez epaitu aurretik; eta bigarren urratsa haiei ahotsa eman eta beldurra ulertzea da, batez ere neska gazteena, sentitzen duten askatasun galteraren eta zainketaren aurrean.

Bigliak adierazi zuenez, sarritan, helduen diskurtsoek "**mendekotasunean hezte**a" erreproduzitzea dakarte eta gazteak haur gisa hartzen eta gehiegi babesten jarraitzen dute, nahiz eta betiko leloa "ahaldundu egin behar ditugu" izan. Eider Goiburuk, bestalde, gazteak errespetatzeko politikoki zuzena den diskurtsoa praktikara eramateak, era berean, **ez heltzea gorpuztea** eta "neska-mutikoekin hitz egiten ari garenean zer-nola sentitzen garen, nola hitz egiten diegun, nola begiratzen ditugun, nola entzuten ditugun, eta beren ekarpenak nola jasotzen ditugun "berrikusteko prest egotea eskatzen duela azpimarratu zuen.

Halaber, **sekzioen arteko ikuspegia** ezinbestekoa dela adierazi zuten indarkeria matxista gazteen artean nola ematen den ulertu eta hura prebenitzeko. Ildo horretatik, hizlari askok indarkeria matxistak sekzio artekotasuna jorratzean topatu dituzten oztopoak aipatu dituzte, besteak beste, politika instituzionalen segmentazioa, subjektu anitzen presentzia ezdeusa (pertsonek arrazializatuak, trans pertsonak, mende-koak) prestakuntzetan eta espazio instituzionaletan, eta indarkeria matxisten aurkako kanpainen ebaluazioan nabari ohi den sekzio artekotasunaren ikuspegiak eza.

Ziber indarkeriak

Ianire Estebanezek bere hitzaldia gazteek erabili ohi dituzten plataforma birtualetan gertatzen diren indarkeria modu berezien inguruan kokatu zuen, hasieratik ohartaraziz "ziberindarkeriez hitz egiten denean soilik teknologiarri erreparatu ohi zaiola, gizarte-sareak daudenetik gertatzen diren indarkeria berriak balira bezala, egiaz tresna birtualak **betiko indarkeriak** errepikatzekeo espazio berritzailea baino ez direnean.

Horri dagokionez adierazi zuenez, Interneten ematen den jazarpenak ez du ezberdintasunik duela bi hamarkada neskato nerabeek institutuko bainugeletan pairatzen zutenarekin alderatuz. Gaur egun gizarte-sareetan erabiltzen diren irainak (*potola, zirtzila, maritxua*) tradizionalak dira. Horrek esanahi du **estereotipo berdinek indarrean jarraitzen dutela** eta betiko kolektiboak direla indarkeria gehien jasotzen dutenak. Horregatik, esan zuen hizlariak, "garrantzitsua da hori azpimarratzea ziber jazarpena lantzean fokua indarkeria matxistan ipin dezagun eta ez soilik teknologia berriak zein zital izan daitezkeen esan".

Estebanezek ziber indarkerien elementu "positibo" bat berreskuratu zuen: sekreturik ez dagoen espazio batean gertatzen direla. Horrek **indarkeriaren mekanismoak agerian jartzen ditu** eta baita indarkeria matxistek duten izaera kultural egiturazko eta kolektiboa ere. Aitortuz teknologia berrien ezaugarri batzuek ziber indarkerien inpaktua handitu egiten dituzten elementuak dituztela, hizlariak nabarmendu zuenez, era berean, **tresna oso onak izan daitezke aktibismorako** eta indarkeria horien eta beste indarkeria guztien aurrean ematen den erantzun kolektiboari begira.

Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean

Hizlari ugarik beren **kritikak** azaldu zituzten normalean ematen diren indarkeria matxisten prebentziorako kanpainen aurka: hauek izan ziren planteatutako zenbait kritika: indarkeria fenomeno isolatu modura hartzea eta bikotera murriztu daitekeena, "emakumezko subjektuak erasotzen dituzten gizonezko subjektuak" soilik balira bezala; kanpainak emakumeei begira eratzea, prebentzioa haien ardurua dela eta beren portaera eta borondate kontua dela indarkeria murriztea dioen diskurtso batekin; kolektibo sozial oso zehatzen aurka indarkeria matxistak sorrarazten dituen esparru arau-heteroa ez zalantzan ipintzea; sexualitatearen inguruan ez hitz egitea eskola esparruetan izan ditzakeen ondorioengatik, etab.

Halaber, prebentzio lana **nork** egin beharko lukeen jorratu zuten hizlariak, kezka hori hartuta: Institutura edo udalerrira iristen diren adituek bitartekoa behar bezala ezaugu ez arren? Gazteekin hurbiltasun harremana duen komunitateko edozein kidek nahiz eta indarkeria matxisten inguruko prestakuntzarik ez izan? Alternatiba modura

komunitatea inplikatu eta prestatzea, harreman osasuntsu eta errespetuzkoak erakitzeke espazio seguruak sortzea edota "berdinen arteko" programak garatzea (non prestatutako gazteak aldaketaren eragile izango diren) planteatu zuten.

Azkenik, **tratu onak eta zaintzak** joratu zirenean eztabaida interesgarria sortu zen zaintzak erdigunean ipini eta ongi tratatzearen esanahiaz hitz egitearen garrantzia nabarmentzen zutenen eta tratu onen inguruan hitz egitea, alde aurretik indarkeria matxista eta haren egiturazko ezaugarriak identifikatu gabe, botere harremanak ikusezin bilakatzen direlako akats bat izan daitekeela ohartarazten dutenen artean, Bigliak adierazten zuen eran.

Esperientziak eta erronkak programa eta instituzioekin

Gazteen artean indarkeria matxistaren prebentziorako programa honen eta beste batzuetan jasotzen diren esperientziei helduz, hizlariak instituzioekin batera lan egiteko gizarte erakundeek aurkitzen dituzten **zailtasunak** nabarmendu zituzten, batzuen eta besteen esku hartzeko logikak ezberdinak direlako, eta baita laneko erritmoak ere; instituzioek beren erritmoak eta beren agendak ezartzen dituzte, haien politikak oso zatikatuak izaten dira eta testuinguru jakin batzuetan ez dira oso aplikagarriak, etab.

Prebentzioko programa orotan arrakastarako jarraian adierazten direnak faktore gakoak direla esan zuten eta horretan ados agertu ziren: alde batetik, **prozesuaren ikuspegia**, izan ere, kontua jarrera aldaketak eragitea da, sinesmen aldaketak ez ezik aldaketa emozionalak ematea inplikatzan dutenak, eta azken horiek akonpainamendu eta gogoetako lanketa motel eta gradualagoa eskatzen dute; eta, beste alde batetik, gazteen erritmoak, harremanak finkatzeko moduak eta espazioak kontuan izatea, eta errealitate horretara egokitzea sekzio artekotasunaren ikuspuntua praktikan jarritz.

Orobat, nahasitako instituzioaren sail eta zerbitzu ezberdinen arteko **koordinazio** ona lortzearen garrantzia nabarmendu zuen. Horretarako, esparru teoriko bat adostu behar da eta programan denbora, energiak eta dirua inbertitzaerakoan lankidetzarako jarrera bat izan behar da; eta, azkenik, ezinbestekoa da hala prozesua nola emaitzak ebaluatzea, ikuspegi feminista batetik.

Gai horiek hurrengo orrialdeetan garatzen dira.

Jorratutako gaiak

1. Indarkeria matxistari eta gazteriar buruzko ikuspegiak

1.1. Gure lanketaren xede diren gazteak

Hala lanire Estebanezek nola Isabel Duquek bere lanaren hartzaila izan diren gazteen ezaugarri bereziak aipatu zituzten, lehendabizikoak abiapuntutzat hartuta *berdinen arteko lan bat, aldez aurretik Eider Goiburuk garatua* zenbait gai jorratzerakoan, esate baterako, sexualitatea edo indarkeria matxista, belaunaldien arteko arrakala gainditzeko aukera eman diona, eta bigarrenak bere izaera *mileniala* abiapuntutzat hartuta, *Z belaunaldiko edomilenial osteko belaunaldiko* gazteekin Andaluzian.

“Gazteen inguruan gazteak kontuan izan gabe hitz egiteari utzi behar diogu.”

Belaunaldi gazte horien ezaugarri garrantzitsu bat lotsa-gabekeria oso positibo bat da. Horren ondorioz, adibide batera, maila nazionaleko ikasleen greba bat dei dezakete, non gazteek oihukatzen zuten matxismoa ikasgeletatik ateratzea edo osoko sexu heziketa bat nahi zutela. Halaber, youtubeko kanalen sorrerarekin lotutako esperientziak aipatu ziren, hainbat pertsonaiekin elkarrekin aritzea ahalbidetzen dutenak. Horietako bat da Isabel Duquek sortutakoa: *PsicoWoman*, horrela aukera dago haiekin harremanetan izateko edota zer pentsatzen duten, zer nahi duten eta zer sentitzen duten ezagutzeko, modu horretan, ikuspegi feminista batetik prestakuntzazko edukiak sortzeko.

Gazteei akonpainamendua modu asebetegarrian egiteko, lehen urratsa mugitzen diren munduari aurreiritzirik gabe begiratzea da, “gazteen inguruan gazteak kontuan izan gabe” hitz egiteari utzi behar diogu eta ahotsa eman behar zaie, sexualitate programari dagokionez zer nahi duten, familiarengandik zer eta politikoengandik zer nahi duten entzun behar diegu, beren potentzialtasunak

topatzen lagundu behar diegu, barne-barnetik hitz egin behar diegu metodologia sozio-afektibo bat erabiliz... finean, arreta 'jende gazteari' buruz pentsatzen dugun horretatik apartatu behar dugu eta herritar horiengana helduen aurreiritzirik gabe eta beldurrik gabe urreratzen ote garen galdetu behar diogu gure buruari.

1.2. Helduaroko diskurtsoa

Gazteekiko harremanak kontrolatu, babestu eta kudeatzeko irrikan heldua erdigunean ipintzearen logikan ez erotzeko egin behar denari buruzko galderaren aurrean, adierazi zen ez direla soilik garrantzitsuak transmititutako edukiak, baizik eta baita eduki horien zein posiziotik igortzen diren, izan ere, gorputz emozioa garrantzitsua da eta jarduten dugun espazioetan sortzen diren dinamikekin lotuta dago: hitz egiteko garaian norbait nire gainetik ipintzen baldin bada, helarazten didan edukia oso feminista izan arren, hura baino gutxiago sentituko naiz... Ez digu balio errespetuaz hitz egitea nerabeekin hitz egiten dugunean nola sentitzen garen, nola hitz egiten diegun, nola begiratzen ditugun edota beren ekarpenak nola jasotzen ditugun berrikusten ez badugu. Errespetua transmititzeko gorpuztu behar dugu.

“Errespetua transmititzeko gorpuztu behar dugu.”

Hezkuntza, familia eta gizarteko testuinguruetan agertzen diren diskurtso askorekin gazteak haur bezala tratatzen direla eta gehiegi babesten direla adierazi zen. Diskurtsoetan gazteak ahalduzko garrantziaz hitz egiten da, baina Biglianok adierazi zuen moduan, beren bizitzak beren kasa kudeatzeko gaitasuna indartzeko lagungarri zaizkien ekintzekin batera egiten da hori. Independenten izaten ere ez zaie irakasten, ez soilik guztia bakarrik egin dezakeen subjektu indibidualistaren zentzu neoliberal batean, baizik eta gainerakoekiko harremanari begirako pertsona modura, interdependente izanik.

1.3. Sekzio arteko begirada

Gazteei akonpainamendua egiteko orduan planteatutako erronketako bat indarkeria matxista sekzio arteko ikuspuntu batetik ulertu eta ikuspegi horretatik abiatuz ere prebentzioa lantzea da, helarazten den mezua des-

politizatu gabe eta indarkeriaren oinarrian dagoen botere harremana ahantzi gabe.

Oraindik gutxi dira ikuspegi horrekin egiten diren prestakuntzak, eta generoaren eta arrazializazioaren artean sekzio artekotasuna lantzen hasiak badira ere, ia ez dira jorratu ere egiten, esate baterako, desberdintza eta gaikuntzaren ardatz horien artean dauden artikulazioak. Halaber, beren bizitzako oinarrizko alderdiak ebatzeko beste pertsona batzuekiko mendekotasuna duten problematikak ere ez dira jorratzen, eta hor indarkerien mundua oso bortitza da eta zeharo ezezaguna.

Kontraesan bat dago sekzio arteko analisi bat balioesten duen diskurtsoaren eta prestakuntza egiten ari garen gehienon ohiko praktikaren artean: emakume zuriak gara, adin ertainekoak eta klase sozial gutxieneko bat dugunak, heziak, etab. Paradoxa horrek prestakuntza, prebentzio eta kanpainen diseinurako prozesuetan arauz kanpo dauden subjektuen parte-hartzea mugatu egiten du.

Planteatu zen adibide bat emakume gazte arrazializatu batzuen zen, talde misto batean zeudenak, eta zera esaten zutenak 'Kontua ez da hemen ez gaudenik ongi, oso ongi baikaude, baina guk gure arraza identitatearen ondorioz zenbait egoera bizitzen ditugu zuek, emakume gazte zuri modura, bizitzen ez dituzuenak'.

Sexu aniztasuna sekzio arteko ikuspuntu batetik jorratzeari dagokionez, gazteek ezberdintasunak ulertu, balioetsi eta errespetatzearen eta pertsona bakoitza entzuten ikastearen garrantzia adierazi zen, eta hasteko, izendatzen ikas dezatela. Adibide bat bost *ikasle trans* zeuden institutu batean ipini zen, eta ikasleek beren izenak soilik ikasi behar zituzten, hau da, mutiko, neskato edo pertsona horrek zer-nola izendatzea nahi zuen ikastea, eta hor komunikazioa blokeatu egiten zela ikusten zen.

Arau kanpo zeuden haurrak oso azkar etiketatzen ziren trans bezala eta hori kezka adierazi zen, eta adierazi zenez, "kontu bat da nahi duten izenarekin deitzea,

nahi duten moduan jantzi edo jolas dezatela uztea, eta beste kontu bat da genero batean edo bestean sar daitezzen presionatu eta horietako batean kokatu nahi izatea". Haurrek trantsizioa nahi duten eran eta nahi dutenean egiteko aukera izan behar dute, eta helduen beldurren ondorioz ez duten presionatuta sentitu beharrik, helduak baitira generoaren zehaztasunik ezarekin lotutako alderdi horiek kudeatzen ez dakitenak.

Bestalde, sekzio arteko ikuspuntuaren erabilera *irristakor* samar bat modan jarri dela ikusita, ezberdintasun indibidualak nabarmentzen dituen egiturazko desberdintzak lausotzen dituen aldi berean, Lucas Raquel Plateroren proposamenari berriro heltzearen garrantzia adierazi zen, zeinaren arabera ikuspegi horrek subjektu ezberdinen arteko lankidetzak bultzatzeko eskaintzen dituen aukeretan pentsatu eta gizarte esku-hartzeari begira politika eta jardunen arteko aliantzak artikulatu behar diren.

2. Ziber indarkeriak

Indarkeria gazteek erabili ohi dituzten plataformetan ere ematen da. Bertan maiz gertatzen da neskatoen bikote diren mutikoek eta beste ezezagun batzuek sareak erabiltzea haiekin harremanetan ipini, mezuak igorri, iraindu eta gauzatat hartu, hiper sexualizatu eta denetarik esateko.

Ziber indarkeriak aipatzen direnean teknologian soilik erreparatu ohi da, soilik gizarte-sareak daudenetik existitzen diren indarkeria berriak balira bezala, egiaz **tresna birtualak betiko indarkeriak errepikatzeko espazio berriak baino ez direnean**, izan ere, sareak bizikidetzarako espazioak dira, eta, horrenbestez, espazio sozialak dira eta ez gailu teknologiko hutsalak; hala, espazio fisikoetan bizikidetzarekin lotuta gerta daitezkeen arazo guztiak, espazio birtualetan ere gertatzen dira.

Dikotomia faltsu bat planetatzen da sarritan "*outline*" bizitzaren eta "*online*" bizitzaren artean, Interneten gertatzen den jazarpena duela bi hamarkada neskato nerabeek institutuko bainugeletan pairatzen zutenarekin alderatuz ezberdina izango balitz bezala. Gaur egun

gizarte-sareetan erabiltzen diren irainak (*potola*, *zirtzila*, *maritxua*) tradizionalak dira. Horrek esanahi du estereo-tipo berdinek indarrean jarraitzen dutela eta betiko kolektiboak direla indarkeria gehien jasotzen dutenak. Horregatik, ziber jazarpena lantzen denean garrantzitsua da fokua indarkeria matxisten ipintzea eta ez soilik teknologia berrien balizko zitalkeria.

“Ziber indarkeriek indarkeria matxistek duten izaera kultural, egiturazko eta kolektiboa ikusarazten dute.”

Sareak betetzen dituen anglizismoz beteriko lengoaiari dagokionez *-grooming*, *sexting*, *ciberbullying*- (eta aurretiaz sekula existitu ez ziren indarkeria direla ematen duelarik, eta hori ez da egia), hainbat fenomenok, esate baterako *sextingak*, *sextorsioak* eta *sexpreading* izenekoak sortzen dituzten polemikak aipatu dira: lehendabizikoa sexu edukidun argazkiak, bideoak edo mezuak beste pertsona batzuekin partekatzea da, eta ikerketen arabera, herritarren % 70ak egiten duen zerbait da. Azkena, ordea, sexu indarkeriako delitu da. Beraz, alternatiba ez da *sextinga* debekatzea, baizik eta hori norbera babes-tuz egiten irakastea eta *sexpreading* eta *sextorsioaren* aurrean modu kolektiboan defendatzen irakastea.

Ziber indarkeriek duten elementu “positibo” bat da sekreturik gabeko espazioetan gertatzen direla, izan ere, espazio publiko batean gertatzen ari den zerbait inork ere ez ikustea zail samarra da. Zerbait viral egin denean, hori gertatu da pertsona asko eta askok partekatu egin dutelako, beraz ezin gara mugatu bideo edo irain hori partekatu zuen lehen pertsonari errieta egitearekin; aitzitik, galdera hau luzatu behar dugu ‘Nik mugikorrean norbaitentzat umiliagarria den eduki bat jasotzen baldin badut, zerk pentsarazten dit igorri egin dezakedala?’ Horrek jazarpen hori ikusten ari den jendearekin lan egitera eramaten gaitu, hots, ingurunearekin, ziber bullyngaren kasuan egiten den moduan, non lekuko diren pertsonekin ere egiten den lanketa, ez soilik biktimarekin edo eraso egin duen pertsonarekin.

Ziber indarkeriek indarkeria matxistek duten izaera kultural, egiturazko eta kolektiboa ikusarazten dute, izan ere, sareetan ez dago erasotzaile bakar bat, baizik eta milaka edo milioika erasotzaile daude. Horregatik, ziber

indarkeriari emateko erantzuna indibidualizatzeak, “kasutik” abiatuz jardunez, prebentzio lana zaildu egiten du, izan ere, prebenitzeak sareetan eta bizitza errealean ematen den bizikidetzan motari buruz hitz egitea dakar, eta modu kolektiboan galdera bat luzatzea, hots, zer esanahi duten tolerantziak, errespetuak, berdintasunak eta aniztasunak eguneroko bizitzetan, gizarte-sareen barnean eta haietatik at.

Gizarte-sareak erabiltzen direnean ematen diren zenbait kontraesan planteatu ziren, esate baterako, intimitatea denaren eta publikoa denaren artean, izan ere, mugikorra erabiltzen denean litekeena da norberarena den espazio hertsia batean egotearen sentipena izatea, non gauzak parteka daitezkeen pantailaren bestaldean begira milaka pertsona daudela pentsatu gabe.

Sarritan, kontrolaren eta babesaren mugak ere ez dira garbi izaten, izan ere, teknologien ondorioz gurasoek nerabeekin ziber kontrolerako dituzten zenbait portaera normalizatzen ari dira, haiek babesteko argudioarekin. Beraz, ez da argi geratzen, non geratzen da norberaren espazioekiko errespetua, sekretuak izateko aukerarekiko errespetua, inork ez dakien leku bat izatekoa?

“Sarritan, kontrolaren eta babesaren mugak ere ez dira garbi izaten.”

Teknologia berri horien ezaugarri batzuek (adibidez, behalaketotasuna edo etengabe edukiak erantzun edo sortzen izatearen premia) ziber indarkerien inpaktua areagotzen duten elementuak dituztela, edo mugikorra erabiltzean intimitate sentipena izatearen eta idazten denak duen oihartzun publikoaren arteko kontraesana aitortuz, hizlariak nabarmendu zuenez, era berean, tresna paregabeak izan daitezke aktibismoari eta indarkeria horren eta gainerako indarkeria guztien aurreko erantzun kolektibori begira.

3. Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean

Beharrezkotzat jo zen prebentzio kontzeptua argitzea, izan ere, sarritan horrela izendatzen da egiaz arazo bati aurre egiteaz hitz egin behar denean, kasu honetan,

indarkeria pairatu duenari artatzeaz. Indarkeriaren prebentzioak berekin dakar indarkeriak mantendu eta errepikatzeari dagokionez pertsona, kolektibo eta instituzio modura ditugun erantzukizunak guregan hartzea. Horrek gatazkak sortzen direnean horiei aurre egiteko lanketa barneratzen du eta indarkeria areagotuz joan dadila ekiditea.

Prebentzioak jardungo den errealitate zehatza kontuan izan behar du, adibidez, mutilek, maskulinitasunaren hegemonia zalantzan ipini nahi ez dutelarik, indarkeriaren gaia lantzeari dagokionez ipintzen dituzten erresistentziak aintzatetsi egin behar dira. Horrenbestez, espezifikoki haiei zuzendutako prebentziorako kanpainetan azpimarratu beharrekoa ez da neskei zuzendutako kanpainetan azpimarratzen den gauza bera.

Indarkeria matxisten prebentzioari dagokionez egin ohi diren kanpainak oso eztabaidagarriak dira. Lehenik eta behin, prebentziorako programetan indarkeria fenomeno isolatu bezala, eta bikotera murrizten den fenomeno bezala tratatzen delako, "emakumezko subjektuak erasotzen dituzten gizonezko subjektuak" baino ez balira bezala, alde batera utziz indarkeria matxistek iraun badezakete erasotzen ari den gizarte bat dagoelako dela eta, indarkeria horiek baimentzen ari den heinean, ez ditu hautematen edo prebenitzen.

Beste kritika batzuetan adierazten zenez, desegokia da prebentziorako kanpainak emakumeei begira egitea, prebenitzea haien erantzukizuna dela eta indarkeria saihestea bere portaeraren edo borondatearen baitan dagoela adierazten duen diskurtso batekin; desegokia da kolektibo sozial oso zehatz batzuen aurka indarkeria matxista espezifikoak sortzen dituen esparru arauzko hetero bat ez zalantzan ipintzea; sexualitateari buruz ez hitz egitea horrek eskola esparruetan izan ditzakeen ondorioengatik; prebentziora nerabeekin hastea, sexu eta afekziozko harremanetan pentsatzeko moduan eragin nahi bada askoz ere lehenago jardun beharko litzatekeenean...

Zailtasun gehigarri modura, pertsona heldu askok, zehazki, informazioarako sarbide zabala duten gazteak hezten dituztenek, kolektibo sexualen edo identitate ezberdinen aurkako indarkeria matxistak jorratzerakoan duten beldurra planteatu zen. Sarritan, hetero-arauzko eskema mentaletatik abiatuz jorratzen dituzte indarkeriak eta konturatzen dira ez dutela ez estrategiarik eta ez argudiorik, bat-batean, haiek nahi ala ez, ikasgeletan aniztasun sexual guztia agerian ipintzen denean eta nola kudeatu ez dakitenean, edo sexuari eta generoari dagokionez beren sozializatzeko modutik eratortzen diren jarrera pertsonalak ezbaian jartzeko berezko erresistentziak agertzen direnean.

Badira, aldi behin gazteen espazioetan esku hartzen duten pertsonak, baina ez dira espazioan mantentzen ondorengo akonpainamendua eskaintzeko, iritsi, hitz egin eta joan egiten diren sateliteak bailiran, hutsune bat utziz. Gainera, tailer horien ondorioz kasu asko sortu ohi direla esan ohi da, baina hori ez da horrela, izan ere, egoera horiek hor ziren jadanik eta kanpoko esku-hartzeak horiek azaleratzea baino ez du eragiten. Indarkeriak gure bizitzen parte dira ingurune guztietan, orduan, norbait iritsi eta hatz erakuslearekin seinalatzen baldin baditu, ez du *agertzea* eragiten, ikusiak izateko espazioak sortu baino ez du egiten.

Prebentzio lana nork egin beharko luketen galdetu zen: Institutura edo udalerrira iristen diren adituek bitartekoa behar bezala ezagutu ez arren? Gazteekin hurbiltasun harremana duen komunitateko edozein kidek nahiz eta indarkeria matxisten inguruko prestakuntzarik ez izan? Kalterako al da poliziak prebentzio programetan esku-hartzea herritarrengan aktibatzen duen beldurraren kontakizunagatik? Eta alternatiba ezberdinak planteatu ziren, eta horietako zenbait garatzen ari dira jadanik.

Komunitatea indarkeria matxisten gaietan prestatzearen garrantziari buruzko argudioak eman ziren, eta adierazi zen gai horietan prestakuntzarik ez duten pertsonak sarritan nahasi egiten dituztela indarkeria matxista, genero indarkeria, indarkeria sexista edota indarkeria orokorra,

eta askotan pertsona horiek indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko arduradun moduan ipintzen ditugu, eta agian prebentzioa zer den ere ez dakite. Horrenbestez, garrantzitsua da komunitate osoari zuzendutako prestakuntza, bestela uneoro ezin aurrera egitea gertatzen da.

“Non ez diren epaituak izango eta ez zaien eskatuko gertatu zena xehetasun guztiekin azaltzea.”

Espazio seguruak sortzearen garrantziaz sakondu zen, nerabeek harreman osasuntsu eta errespetuzkoak eraiki ditzaten, gaizki sentitu direla edo indarkeria pairatu dutela adierazteko moduan sentiarazteko giro lagunkoiak sor ditzaten, non ez diren epaituak izango eta ez zaien eskatuko gertatu zena xehetasun guztiekin azaltzea. Gaizki sentitu baldin badira, harrera eman besterik egingo ez duen espazioa; ez dadin esku hartu krimen logika batekin, harrera egin baldin badizugu horrek esanahi duelarik beste pertsona zigorgarri dela legearen ikuspuntutik. Ez, harrera egitea, ondoezik zaudelako harrera egitea besterik ez da, eta joango gara ikusten zer gertatu den eta zer egin dezakegun.

“Berdinen arteko” programetan prestakuntza jaso duten gazteek aldaketaren eragile modura jarduten dute beren parekideekin, eta halako programek dituzten onurak oso adierazgarriak dira; formatu horrekin egin zen lan Urola Garaiko Mankomunitateko programa batean, Eider Goibururen zuzendaritzapean. Prebentzioaz arduratuko ziren pertsonak prestatu ziren entrenamendu saioetan dinamika ezberdinekin eta horiek izango ziren, ondoren, ikastetxeetan mezuak helarazten zituztenak. Jarduera horren eraginkortasuna bikoitza da: alde batetik, eragile modura jarduten dutenen ahalduntzea areagotu egiten da eta, beste alde batetik, mezua neska eta mutilengana modu eraginkorragoan iristea lortzen dugu, izan ere, lehenengoak mezuen hartzaile direnen taberna eta gizarte-sare berdinetan ibiltzen dira, ulertzen dute haien hitz egiteko modua, badakite harremanak nola finkatzen dituzten eta badakite indarkeriak zein egoeratan ematen diren.

3.1. Tratu onaren eta zaintzen ikuspegia

Hasiera batean hizlariak ados agertu ziren tratu ona eta zaintzak erdigunean ipintzeari dagokionez, hala nerabeen arteko indarkeriak jorratzerakoan nola helduek haiekin dituzten harremanetan. Saioan zehar, ordea, eztabaida piztu zen zaintzak erdigunean ipini eta tratu onen garrantzia nabarmentzea azpimarratzen zutenen eta alde zurretik indarkeria matxista eta haren egiturazko ezau-garriak identifikatu gabe tratu onen inguruan hitz egitea desegokia izan daitekeela, botere harremanak ezkutatu egiten direlako, ohartarazten zutenen artean.

Iritzietako batek ongi tratatzeak zer esanahi duen jakitearen premia nabarmentzen zuen, izan ere, Fina Sanzen ikuspuntutik, ikuspegi honetatik abiatuz lan egiten duen psikologoa: "gure gizartean tratu txarren inguruko kontzeptua nahiko argi dugu, hura izendatzeko hitz bat ere badugu, baina, zer da *ongitratatzea*? *Ongitratatzea* zer den eta jokabide horrek zein ondorio dituen aztertu behar dugu". Eta tratu onari buruzko bere ideia adibide modura helduek gaztekin dituzten harremanak horizontalagoak izan beharko luketela adierazi zuen, gorputzarekin entzuten ari gatzazkiola eta nola sentitu edo harremanak nola izan behar dituzten ez diegula esango adierazteko gai izanez, argiro azalduz ez garela babesle modura urreratuko, haiei akonpainamendua egiten ikasiz, haiek salbatzeko asmorik gabe.

“Indarkeria sexista eta matxistaren zehaztasunak ulertu behar dira.”

Idea horren kontrako, ikuspegi horrek gazteen bizitzan dauden botere harremanak eta indarkeria moduak jasotzen ez baditu dituen mugak adierazi ziren. Funtsezkoa da tratu ona jorratzeko baliatzen den ikuspuntua areagotzea, neska gazteen bizitzak zeharkatzen dituzten indarkerien esanahia birdoitzuz, tratu ona eta zainketak estereotipo ez direla bilakatu behar nabarmenduz: Tratu onei buruz alde zurretik indarkeriaren maila ezberdinak identifikatu gabe hitz egitea ez da egokia, izan ere, gazteen errealitatea ezkutatu egiten da. Indarkeriari buruz hitz egin behar da eta indarkeria sexista eta matxistaren zehaztasunak ulertu behar dira, ondoren tratu onetara bideratutako baliabideak eskaini ahal izateko.

Halaber, tratu ona ikuspegi feminista batetik aukera ez-tabaidagarria dela adierazi zen, emakumeen indarkeria eta oldarkortasuna aldarrikatzen duena, izan ere, uneren batean legitimoa da ekintza oldarkorren alde egitea edo adierazteko modu oldarkor bat agertzea, eta hori aitortzea bereziki garrantzitsua da prestakuntza ematen dugun gehienok emakumeak garela eta emakumeoi indarkeriaren eta oldarkortasunaren kudeaketa ukatu egin zaigula kontuan izanda. Neskak ere oldarkorrek eta erasokorrek dira, mutilak bezalaxe, eta noizbait jokabide oldarkorra agertzen baldin badute, mutilek bezalaxe horretaz hitz egiteko aukera izan behar dute.

Garrantzitsua da neska gazteak ez daitezela epaituak sentitu autodefentsaren alde egiten dutenean, nahiz eta hori teknikoki indarkeria modu bat den, izan ere, komunikazio ez oldarkorraz eta ez indarkeriaren baliabideak emateaz hitz egiten baldin badugu ere, agian ematen ari gatzaizkien baliabideekin ez da aski. Oso ongi dago kontuz eta maitasunez harremanak finkatzeko moduak erakustea eta, era berean, aitortu behar dugu adierazpen oldarkorrek zenbaitetan gure bizitzaren parte direla, eta horiek landu egin behar direla, eta ez ukatu; ikuspegi irekia behar dugu indarkeriaren kontzeptua bere osotasun guztian berdoitu eta aztertzeke, indarkeria erabiltzeko eskubidea dugun baliabidea, egiaz gauden testuinguruan bizirauteen jarraitzeko aukera emango diguna, noiz izan daitekeen ikusteko.

4. Esperientziak eta erronkak programa eta instituzioekin

Gazteen artean indarkeria matxistaren prebentziorako programetan jasotzen diren esperientziei helduz, instituzioekin batera lan egiteko gizarte erakundeek aurkitzen dituzten zailtasunak nabarmendu ziren, batzuen eta besteen esku hartzeko logikak ezberdinak direlako, eta baita laneko erritmoak ere; gainera, instituzioek beren erritmoak eta beren agendak ezartzen dituzte, haien politikak oso zatikatuak izaten dira eta testuinguru jakin batzuetan ez dira oso aplikagarriak, etab.

Garrantzitsua da instituzioekiko harremanen konplexutasuna kontuan hartzea, gazteen artean indarkeria matxista egiaz prebenitzeko lanketa egin nahi bada. Ezinbestekoa da haiekin lan egitea eta ezin da ontzat eman ikuspegi bera erabiliko denik eta hitz batekin gauza bera esan nahiko denik, baina aliantza hori sortu egin behar da, ez emantzat eman gizarte zibileko elkarteen eskutik.

Gizarte mugimenduen eta instituzioen arteko harremana une batzuetan ezin da jakin tratatu onekoa edo tratatu txarrekoa ote den, baina edozein kasutan beti da korapilatsua. Zenbaitetan, kalean denbora gehien ematen dutenak instituziora iristen dira eta guztiak oso motel egiten duela aurrera sentitzen du, landu nahiko genituzkeen zenbait gauza daudela, baina ezin dira egin, edo nola koka ditzakegun ikusi behar dugu landu nahi baldin baditugu.

Prebentzioko programa orotan arrakastarako jarraian adierazten direnak faktore gakoak direla esan zuten eta horretan ados agertu ziren: alde batetik, prozesuaren ikuspegia, izan ere, kontua jarrera aldaketak eragitea da, sinesmen aldaketak ez ezik aldaketa emozionalak ematea inplikatzeko dutenak, eta azken horiek akonpainamendu eta gogoetako lanketa motel eta gradu-lagoa eskatzen dute; eta, beste alde batetik, gazteen erritmoak, harremanak finkatzeko moduak eta espazioak kontuan izatea, eta errealitate horretara egokitzea sekzio artekotasunaren ikuspuntua praktikan jarritz.

Orobat, nahasitako instituzioaren sail eta zerbitzu ezberdinen arteko koordinazio ona lortzearen garrantzia nabarmendu zen. Horretarako, esparru teoriko bat adostu behar da eta programan denbora, energiak eta dirua inbertitzerakoan lankidetzarako jarrera bat izan behar da. Eta, azkenik, lurraldean ainguratze on bat eraikitzekeo premia dago, komunitatearekin lankidetzaren argi bat finkatuz, baina horizontaltasunik ez dagoen lekuan halakorik balego bezala jokatu gabe, izan ere, proiektu batzuetan "hobe da aitortzea 'koordinazioa nik dudala eta arauak hauek direla' eta zintzoak izatea lankidetzan noraino irits daitekeen erabakitzerakoan.

**“Amaitzeko,
ikuspegi feminista
batetik,
prozesua nahiz
emaitzak
ebaluatearen
garrantzia
nabarmendu
zen.”**

lido horretatik, Eider Goiburuk gazteen artean indarkeria matxistei buruzko programa Urola Garaiko Mankomunitateko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egin osteko esperientzia aurkeztu zuen. Programak osoko ikuspegia izan zuen, eta hiru maila aintzat hartuz jardun zuen aldi berean: maila psikosoziala, indibiduala eta komunitarioa. Lehendabiziko mailan neska eta mutilen garapen psikosexualaren garapena izan ziren kontuan, baina baita teoria feminista ere, indarkeria matxista ulertzeko; eta metodologia parte-hartzaile eta belaunaldi arteko bat erabili zuen.


Bigarren maila batean, programak sexualitateari eta indarkeria matxistari buruzko informazio eta aholkularitzako zerbitzu indibidualizatu bat sortu zuen. Espazio konfidentzial eta segurua, indarkeria modura kalifikatu behar zituzten ala ez ez zekiten zenbait egoera bizitzen ari ziren neska batzuen eskaerari erantzuteko eta kudeatzeko. Azkenik, maila komunitarioan, nerabeekin lan egiten duten hezkuntzako eragile guztien prestakuntzari heldu zitzaion: familiak, irakasleak, gazteluko eta ludoteketako hezitzaileak, kale hezitzaileak, esku-hartze familiarra burutzen ari ziren pertsonak, etab.

Amaitzeko, ikuspegi feminista batetik, prozesua nahiz emaitzak ebaluatearen garrantzia nabarmendu zen. Ebaluazioa ezinbestekotzat jotzen da, nahiz eta zenbaitetan konplexu samarra izan, izan ere, zenbaitetan edukitzen ez den denbora, energia eta dirua eskatzen du. Halaber, prebentziorako politikak txertatzearen inguruko ebaluazioak (barnekoak zein kanpokoak) egitearen premia adierazi zen, eta noski ikuspegi feministatik, hori baita esku-hartzeak hobetzeko bermea.

Programak ebaluatu egin behar dira, hala egiten ez badugu, ez baitakigu zer-nola esku-hartzen ari garen. Agian izan ditugun arazoek ez dute zerikusirik edukiekin edo metodologiek, baizik eta gai batzuk jorratu ahal izateko erabiltzen ari garen estrategiek. Orduan, ebaluazioa da hobetu eta pertzepzioen bidez jarduteari uzteko dugun modu bakarra.

7:

**Sexu jazarpena
hautzaroan: prebentzioa
eta arreta ikuspegi
feminista batetik
jorratzea**



Sarrera

Atal honetan ikuspegi feminista batetik haurtzaroan sexu indarkeria aztertzeke laneko mahaian aurkeztutako ideiak jasotzen dira.

Edukiak bost adituk aurkeztu zituzten, indarkeria matxista modura, haurtzaroan sexu indarkeriaren nahiz biktimengan indarkeria honek dituen ondorioen inguruko azterketa bat aurkeztu zutenak. Halaber, sistema judizialak problematika hori jorratzeko moduari buruzko narrazio bat eta arretaren jorrocketari buruzko zenbait esperientzia, hala haurtzaroan nola helduaroan, azaldu ziren.

Laneko mahaia berdintasun zuzendaria den Miren Elgarrestak eta Gazteriako zuzendaria den Isaac Palenciak gidatu zuten.

Aztergaia parte-hartzaile hauek jorratu zuten.

Parte-hartzaileak



Haurren psikologoa, haurtzaroan gertatutako tratu txar eta sexu jazarpenean espezializatua. 2011z geroztik indarkeriaren biktima diren adingabeen Arreta Psikologikoko Zerbitzuan egiten du lan Madrilgo Erkidegoko Genero Indarkeriaren Udal Puntu ezberdinetan, eta adingabeetan sexu

jazarpena nahiz genero indarkeria prebenitu, hauteman eta tratatzeko tresna terapeutiko ezberdinak eratu ditu. Bere aurkezpenean haurrekin egindako esku-hartzeei buruzko bere zenbait esperientziari buruzko xehetasunak eman zituen.



Sandra
Muñoz

Mediku psikiatra eta, gaur egun, auzitegiko medikua Leganeseko Epaitegietan, non indarkeria mota ezberdinak pairatu dituzten adin txikiko zein adin nagusiko biktimak balioesten dituen. Bere eskutik egin zen haurtzaroan gertatzen den sexu indarkeriaren problematikari buruzko aurkezpen orokorra.



Anne
Campillo

Psikologo feminista, sexologoa eta aditua psikotraumatologian, 18 urteko esperientzia sexu indarkeriatik eta genero indarkeriatik bizirik atera diren emakumeekin, adingabe zein gazteekin, lan eginez Madrilgo Erkidegoan. Bere ageraldian traumaren teoria azaldu zuen, sexu jazarpenaren biktima diren haurrei zer gertatzen zaien ulertzeko.



Pilar
Pascual

Psikologo feminista, Alcalá de Henareseko Emakumearen Aholkularitza Zentroa zuzendu du eta Udal horretan genero indarkeriaren biktimentzako Larrialdi Zentroa jarri du martxan; Osasunerako Emakumeen Elkarteetan lan egiten du eta zuzendarikide da Emakumeon Artean Osasun Espazioko eskolan. Laneko mahaian haurtzaroan sexu indarkeriaren biktima izandako emakume helduekin egindako esku-hartzeetan izandako esperientzia aurkeztu zuen.



Víctor Manuel
López

Abokatua eta gizarte graduatua, 10 urteko esperientzia duena sexu jazarpenaren biktima diren adingabeen eta horien familien arretan Adingabeen Tratu Txarren aurkako Galiziako Elkartearen (AGAMME). Bere ageraldian haurtzaroari dagokion sexu indarkeriaren lege esparrua aurkeztu zuen.

Saioaren laburpena

Saioan zehar haurtzaroan sexu indarkeria prebenitu eta tratatzearekin lotutako gai ezberdinak planteatu ziren, eta hizlariak horien gainean beren ikuspegi eta esperientziak aipatu zituzten.

Sexu indarkeria haurtzaroan: egiturazko arazo bat

Hizlari guztien arabera haurtzaroan ematen den sexu indarkeria **indarkeria matxistaren adierazpide** bat da, eta horrenbestez, gizartearen egituraren arazo bat, beste alderdi batzuen artean, familia ereduarekin eta haurtzaroari buruzko aintzatespenarekin. Dena den, Sandra Muñoz izan zen emakumeen aurkako diskriminazioa eta zapalkuntza sorrarazten duten botere harremanak haurren aurkako sexu indarkeriaren oinarrian daudela eta pertsona helduek adinagatik egoera zaugarrian daudenen aurka erabiltzen dutela irizten duen ikuspegi feminista xehetasun gehiagoz azaldu zuena.

Hark aurkeztutako datuek agerian uzten dute **erasotzaile gehienak gizonak direla eta biktima gehienak neskatoak direla**; horrez gain, indarkeria horrek neskatoen “emakume egiteko” prozesuan eragina du, izan ere, eboluzio aro goiztiar batean pairatutako erasoek neskatoek generoari dagokionez beren buruarenganako pertzepzioa, irudia eta kontzientzia eratzeko modua baldintzatuko dute.

Gainera, eraso horiek **ez dira sistema patriarkal batetik kanpo gertatzen**, funtsezko zutabeetako modura, beste batzuen artean, familia eta justiziaren funtzionamendua dituen. Zutabe horiek kontuan izan behar dira biktimen prebentzioa, akonpainamendua eta berreskurapena jorratzerakoan, haurtzarotik helduarora bitartean.

Sexu indarkeriaren biktimekin esku-hartzeko ereduak

Haurtzaroan bizitako sexu indarkeriak **traumak** sorrarazten ditu biktimarengan eta ezinbestekoa da trauma horiek ongi ezagutzea tramatzatuko ez dituen eta berriro biktima izatea eragingo ez dien arreta bat diseinatzeko eta, aitzitik, biktimak eta haren ingurunea indartzeko mekanismoak ipiniko dituen, berreskurapen osasuntsu eta osasungarri bat izate aldera. Proposamen hori Anne Campillok azaldu zuen.

Bestalde, erasoaren bizipenen biktima izan diren haurrek zenbat eta hobeto baitaratu, hau da, **beren buruari errua botatzeko sentimendurik gabe**, eta bizitako espe-

rientzia konponezina dela barneratu gabe, pairatutako trauma gainditzeko baldintza hobetan egongo dira.

Horri dagokionez, esku-hartze positibo baterako tresna erabilgarri modura, Laura Rodriguezek sexu indarkeria pairatu duten haurren emozioak metodologia ludiko baten bidez jorrazeko balio duen mahai-joko bat aurkeztu zuen, bizitako traumaren adierazpena eta gertatutakoaren inguruko haien narrazioak berreskuratzea ahalbidetzen duena. Bestalde, Pilar Pascualek, haurtzaroan sexu indarkeria pairatu duten emakumeekin egindako lanketatik abiatuz, nabarmendu zuen haiek beren ondoezak senda ditzaten jorrazten diren edukiak ez ezik, haiekin harremanetan izateko moduak ere garrantzitsuak direla, esate baterako, talde laneko metodologia goxo eta sendagarriak erabiltzea, beren autonomia indartzeko giroak sortzea, tratu atsegina eta maitasunezkoa ematea eta norberaren denborak eta prozesuak errespetatzea.

Haurtzaroko sexu indarkeriaren tratamendua esparru judizialean

Sistema judizialak, oro har, erasoak pairatu dituzten adingabeen denborak eta prozesuak ez errespetatzeaz gainera, **erreproduzitu egiten ditu modu larriagotuan**, izan ere, alde batetik, adingabeen hitzaren aurreko eszeptizismoa agertzen du eta, beste alde batetik, haurtzaroko sexu indarkeriari dagozkion alderdi sakonenak ez ditu aintzat hartzen eta horrek bere biktimak berriro biktima sentiaraztea dakar.

Arrazoi horiek direla medio, gure gizartean balio sinboliko esanguratsua badu ere, litekeena da bide judiziala ez egokiena izatea indarkeria matxistak pairatzen dituztenak artatzeko orduan. Hala, Sandra Muñoz nola Víctor Lopez bat datoz ideia horrekin eta azken horrek, abokatu bezala duen esperientziatik abiatuz, adierazi du bera lekuko dela nola milaka emakume eta haur eraso egiten dituzten sistema judizialak eta inposatutako zaintza partekatuari edota sindrome faltsuei buruzko hartako araudiek.

Problematika hau modu egokian jorrazteko profesionalen prestakuntza

Azkenik, sexu indarkeriaren biktima izandako adingabeak artatzeko orduan horren konplexua den problematika bat jorratu eta merezi duen garrantzia emateko hala alderdi sozialek zein taldeko lanari dagozkionek nola **profesionalen arteko koordinazioak** duten garrantziaren inguruan adostasun handia izan zen. Profesionalen prestakuntza bizipenetik eta esperientzietatik abiatuz, ez soilik alderdi teorikotik, so, premiazkoa da: maila individual nahiz taldekakoan, kolektiboan eta komunitarioan, esku-hartzen ikastea, biktimen osoko erreparazio batera bideratutako arreta baten ikuspegian.

“Neskatoen gaineko jazarpena maizago gertatzen da mutikoen gainean ematen dena baino.”

1. Sexu indarkeria haurtzaroan: egiturazko arazo bat

Sandra Muñozek bere aurkezpenari hasiera emateko National Center of Child Abuse and Neglect zentroak hurren sexu jazarpenaren inguruan jasotzen duen definizioa aipatu zuen: “haur baten eta heldu baten kontaktu edo interakzioak dira, helduak, erasotzaileak, haurra erabiltzen duenean bere burua, haurra edo beste pertsona bat sexualki estimulatzeko. Sexu jazarpena 18 urtez azpiko pertsona batek ere gauza dezake, biktima baino nabarmen handiagoa denean (adinean), edo beste adingabe batekiko botere edo kontrol egoera batean dagoenean”.

Arazo honek gure inguruan eta mundu mailan duen prebalentzia erakusteko, datu hauek eman zituen:

- UNICEF erakundeak adierazten duenez, neskatoen gaineko jazarpena maizago gertatzen da mutikoen gainean ematen dena baino. Mundu osoan hamar neskatotik bat sexu indarkeriaren biktima izan da noizbait.
- Europako Kontseiluaren arabera, Europako adingabeen % 20 indarkeriaren biktima izango dira.
- Espainian, 17 urtetik beherako neskatoen % 23k eta mutikoen % 15ek sexu jazarpen motaren bat pairatu du, eta kasu gehienetan, % 90ean, jazarlea familiako kidea edo biktimarengandik oso hurbileko pertsona bat da.
- Buruko osasuneko bi zentrotara jo zuten 477 emakumeren lagin batean klinikoki adierazgarria den erlazio bat finkatu zen (laginaren % 13 baino gehiago) haurtzaroan sexu jazarpena pairatu izanaren eta buruko nahasmen larria izatearen artean.

Adingabeen aurkako indarkeria fisikoa zein hitzekoa izan daiteke, edo biktimaren aurrean egindako sexu ekintza esplizituak izan daitezke, hala familia barnean nola familiatik at.

Gainera, arazo hori genero ikuspegi batetik jorratzeko sistema patriarkalak neskatoei eta mutikoei inposatutako rola eta prozesu horretan gauzatzen dituen dinamikak kontuan izatea eskatzen du, horri dagokionez *hertsadurako* patriarkatuaren eta *baimenaren* patriarkatuaren artean bereizketa eginez. Lehenengoaren kasuan genero arloko rol eta harremanen gaineko arau zorrotzak inposatzen dituen eta horiek betetzen direla ziurtatzeko zigorrak ezartzen dituen sistema bat da. Bigarrenaren kasuan, aldiz, adostasun orokor bat dago balizko berdintasun baten existentziaren inguruan eta kontrolerako mekanismoak sotilagoak izan daitezke eta, horrenbestez, gerta liteke emakume eta gizonen artean desberdintasunik ez dagoela sinestea, Espainian gertatzen den eran. horrenbestez, haurtzaroko sexu indarkeria jorratzen denean, genero arloko rol horiek inposatzeko modu ezberdinek indarkeria horiek bizitzeari dagokionez duten eragina aintzatetsi behar da.

Analisi horren ondorioz, Sandra Muñozek proposatzen du haurtzaroko sexu indarkeria prebenitu eta artatzen denean ezinbestekoa dela generoak gure sinesmen sisteman eragiten dituen zehartasunez ohartzeta eta derrigorrezkoa dela genero rol horiek iraultzea, neskatoengan eta mutikoengan jarrera oso ezberdinak sustatzen dituzten egitura eta mezuen ondorio baitira, izan ere, lehen-dabizikoak obedientzia, sentikortasun, amultsutasun eta zaintzara bideratzen diren bitartean, mutikoen astean oldarkortasuna, lehiakortasuna, independentzia eta auserdia sustatzen da.

Pilar Pascualek, bestalde, indarkeria matxistaren egiturazko izaerari egotzi zion biktimen hitzekin zalantza egiteko joera: erasotzaileak, gehienbat, gizonak direnez eta erasoak pairatzen dutenak emakumeak, neskatoak eta mutikoak, sinesgogortasun eta eszeptizismoko jarrera indarkeria ahalbidetu eta akuilatzen duen sistema patriar-

“Adingabeen aurkako indarkeria fisikoa zein hitzekoa izan daiteke, edo biktimaren aurrean egindako sexu ekintza esplizituak izan daitezke.”

kalaren parte da. Horregatik, haurtzaroan jazarpena pairatu zuten emakume helduak artatzen direnean kontuan izan behar da jazarpen hori gertatzen den inpunitate esparrua.

Osasunerako Emakumeen Elkartean, haurtzaroan gauzatutako jazarpenak emakumeen aurkako indarkeria motatzat hartzen dira, ez soilik jazarleen % 90 gizonak direlako eta jazarrien artean neskatoak askoz gehiago direlako mutikoak baino, baizik eta gizon baten aldetik sexu jazarpenak pairatu dituen neskato batek bere azterna zehatzak izango dituelako emakume modura erakitzen delarik. Horregatik, ezinbestekoa da gizon baten aldetik jazarria izanez hazi eta harekin bizitzen jarraitzea zer den.

Arazo honi osoko modu batean heltzeko, elkarteak biktimaren diren emakumeak artatzen ditu, haien artatzeko profesionalak prestatzen ditu, herri administrazioen aurrean esku-hartzen du, erakunde eta instituzioekin emakumeen sareak bultzatzen ditu eta iritzi publikoa sentsibilizatzen du bitarteko birtual eta presentziazko ezberdinak baliatuz. Horrenbestez, emakumeen osasuna genero ikuspegi batetik lantzeari dagokionez erreferente bilakatu da.

Ikuspegi horren barnean, garrantzitsua da ulertzea haurren jazarle gehienak biktimaren aurrean botere eta menderakuntzako posizioaz ziur dauden gizonak direla, eta haurrak beti otzantasun lekua hartzen du, horrenbeste normalizatu dena, ezen iraultzen baldin bada, gaitzespena eta errua jaso baititzaiteke. Gainera, jazarpena inguratuz hausten oso zaila den sekretu laino bat dago, sarritan jazarpena ikusezin bilakatuz.

Mahaian parte hartu zuten pertsona guztiek beren adostasuna agertu zuten haurtzaroko sexu indarkeria genero ikuspegi batetik jorrazteko premiarekin. Muñozen hitzetan: "Kontuan izan behar dira testuinguru soziala, genero arloko manuak eta gizonek eta emakumeek zein portaera izan behar duten baldintzatzen duten eraikuntza inkontzienteak, errealitate horren erroa eta irismena ezagutu eta osoko azterketa bat egin ahal izateko. Haurtzaroko

sexu jazarpenari heltzen zaionean, izan maila klinikoan, juridikoan edo sozialean, nortasunaren konfigurazioan, hala bere kontakizuna kontatzen digun biktimarenean nola erasotzailenean, eragiten duten genero aldaerak daudela izan behar da kontuan".

Era berean, azpimarratu zuen, biktimaren zaugarritasun egoera larriago egin daitekeela ematen zaion tratamenduak ez baditu aintzat hartzen bere larritasun osoan jazarpenak eragiten dituen hondamenak. Horregatik, garrantzitsua da hurrekin esku-hartzea jorrazteko ikuspegi eta teknika egokiak izatea, esate baterako, test proiektiboak eta jolasa, nahiz eta horien emaitzak sarritan esparru judizialean egiazkotasun urrikotzat jo. Biktimak indarkeria horretatik osatzeko beharrezkoa denaren eta esparru judizialean onargarri denaren arteko kontraesana beti egongo da hor, babesik eza sorraraziz hurrei eta beren amei. Alderdi hori aurrerago garatuko da.

2. Sexu indarkeriaren biktimekin esku-hartzeko ereduak

Hauek izan ziren beren esku-hartze ereduak azalduz mahian parte hartu zuten adituak: Anne Campillo, Pilar Pascual eta Laura Rodriguez. Lehenengo biek haurtzaroen sexu indarkeria pairatu duten emakume helduekin lan eginez garatutako esperientziatik abiatuz egin zuten beren agerraldia, hura aitortuz eta jorrazteko berriazko laguntza eskatuz, hau da, beste kausa batzuen ondorioz hasitako terapia prozesua garatzean deskubritu zuten esperientzia hori. Laurak hurrekin egindako lanketaren ondoriozko esperientzia azaldu zuen.

2.1. Esku-hartzea traumatologiatik

Anne Campillok bere agerraldian indarkeria horren biktima diren hurrengan sexu jazarpenak dituen eragin traumatikoak azaldu zituen.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da pertsonak jaiotzen direnetik bizirauteko garatzea behar dituzten loturazko harremanak ulertzea. Harreman horiei esker beren bar-

**“Hurtzaroen
jazarpena
pairatzeak
adingabeengan
garapenaren
nahasmendu
traumatiko
modura kataloga
daitekeen
inpaktua
sorrarazten du.”**

neko egoerak modu egokian erregulatzen dituzte (gosea, logura, mina, beldurra) eta autonomia, ekimena, intimitatearen zentzia eta mundua segurua eta aurreikusgarria den zerbait bezala hautemateko zentzia garatzea ahalbidetzeko eragina lortzen dute. Finean, “beste pertsonekin enpatiazko harremanak eratuz eraikitako loturak dira, eta horri atxikimendu seguru deritzo”.

Trauma “hiltzeko, kalte larria jasotzeko eta osotasun fisiko edota psikologikorako egiazko edo balizko mehatxua irudikatzen duen gertaera baten eraginpean zuzenean egotea da, eta haren aurreko erantzunak beldur bizia, ikara eta kontrola mantentzeko gaitasunik eza barneratzen ditu”. Haren eraginpean egoteak neskatoak bere burua ikusteko eta inguruan duen mundua ikusteko moduan eragiten du. Hala, “sen on” izenekoaren eskurapen ebulitiboa eten egin daiteke hurtzaroen zehar jazoera traumatiko bat gertatzen denean.

Trauma barneratzen duen esku-hartze ereduaren barnean ezinbestekoa da jazoera oldarkor bakar eta isolatu baten eta modu kroniko eta jarraituan pertsonen arteko egoera traumatikoen eraginpean izatearen inpaktuaren (inpaktu hori larriagotu egiten da sexu jazarpena gauzatzen duten pertsonak adingabeentzat atxikimendurako irudiak direnean) arteko bereizketa egitea. Psikologia eta psikiatriako eskuliburuetan *trauma osteko estresaren sindromearen* pairamena jazoera oldarkor bakarren kasuan definitzen da eta haren sintomen artean berriki nahasmendu disoziatiboak, despertsonalizazioa eta deserrealizazioa sartu dira; haatik, haur batek atxikimenduzko harremana duen norbaiten aldetik eraso pairatu osteko eraginak ondo zehazkete eta modu egokian jaso gabe daude oraindik.

Hurtzaroen jazarpena pairatzeak adingabeengan *garapenaren nahasmendu traumatiko* modura kataloga daitekeen inpaktua sorrarazten du, izan ere, trauma osteko estresa eragiten duen egoera bakoitzak bere ondorioak ditu haren garapen fisiko, emozional eta neurologikoan. Jazarpene gertakizun bakoitzaren ondotik defentsarako mekanismo zehatzak garatzen dira, esa-

te baterako, ukoa eta amnesia, bestela oso zaila izan-
go litzateke haien aurrean bizirautea; gainera, haurren
garapen kognitiboa aztoratzen duen gertakizun horiek
buruan "gordetzeko" modu bat garatzen da.

Pentsa dezagun haurren garuna bi "karpetetan"
banatzen dela: batean sexu indarkeriak sorrarazten
duen trauma gordetzen da eta, bestean, berezko bi-
zitzaren istorioaren narrazioa. Bien arteko harremana
funtsezkoa da esperientzia traumatikoak prozesatzeari
dagokionez, izan ere, traumaren karpeta denbora ga-
bea eta testuingururik gabea den bitartean (beraz beti
dago latente modu lausoan); bestea tenporala eta
testuinguruduna da. Hazten doan heinean jazarritako
pertsonak "normaltasun osoko" itxura izan dezake bere
eguneroko bizimoduan, baina trauma isilean agertuko
da gutxien espero duenean eta oroitzapen hori zehazki
nondik datorren jakin gabe eta egiazko oroitzapena den
ere jakin gabe.

Gainera, garrantzitsua da adieraztea trauma bat da-
goenean, garunaren Broca eremua (hitz bakoitza edo
are esaldi laburrak adierazteko planak eta patroir eragi-
leak abian jarri eta gauzatzen diren lekua) deskonektatu
egiten dela eta, horregatik, izu isila aipatu ohi da, bizi-
takoa hitzetan ipini ezin delako.

Horregatik, sexu indarkeriaren biktima izan diren emaku-
meen tratamenduak traumaren ikuspegi osokoa barne-
ratu behar du haren jokabideak ulertzeko, beste modu
batera irrazional eta ulergaitz modura interpretatu eta
haurtzaroko indarkeria horren bizipenean sakontzen ez
duten eta haren eragin guztiak ulertzen ez dituzten beste
nahasmendu batzuekin diagnostikatzea gerta daiteke.

Traumaren espezializatutako Judith Lewis Herman psikiatra
feministaren lanketa erreferente ona da eragin horiek
joratzeko. *Trauma y recuperación* izeneko bere liburu
garrantzitsuenetako batean egilea ikuspegi trauma-
tikoa txertatzen saiatzen da teoria feministan eta be-
rreskurapen orok hainbat etapa dituela adierazten du:
lehendabizikoa segurtasun eta babesaren bilaketa da,

**"Pentsa dezagun
haurren garuna
bi "karpetetan"
banatzen dela:
batean sexu
indarkeriak
sorrarazten duen
trauma gordetzen
da eta, bestean,
berezko
bizitzaren
istorioaren
narrazioa."**

bigarrena traumaren eraketa bera da eta hirugarrena norberarekin eta ingurunearekin birkonektatzea. Haatik, Lewisek laugarren etapa bat gaineratzen du, bizirautea osatzen duena, hots, traumatik harago joan eta misio bat eratzea. Bizirik atera den baten misioa kontzientzia kolektiboa sortu eta herritarrak sentsibilizatzeko.

Ikuspegi horrez gain, traumaren tratamendurako badi-ra beste zenbait teknika, esate baterako, *atxikimendua konpontzeko utero barneko teknika*, zeinaren helburua haurtzaroen jazarpena pairatu duen biktimak "esperientzia bizi izan zuen neskato hori artatua izaten ari den pertsona helduarekin bat-egitea ahalbidetzekoa". Izan ere, esperientzia traumatikoak beti uzten du ondorio bat gabezia modura edo gehiegikeria gisa, hau da, sexuaz deus jakin ez nahi duten emakumeak, edo hiper sexua bizi duten emakumeak, herstura edo depresioa duten emakumeak. Jazarria izan den neskatoak bertute neurrikorik eta gabezia toleragarririk ez dagoela ikasten du, guztia zeharo zurruna da, eta horregatik ez dago ego-kitzapenerako gaitasunik.

2.2. Genero ondoezak

Genero ikuspegia emakumeen arretan aplikatzeko moduaren adibide bat da Osasunerako Emakumeen Elkarte, hogeita hamar urteko esperientziaren ondotik haurtzaroko sexu indarkeriaren diagnostia, arreta eta tratamendua egiteko ulermen teoriko bat eta praktiko bat eskaintzen duena.

Ikuspuntu teorikoak ikuspegi feminista barneratzen duen psikoterapia du oinarri, eta bere abiapuntua da "genero desberdintzak eta diskriminazioak dituen eta gizonek emakumeen aurka eraso egitea baimentzen duen gizarte batean, non indarkeria hori legitimatua dagoen eta desagerrarazteko behar besteko ahalegina egiten ez den, neskato izanez haztea zer esanahi duen ulertzea".

Ikuspegi horretatik, elkarteak bere esku-hartze ereduia sistematizatu egin du bi genero ondoez mota, lau depresio mota eta hiru genero sindrome identifikatuz. Azken

horiek horrela izendatu dira: indarkeria bikotean, sexu jazarpenak haurtzaroan eta bikotearen banantzea.

Genero depresioari buruzko bere teorizazioari dagokionez, probabilitate gehiagok ager daitezkeen emakumeen bizitzako lau une identifikatu dituzte:

- Proiektu autonomoa hasten duten emakume gazteak.
- Bikotea eta seme-alaba txikiak dituen adin ertaineko emakumeak. "Bikotean egotea arrisku faktorea da haren osasunerako; haatik, berarentzat ongizate faktore bat da".
- 40 urteko adinera bikote eta seme-alabarik gabe hurbiltzen diren emakumeak. "Hori zentzu askotan abantailak dituen egoera bat izan arren, bizitza emankorraren amaiera arrisku faktore bat izan daiteke, depresioa ekar dezakeena".
- Adin nagusiko emakumeak, bereziki bikote berarekin jarraitzen dutenean, seme-alabak jadanik hazita, gorputza aldatu egiten da eta zaintza lanak ere zeharo aldatzen dira.

Indarkeria matxista egiturazko kontua denez, pairamen horiek naturalizatu eta normalizatu egin dira. Horrenbestez, emakumeak dituzten ondoezak artatzen direnean beren genero identitatearekin zerikusia duen ala ez jakitea garrantzitsua da; hala ez bada, emakumea beste arreta espazio batera bideratzen da, eta hala bada, genero ikuspegiko protokoloak aplikatzen dira.

Protokolo horiei ekiteko indarkeriaren aldaerak barneratzen dituen galdetegi indibidualizatu bat betetzen da, azken harreman sexu-afektiboa ebaluatzekoa; ondoren beren bizitako istorioari, haurtzaroan bizitako tratu txarreko egoerei, bikote harremanei, asertibotasun sexualari, autonomiari, amatasun harremanari (hura bete zein ez bete) eta zaletasunei buruzko elkarrizketa erdi egitura egiten da; azken galdera hori garrantzitsua da, izan ere, hura eginez jakin denez, emakumeen % 90ak ez du halakorik.

“Alde afektiboa eta baterako harremanak eta eraikuntzei ekiteko beste modu batzuk hartuz lan egiten da.”

Lehendabiziko hurbilketa horren ostean, zentroak belau-naldi arteko tailer bat eskaintzen du adinaren arabera eta, ondoren, haurtzaroko sexu jazarpenari buruzko tailer espezifikoa bat, non emakumeak aukera izango duen bere esperientzia gai horri buruz hitz egiteko prest dauden beste zazpi emakumerekin partekatuz. Alde afektiboa eta baterako harremanak eta eraikuntzei ekiteko beste modu batzuk hartuz lan egiten da. Horregatik, esate baterako, tailerrera sartzeko itxaron-gela autozerbitzua duen taberna bat da. Horrek bertaratzen direnen artean topaketa eta solasaldirako espazio bat izatea ahalbidetzen du.

Belaunaldien arteko tailerretan genero ondoezak lantzen dira eta sexu jazarpenak kaltetutako hiru zutabeak identifikatzen dira: autoestimua eta norberarenganako kontzeptua, harreman pertsonal eta barne-barnekoak, eta sexualitatea. Hauek dira tailerrean jorratutako lau bloke tematikoak:

- Lehendabiziko blokeak jazarpenaz “kanpotik” hitz egiten dute, hau da, sexu jazarpenaz zein iritzi duten, sexu jazarpenaz zer hartzen duten edota sistema patriarkalean nola kokatzen duten adieraziz.
- Bigarrenean “izan ziren neskatoak” lantzen da, terapia kognitibo, portaerako, emozional eta sozialetik abiatuz. Alde emozionala oso garrantzitsua da, baina zenbaitetan emakumeek ez dakite adierazten sentitzen dutena eta tratamendu emozionalaren bidez lortzen dute. Bloke honen helburua “izan ziren neskatoa barkatzea” da eta erruari eta lotsari zuzenean eraso egitea, helduarora herrestan eramaten baitira; era berean, sexu eraso baten biktima izanaren onarpena txertatzea bilatzen da.
- Hirugarrenak, amarekiko harremana jorratzen du: “Nolakoak ziren ama horiek? Zer egiten zuten? Nola bizi izan dute otzantasuna? Une honetan kontua ez da amei errua kentzea, izan ere, haiek izan zuten bere erantzukizuna alabaren arretarik ezan, baizik eta nor izan ziren, nola heziak izan ziren

eta alabak zaindu eta osasuntsu mantentzeko egiazko zein aukera izan zuten esparru orokor batean ulertzea”.

- Eta laugarren blokea aurre egitearena da. Une horretan emakumeei gertatu zena salatzen geratzen zaizkien gogoak lantzen dira.

2.3. Jolasaren terapia

Laura Rodriguezek sexu indarkeria bizi izan duten edo bizitzen ari diren hurrekin esku hartzeko erabilgarriak izan zaizkion tresnak aurkeztu zituen: lehendabizikoa “gertae-rei hitzak ipintzea” da, sexu jazarpena izendatzea, izan ere, haurrak biktime direnean gehiago kostatzen da egiazko biktime modura ikusgai egotea; eta bigarrena jolasa da, esku-hartzearen estrategia nagusi modura erabiliz. “Ez dugu ahantzi behar jolastea dela hurrek guztia ikasteko duten modua. Beraz, terapian erabiltzen denean biktimek bizi izan dutena beste era batean jorra dezakete”.

Horrela, “Coletas eta Verdi jolasa” (2012an TEA Edizioen sariaren irabazlea) Laura Rodriguez eta Maria Angeles de la Cruzek sortu zuten terapiako saioetan erabiltzeko asmoz, izan ere, lagungarri da haurtzaroko jazarpen kasuak prebenitu, hauteman eta tratatzeko. “Zerbaiten sakondu behar dugula uste baldin badugu, jolasak nola egin eta terapiarekin nondik jarraitu jakiteko informazio asko ematen digu”.

Jolas horretan jazarpena tentuz jorratzen da, zuzenean izendatu gabe biktimek bere denboran eta moduan artikula dezan. Jolasaren mekanikak elementu hauek barneratzen ditu:

- Coletas eta Verdi, protagonistak, mutiko bat eta neskato bat dira, eta biktimek haiekin identifika daitezke. Horrela, haiek egiten dituzten galderak Coletas eta Verdiren jardueri buruzkoak dira.
- *Kontakizun txarteletan* neskatoak edo mutikoak Coletas edo Verdirekin lotura bat sorrarazteko

“Zerbaiten sakondu behar dugula uste baldin badugu, jolasak nola egin eta terapiarekin nondik jarraitu jakiteko informazio asko ematen digu.”

galderak jasotzen dira, esate baterako: Zein gauza dibertigarri kontatu dizkizute zure lagunek azkenaldian? Zein gauza aldatuko zenituzke zuregan? Zer da gertatu zaizun gauzarik okerrena?...” Galdera horiekin agian indarkeriaren eta jazarpenaren ondorio diren egoerak hautematen dira.

- *Berregituraketa kognitiboko txartelak* neskatoari edo mutikoari beren gogo aldartea eta egoera emozionala hobetzeko aukera eman diezaiaketen beste pentsatzeko modu batzuk daudela ikusarazteko daude planteatuta. Halako kasuak jasotzen dira horietan: “Coletasek arratsalde osoa eman du ariketa bat ebatzi nahirik, baina ez du lortu eta zera pentsatu du: “Ustela naiz, zer esango zenioke hobe senti dadin?” Txartel horiek Kapitainaren ahotsetik kontaktzen dira, nolabait terapeutaren irudia hartzen duen pertsonaia bat.
- *Aurre egiteko txarteletan* aurre egin beharreko egoera bat planteatzen da eta halako kasuak jasotzen dira: “Coletasen lagun batek etxeko lanak eskatzen dizkio etengabe eta bera kokoteraino dago, zer egin dezake Coletasek? A) haserretu; B) asko sentitzen duela, baina beti ezin dizkiola etxeko lanak utzi esan; C) Harekin ez topo egiten saiatzea. Txartel horiek egoera deseroso, bidegabeko edo gehiegikeriakoei aurre egiteko tresnak pilatzera begira daude.
- *Psiko-heziketako txartelak* hiru motakoak dira: emozioenak, irudi bidez bereizten direnak; sexualitatekoak, portaera hiper sexualizatuak dituzten neskato eta mutikoak artatzeko baliagarri direnak; eta sekretuak, sekretu “onak” eta “txarrak” zein diren aipatzekoak; azken horiek oso baliagarriak dira neskatoen eta mutikoen buruan sekretua desmitifikatzeko.
- *Komodin txartelak* txartel ludikoak dira, atseden emozionala ematen dutenak. Horrenbestez, mugako jazarpen edo egoerak zuzenean kontatzeko dinamikarekin hausteko kontsignak barneratzen dituzte.

Horrenbestez, txartel horiekin jolastuz neskatoek eta mutikoez beren esperientzien inguruan hitz egiten edo egokitzen hasten dira eta, aldi berean, jolasaren parte modura puntuak irabazten doaz, eta horrek terapiarekin ez horren modu izugarrian lotura egitea ahalbidetzen die. "Neskatoek eta mutikoez zirrara sentitzen dute, izan ere, puntuen *sailkapen* bat egiten da, beste leku batzuetatik eta beste ikuspegi batzuen baitan pentsatzeko aukera ematen du horrek", adierazi zuen Laurak.

Era berean, aipatu zuen beharrezkoa dela erresilientzian adituak direnekin harremanetan jartzea, bizitzako etapa horietan garatzen den errua, egozentrismoa ezaugarri duena ("inguruan gertatzen den guztiaren erruduna ni naiz") nola desagertu dakiten profesionalekin, eta batez ere, "helduen memoriarekin" lan egingo ez dutenak, baizik eta sexu jazarpena sorrarazten duten prozesuak jorratzen dituztenak, biktimari ahotsa emanez. Indarkeria horretan heldua erdigunean ipini ohi da eta terapian, Rodriguezek adierazi zuenez "sarritan neskatoari ahotsik eta botorik ez ematearen akatsa betetzen dugu, terapia baten eraginpean ipintzen ari dena agian prest ez da goenean edo bere unea ez denean".

3. Haurtzaroko sexu indarkeriaren tratamendua esparru judizialean

Sistema judizialak haurtzaroko sexu jazarpenari ematen dion tratamenduari buruzko bere hitzaldian, Victor Manuel Lopezek arazo handietako bat kasu horietan izaten den inpunitate maila oso handia dela azaldu zuen. Bartzelonako Unibertsitatearen ikerketen arabera, kasuen % 3 eta % 5 artean baino ez dira salatzen, eta kasuen % 70 instrukzio fasean artxibatu egiten dira. Horrek haurtzaroko sexu indarkeriaren ondoriozko delituen inpunitate mailaren dimentsioa zer-nolakoa den erakusten du.

Zergatik ez da salatzen? Victor Manuel Lopezen ustez "epaitegiak ama salatzaileak eta jazarritako mutiko eta neskatoen haragia xehatzeko egiazko makinak dira". Sexu indarkeria gizarte estigma bat da eta gehienetan

“Indarkeria hori isilpean mantentzeari uzten zaionean kondena sozial bat egoten da.”

semeak edo alabak familiako gizon bat edo ezagun bat egiten ari zaiona kontatzen dionean ama bakarrik dago, ez du beti familiaren babesa izaten, beraz ahal duena egingo duen abokatu bat (gizonezkoa edo emakumezkoa) baino ez zaio geratzen, eta agian sinetsiko dion psikologo bat (gizonezkoa edo emakumezkoa), beste inor ez. Lagunak urrundu egiten dira, izan ere, ez dute egunero bere semea edo alaba salbatzen saiatzen ari den ema bat entzun. Hots, indarkeria hori isilpean mantentzeari uzten zaionean kondena sozial bat egoten da.

Amak, hala eta guztiz ere, salatzeke hautua egiten baldin badu, giro areriorsua aurkituko du, neurri handi batean epaitegietako prozeduren erruz, izan ere, zigor prozesua ez da adingabera egokitzen. Beraz, behin adingabe horrek epaitegia zapaltzen duenean, adibide batera, ordularia lapurtu eta lapurreta salatzerantz doan pertsona helduari bezalaxe tratatuko zaio; epeak, mekanika, berdina da bi kasuetan. Espezializaziorik eza da zigor prozesuan lehendabiziko diskriminazioa.

Bigarren arazoa, zein adinetan esplora daiteke adingabe bat? Gai horri buruz iritzi ezberdinak daude epaitegietako langileen artean, psikologia eta auzitegi-medikuntzako taldeen artean. Dena den, uste partekatua da sei urtetik beherako mutiko bat edo neskato bat ezin dela esploratu, haren lekukotza ez delako sinesgarria.

Kataluniako Generalitatearen Ikerketa Juridikoen Zentroak sinesmen hori hankaz gora ipintzen duten datuak eskaini ditu, adieraziz 3 urteko neskato eta mutiko jazarrien % 52,9aren kasuan kasuak sineskorrek direla; 4 urte dituztenen artean portzentaje hori % 79,2koa da eta 5 urtekoen artean % 82,5koa. Hots, sinesgarria da 6 urtetik beherako mutiko edo neskato baten lekukotza sexu jazarpena pairatu izana deklaratzeko duenean. Adina sineskortasunari begira oztopotzat hartzeak adingabeak entzuna izateko eta zigor prozedura batean lekuko izateko duen eskubidea argi eta garbi urratzea dakar.

AGAMME elkarteak A Coruñako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin egindako ikerketa batean, prozesu

ezberdinak artxibatzearen arrazoiak aztertuz, arrazoi nagusia adinaren ondoriozko sineskortasunik eza zela ikusi zuen. Hau da, esaten dutena esanda ere, mutikoari eta neskatoari ez zaie sinetsiko, modu arbitrarioan ahultasun mentala, gorrotoz edo mendekuz jokatzeko grina, anbiguotasunak, kontraesanak, denboran salaketak iraun ez izatea aurpegiatzen zaizkie. Halaber, kasu hauetan epaia ematen duten langileen prestakuntzari ezak egoera horretan dagoen mutiko batek edo neskatobatek bizi dituen leialtasun gatazkak ez ulertzea eragiten du, haur horrek nahi duen bakarra maitatua izatea denean, are min egin dion harengandik ere.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2009ko Zirkularrak sineskortasunik ezaren sinesmena bultzatu eta aintzatesten du, halako deklarazioak jasotzen dituenen: “Esperientzia judizialak, zoritzarrez, agerian uzten du ez direla salbuespenak balizko tratu txarren edo jazarpenen ondoriozko salaketak, errealitatearekin bat ez datozenak eta helburutzat zaintzaren erabakian eragina izatea dutenak. Horretarako, kasu horiek arreta handiz eta tentuz aztertu behar dira, bere errugabetasuna erakusteko biderik ez duen norbait justifikaziorik gabe kondenatua izatea ekiditeko, akusazio proba bakar modura bere familiaren inguruneak eraginda egon daitekeen adin goiztiarreko mutiko baten adierazpen aldakorak ipiniz”.

**“Ikuspegi
judizialek so
haurtzaroko
sexu indarkeria
delitu ez
sinesgarria da.”**

Egitura judizial horren guztiorren ondorioz haurtzaroko sexu indarkeriako delituaren biktimek beste inork ez bezala egin behar dute borroka, sinetsiak izan daitezten, izan ere, arretaren esparruak itxura batean “egiazkotasunik ezaren printzipioak” gidatuta daude: Ikuspegi judizialek so haurtzaroko sexu indarkeria delitu ez sinesgarria da, delitu horrekin bereziki tentuz ibiltzen dira, eta hori ez da gertatzen gainerako delituekin.

Anne Campillok sineskortasunaren arazoa nabarmendu zuen, eta arretaren protokoloak eragozpen hori gainditzen ez duela laguntzen planteatu zuen, izan ere, eraso ukan duen adingabeko neskatoak behin eta berriz egin behar du jazarpenaren kontakizuna batere terapeutikoak ez diren testuingurutan. Beraz, bere ustez,

premiazkoa da arretan heldua erdigunean ipintzearen ikuspegia alboratzea, haurtzaroan bizitako esperientzia traumatiko oso konplexuak ezkuta ditzakeena, biktimak "atxikimendu desantolatua" gara baitezake (jazarlearekiko atxikimendu indartsua hura, aldi berean, bere zaintzaillea denean), oker interpretatu ohi dena eta erasotzailleekiko birlotura prozesuak justifikatzeko balio izaten duena.

Bestalde, delitu horrek sekretua izaten du lagun, erasotzailleak oso ongi daki nola suntsitu mutikoaren edo neskatoren harreman guztiak hura islatuz eta sekretua eta traizioa aipatuz. Horrek sexu indarkeria publiko egiteko aukerak murriztu egiten ditu.

Sexu jazarpenaren salaketa derrigorrezkoa da biktima adin txikiko bat denean, eta hala familiak nola arretan nahasitako profesionalak ipin dezakete. Horrekin batera "biktimei zuzendutako aholkularitza, laguntza eta euspena, nahiz trauman, disoziazioan psiko-heziketa eta profesionalentzako esku-hartzeko jarraibideak" eskainiko dituzten saioak egin behar dira, Campillok adierazi zuenez. Gainera, "sexu indarkeriaren inguruan sentsibilizatu, kontzientziatu eta prebenitzeko politikak falta dira, eta ezinbestekoa da arlo afektibo eta sexuarean hezteko planak txertatzea, pornografia ezin baitaiteke izan haurrentzako heziketarako gunea" adierazi zuen.

Haurtzaroko sexu indarkeriaren babesgabetasun judizial agerikoaren aurrean, Victor Manuel Lopezek administrazioetan dagoeneko funtzionatzen ari diren tresnak baliatu edo optimizatzeko zenbait neurri proposatu zituen.

- Genero indarkeria artatzeko bulegoak dauden lekuetan haurtzaroko sexu jazarpenarako bulego espezifiko bat sortzea, non landa ikerketak egingo diren halako indarkeriaren intzidentziaren gainean, kasuen jarraipenak eginez eta prozesuak aztertuz.
- Haurtzaroko sexu indarkeria "biktimarentzat lotsagarria den delitu" izateari uzteko beharrezkoa den informazio oro hedatzea.
- Salaketan ondorioz esku hartuko duten talde

espezializatuak prestatzea. Administrazioek arlo horretan prestatuta dauden eta arretan inplikatzaren diren profesionalak daudela ziurtatu behar dute, izan ere, "biktimak oso galduta, desorientatuta eta bakarrik daude."

- Haurtzaroaren babeserako araudi baten barnean protokoloak ezartzea, behar beste estalduraz eta derrigorrez betetzekoak.
- Epaitegietan Gesell kamerak instalatzea (norabide bakarreko kristalek konfiantza giro bat sortzeko aukera ematen dute) eta kasuak artatzen dituzten profesionalak zorrotasun etiko eta metodologikoz erabiltzen dituztela ziurtatzea.
- Haurtzaroko sexu jazarpenak helduen aurkako sexu erasoen lege esparru bera izatea bermatzeko tresna juridikoak sortzea, izan ere, modu horretan zigorrak handiagoak izan daitezke.

Azkenik, prozesura zibilak zigor prozeduraren baitan ipintzea ekiditea proposatu zen, izan ere, "azken honen helburua errugabetasun presuntziora suntsitzea (ala ez) da; haatik, prozesu zibilean adingabearen interesen defentsa da axola duena. Izan ere; horrela ez baldin bada, non geratzen da adingabearen interes gorena? Mundu guztiak hitz egiten du horren inguruan, baina inor ez daki zer den" argudiatu zuen Lopezek.

4. Problematika hau modu ego- kian jorratzeko profesionalen prestakuntza

Arreta ematen duenaren eta artatua denaren artean dagoen harreman asimetrikoa ikusita, premiazkoa da haurtzaroko sexu jazarpenaren biktimak artatzen dituzten profesionalak ideologia, erlijio, arraza, kultura eta nortasunari buruzko beren berezko sinesmen sistema berrikus dezatela.

Hala, esate baterako, Osasunerako Emakumeen Elkar-
tearen "Emakumeon arteko Osasun Espazioa" izeneko

programan profesionalen eta erabiltzaileen artean harreman horizontal bat ezartzen da. Horretarako, alde zurretik sozializazioaren desegituraketa lan bat egin behar izan da profesionalen euren artean.

Laneko mahaian parte hartu zutenen arabera, funtsezkoa da haurtzaroko sexu jazarpen kasuak artatuko dituzten profesionalak prestatzea, eta guztiak bat etorri ziren horretan, baina ez zuten adierazi gabe utzi haiek ere badituztela aurrezarritako ideiak, eztabaidara eraman behar diren mundua ikusteko moduak eta sinesmenak. "Garrantzitsua dirudi honek gure lanaren euskarri den gure kontzeptu esparru berezkoa eztabaidatzea eta gure sinesmen eta mandatuak berrikustea behartuko gaituela" adierazi zuen Muñozek.

“Jazarpena pairatu duten adingabeak artatzen dituzten pertsonak horretarako gai diren balioetsi behar dutela.”

Osasunerako Emakumeen Elkarteak ikuspegi feminista duen psikoterapiaren teoria, nahiz haren metodologia formalizatu eta erreplikatzeko duen prestakuntza eskola bat du. Pilar Pascualek horri dagokionez azaldu zuenez "Zergatik klinikatik eta emakumeen entzute aktibotik abiatuz dakigun hori guztiori ezin diezaiekegu beste profesional batzuei irakatsi? Hasiera batean elkartean esan genuen 'soilik psikologientzat izango den prestakuntza bat egingo dugu', ez baikenuen genero ikuspegia zuten psikologorik aurkitzen inon ere ez, baina ondorioztatu genuen sexu indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesional guztiok, ez soilik psikologoek, norberaren sozializazioa dekonstruitzeko prozesu bat egin behar dugula; haatik, administrazioko adiskideak, harrerakoak eta abar emakumeak ongi tratatzeko daude trebatuta eta dagoeneko dituztenak baino gatazka gehiago ez sorrarazteko".

Laura Rodriguezek alderdi horretan sakondu zuen adieraziz jazarpena pairatu duten adingabeak artatzen dituzten pertsonak horretarako gai diren balioetsi behar dutela, izan ere, prozesuan aurreiritziak ez ezik, beren bizitzan konpondu gabe dituzten alderdiak ukitzen dira. Eta hori kaltegarria izango litzateke berreskurapen prozesuari begira, izan ere, artatzen dituzten profesionalak zein ausartak diren helarazi behar diete biktimei: "Garrantzitsua da


hori helaraztea, beste inork ez baitu egiten, ahuldadea indartzen da gehiago. Azken batean, zuk haiek beren burua diren neskato ausartak bezala ikusten laguntzea, oso garrantzitsua da haientzat”.

Esparru kliniko eta judizialean izan duen esperientziatik abiatuz, Sandra Muñoz bat etorri zen gainerako hizlariekin sexualitatea subjektibotasun femenino nahiz maskulinoan txertatzeko moduaren eta sexualitatea adin goiztiar batetik eraikitze moduaren gaineko prestatuntzaren garrantziari dagokionez. “Sexualitatean nahasirik dagoen mekanismo psiko-dinamiko guztia kontuan izatea heziketa prozesuko parte izan beharko litzateke, izan ere, sexualitatea hezkuntzan tabua da oraindik. Sexualitateari buruz modu irekian hitz egin ahal izatea funtsezkoa da gure nortasuna garatzeko prozesuari begira, baina era berean, funtsezkoa da, patriarkatua eta generoko mandatuak eraisteko moduaren inguruan begiak irekiko dizkigun tresna hezigarrietarako sarbidea izatea”. Horretarako, garrantzitsua da profesionalak “lehen pertsona” prestatzea, baitaratu diren generoko mandatuak zalantzan ipintzeko prest izanik, teoria ikasi ez ezik haren bizipena aztertu dezatela bermatzeko.

Madrilgo Erkidegoko osasun eta ospitale arretako zentroetan “generoko erreferente” izeneko osasun arloko pertsonak daude, medikuak, psikiatrak, psikologoak, gizarte langileak, hezitzaileak edo erizainak izan daitezkeenak. Batzordeak eratzen dituzte eta haietako kideak modu teorikoan prestatzera behartuta daude, baina baita esperientzien arabera trebatzera ere. Halako esperientziak funtsezkoak dira biktimen patologizazioa eta estigmatizazioa ekidin eta haiei modu eraginkorrean laguntzeko.

Hala genero indarkerian nola haurtzaroko sexu jazarpean biktimek beren denborak dituzte eta beren prozesu berezkoak. Egia da askok egiaren aitortza alderdi judizialen eskuetan uzten dutela eta esaten dute “epaile batek (gizona zein emakume) hau egia dela esatearekin, ni jadanik sendatu egingo naiz”, baina bide judiziala bakarra ez den heinean, eta haurtzaroko sexu jazarpen

“Hala genero indarkerian nola haurtzaroko sexu jazarpean biktimek beren denborak dituzte eta beren prozesu berezkoak.”



kasu guztien irtenbidea ere ez denez, funtsezkoa da komunitatean laguntzarako espazioak sortzea, udalerrian dauden gizarte zerbitzuetan espazioak sortzea, beste biktima batzuekin hitz egin dezaten eta beren denboretara egokitutako berreskurapeneko taldekako prozesuak bizi ditzaten.

Ezinbestekoa da zuzeneko indarkeria pairatzea ekiditeaz gain, adingabeek beren ingurunean "zoratuta dago buruko osasuneko zentro batean ari baitzaie tratatzen" entzun behar izatea ekiditea. Noski, jazarpenak ondoez izugarria sortzen duen sintomatologia ekartzen baldin badu azkenean, buruko osasunaren aldetik kontrol bat egon behar da, baina, oro har, emakumeen oinazea eta sindromeak artatzeko, sarritan arrazoirik gabe patologizatzen direnak, askoz ere gehiago laguntzen da komunitatean ospitale egituretan baino.

